


Etienne Salaberry II
Bere pentsamenduaz
(1903-2003)

Joxe Azurmendi

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza jaso du

EGAN



eman ta zabal zaizu:



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKALZALEEN BILTZARRA



© EGAN

ISBN: 84-933155-1-6

Lege Gordailua: SE-2794-2003 (II)

Editore: Gillermo Etxeberria

Diseinua eta maketazioa: Erroteta

Ekoizpena: Erroteta

Azala: Zirrimarra

Printed in UE.

Inprimaketa: Publicaciones Digitales, S.A.

www.publidisa.com - (+34) 95.458.34.25. (Sevilla)

Etienne Salaberry II
Bere pentsamenduaz
(1903-2003)

Joxe Azurmendi

Aurkibidea

Hitzaurretxo gisa	9
E. Salaberry-ren pentsamenduaz	13
Aurreohar batzuk	13
Iraultzaren ildotik	17
Lehen eta orain, XIX eta XX. mendeak	22
Pentsamenduaren borroka, eboluzioa.....	30
Sinestea, Jainkoa, gizartea	51
Gizon-emakumea.....	58
Euskalduna, Euskal Herria	64
Europa	70
Hezkuntza eta lana: erregionalismoa, federalismoa.....	73
Estatuaren eskola	75
Deseuskalduntzeko eskola.....	77
Kolonizatuaren ispiluan.....	83
Iraultza erregionalista	88
Filosofia	90
Filosofo kazetari eta saiolaria	92
Filosofiaren erabilera literario bat.....	97
Polemika artean	100
Bergson	113
Salaberry eta Bergson	115
Bergson euskal kulturari	119
Agur, Jaun Salaberry	122
Oin oharrak	125

Hitzaurretxo gisa

Hau Salaberry bat da. Hobeto, Salaberryren eraikuntza posibletarik bat, Pako Sudupe, Davant, Aintziart, eta abarren Salaberryren ondoan. Haiek lagun dituela irakurtzekoa. Etienne Salaberry anitz dago –haren obran–, eta bakoitzaren eraikuntza posible anitz, berriro, obraren irakurketatik hasirik, Salaberry berriak asmatuz irakurle eta irakurkera bakoitzaren arabera. Hemen Salaberry filosofoa pentsatzaile edo gogoetzaile gisa nahi dugu hauteman.

Haren testuen irakurketa bat da, hortaz, liburu hau. Irakurtzea ulertzea bada, eta ulertzea testuaren barrua asmatzea, Salaberryren asmaketa bat duzu hau azkenean, asmaketaren arriskuekin.

Irakurtzea interpretatzea da. Interpreteak (kritikoak) sortu, asmatu egiten duela, O. Wilderen «The Critic as Artist» saio bixigariaren ideia nagusia da. Arazo hermeneutiko funtsezko bat da, Wildek abileziarekin planteatzen duena. Kritikoa ulertzailea da. Ulertzea, lan oso korapilotsua. Shakespeare ulertzeko, ulertu beharra dago, zein erlaziotan dagoen Ernazimentu eta Erreformarekin, Elisabet eta Jamesen aroekin; zein erlaziotan bere garaiko gatazka literarioekin, forma tradizionalen aldeko eta berrien zaleen artean; garaiko eskola dramatiko diferenteeekin;

eskura zeuzkan materialen eta gaien berri izan behar da, eta haietaz baliatzeko Shakespearen metodoa ezagutu; XVI eta XVII. mendeetako antzerkiaren baliabideak eta mugapenak, eta askatasunerako aukerak; orduko kritikaren tankera, xedeak, arauak; hizkuntza ingelesaren bilakabidea ikertu behar da, bertso erri-matuaren eta blankoaren garaldi ezberdinak orobat; drama grekoa ezagutu eta haren lotura Shakespearenaz, Shakespearen tokiak ezagutu drama europarraren ibilbidean eta dramen oro har mundu guztian... Batez ere, alabaina, iruzkingileak Shakespearen barruan murgiltzen jakin behar du eta haren pertsona bere obrarentzat iturri bezala atzematen: Hamlet eta Romeogan Shakespearen arima ikusten alegia, pertsonaia horiek Shakespearen ari-maren eta grinaren emaitzak baino ez baitira («Hamlet came out of his soul, and Romeo out of his passion. They were elements of his nature»).

Orixe, Mirande, Rikardo Arregi, Arizmendiarieta..., holakoen asmaketan, eraiketan behin eta berriro saiatu denak, ondotox daki, berak egin dituen interpretazioak, zenbateraino ziren asmaketa bat eta eraikuntza bat, subjektiboa. «Osotik» berak hautatu ditu piezak, ebaki handik eta hemendik, nahastu, bere interesen arauz berezi, berriro elkarrekin eraiki, hau hemen, hori han, Orixe, Mirande, Rikardo, Arizmendiarieta deseraikien materialekin berriak osatuz, bereak. Beharbada autoreak artikulu eta liburu –beraz, abagune, erreferentzia, leku– ezberdinetan, esanahi ezberdinekin jaulkiak bata besteari josi eta jantzi berri bat ematen diogu. Berak ez zuen borobiltasun bat, guk ematen diogu apika. Berak pentsatu ez zituen ondorioak, aterarazten dizkiogu ausaz. Berak ohartzen ez zituen inplikazioak, erlazioak asmatzen dizkiogu. Berak inoiz pentsatu ez zuena, pentsarazten diogu. Berak iragaitzean bezala bota eta ahazturiko perpaus bat, guk eraikuntza guztiaren giltzarri bihurtzen diogu agian. (Ez da derrigor autoreak inportantzia ematen diona, guretzat inportantea dena autorean). Bera inoiz kontziente izan ez zen, sistema bat eta koherentzia bat ezartzen diogu... Eta hala ere bera da. Bere pentsamendua da. Dena bera da. Eta dena da ni, nire pentsamendua!

Subjektibismoa? Subjektibismoaren kritikak Wilde ez du ikarutzen. Are, kritika subjektibo eta objektiboaren kontu zaharrak deus ez du konbentzitzen. Zenbat eta pertsonalagoa eta propioagoa autorea, hainbat pertsonalagoa behar du interpretazioak, «and the more strongly this personality (interpretearena) enters into the interpretation the more real the interpretation becomes» ebazten du berak. Norbera subjektiboki gehien konprometatuz erdiesten ei da kritika (interpretazio) objektiboena. Interprete hoberena eta objektiboena, hortaz, autore interpretatuan sartu eta bera harekin subjektiboki identifikatzen denena, litzateke. «When Rubinstein plays to us the *Sonata Appassionata* of Beethoven, he gives us not merely Beethoven, but also himself, and so gives us Beethoven absolutely». Aktoreak Hamleten interpretazio guztiz pertsonal bat egiten badu, jendeak –eta sasi-kritiko zientifiko batzuek– «Shakespeareen Hamlet bera», objektiboak, eskatzen du, ez aktorearena. Falazia hutsa. «There is no such thing as Shakespeare's Hamlet (...). There are as many Hamlets as there are melancholies».

Honek esan nahi du, irakurle/irakurketa adina Salaberry dagoela. Salaberry bera, Salaberry bere baitan, ez dago. Ez da ezer. Gure interpretazioak sortzen du Salaberry (berdin: historia, Euskal Herria, etab.). Baina pianoa eta partitura Salaberryk jartzen ditu.

Gainera Salaberryren kasuan, interpretazioaren programa Pako Sodupekin egin du (hari zor zaio/diot liburu hau), egitasmoaren arauz interpretatzekoa ez zen sonata bakar bat, baina liburu, artikulu, konferentzia, kazetako saio, antzerki, poesia eta modu askotariko kreaio ugari konplexu bat, Salaberryren obra. Eta ekipo batek ahalegindu behar zuen iruzkinean. Testu ezberdinen interprete eta interpretazio ezberdinak, elkarren osagarri. Azkenean, bada, eskuetan duzun liburutxo hau, ezin izango baita eta ez baitu izan nahi Salaberry anitzetako baten zati bat baino. Horregatik, aurre-ohar batzuekin komeniko zaigu hastea.

Joxe Azurmendi

E. Salaberry-ren pentsamenduaz

Aurreohar batzuk

Esateko bakarrik, zergatik ez zen a priori egokiena, ikerketa hau –Salaberryren pentsakera– hegoaldeko batek egitea.

Hegoaldekkoa naizen honi, Salaberry –*So Egilea*– ez zaio beti ulertzeko erraza egiten: bere pentsamenduagatik, batzuetan; lexikoagatik, edo estiloagatik, beste batzuetan. Bera kultura handiko gizona zen eta esku beteka berdura-tzen ditu handik eta hemendik ideiak eta autoreak: haren logikari, edo zenbait alusio edo iragaitzeko izen aipameni, ez diozu beste gabe zentzua antzematen batzuetan. Ez dakizu zer asoziazio ibili duen buruan. Are gutxiago dakizu deus ideia eta aipamen horien momentuko testuinguru konkretuaz Iparraldeko gizarte giroan. Idazkeraz bezainbatean, aldiz, artoski hautua dizu hori, landu-landua, ez dago han koma bat ongi pentsatu gabe, hitzen aukeran bezala esararen moldean. Baina berak darabilen hitz asko, hasteko, hegoaldekoak ez du ulertzen, eta behin eta berriro alfer-alferrik bilatzen du hiztegian. Nekarazgarria da dauzkagun hiztegiekin. Eta hala ere, zailtasuna ez da lexikoaren kontua

bakarrik. Konpara Salaberry eta Xipri Arbelbide, biak Heletako haurrak, eta ikusiko duzu prosaren diferentzia. Estiloa da gehiago. Salaberryren irakurzalea askotan estropozoka doa le-
roz lerro.

Salaberryk oso estilo partikularra garatu du, literatur kritikoek egunen batean zehazki azertu beharko lukete. Gozaten ari da, espresioaren teknikak esperimentatzen. Haren idaztea, ezagutzen dugun puzzle baten osatze trebe, esku segurukoa da. Piezaz pieza eta komaz koma (koma, Salaberryren baliabide funtsezkoa!): «Basa, errotik basa, huts egina, edo Baxe-Nabarren diogun bezala, «ez bataiatua», uste lukeena, giza-gaizoa, Irulegiko arnoak, urtetik urterat, gustu bera duela» (*Ene Sinestea*, 5). «Hogogarren mendeko bigarren zatian, bada ara berri bat, zoinen arabera, ainitzek salatzen baitute, argi eta garbi, erraiten, ahoan bilorik gabe, nolakoa den heien sinestearen ez bakarrik aintzina, bainan gibela, ez bakarrik alderdia, bainan infrentzua, ez bakarrik axala, bainan mamia» (6). Sententzien estilo moztua: «Sortu gira buluz-gorri; Jaungoikoaren aintzinean agertuko buluzgorri» (7). «Begiak idekirik dauzkan itsua, alderdikaria» (11). Trinko beti –ez horregatik erraza. Atsotitz bat hemen, onomatopeiak han eta hor (ez dut ezagutzen, onomatopeia gehiago darabilen beste idazle bat)¹. «Sinestea krisk eta krask ari delarik gizonen, gizona krisk eta krask ari da bere izaitean, atxikiko duka, hautsiko hiza, duda-mudan» (8). «Euskaldun guztiek badukegu naski elgarren iduri, tantiruri-ruri» (7). «Tantiruri, gu ere bertzeak iduri» (21). «Haizea mehe, bir-bir-bir» (17). Sasibertoak, atsotitz estiloan: (haurtzaroan) «Josteta, mokoka eta noitzenka joka, gure lokarri. Solasak, irriak eta batzuetan nigarrak, gure zedarri» (58). Kontrasteak, paralelo nahiz kiastikoak: «Hura ezti, bertzeak oihes; hura oihes, bertzeak ezti» (28). Edo kontraste eta jauzi: «Iduri luke, bainan iduri lukena ez da beti hala dena. Karraka-zak, putil, azala, jakiteko nolakoa den arbola» (11). Konparazio poetikoak bat-batean, ederki: «Solasa bazoan, hala nola eurixketan ortzadarra, arto, pentze, mahastegien gaintetik» (50). Baserrian badira artazuriketa edo urde hilketa eta, lanak: «Bainan horiek ziren erdi-lanak, eta osoki bestak. Bazen jendea trumilka. Denak zerbeit ari. Kantuak eta zirtoak alderdi guztietarik pizten, hala nola egur hezetik, supazterrean, klaskak eta pindarrak» (53). (Haurrean) «Baginakiela lasterka, urtxoak badakien bezala he-

galdaka! Baginakiela gaizkiaren² burrunba pean urtxoa euri uharren azpian bezala, ixil-ixila geldi-geldia egoiten!» (58). Deklinazioa murriz, aditza ere maiz eskas: «Ttipi-hitzak, gizonaren begitartea iluntzen. Haundi-hitzak begitartea ez argitzen. Holakoetan zabaltzea, hertsitzea; emendatzea, gutitzea» (8). Baliabide hau –Orixeren *Aitorkizunetan* estemoraino aprobetxatua, gogoratuko denez– arriskutsua da, ele bizia indartu ordez, endurtu egin lezake: «Aitak bazuen anaia Ixtebe Argentinan ibilia. Han larrukintzan hasi, han lana ikasi, bainan han huts egin. Gibelerat itzuli. Madrilen, larrukintzaile gisa finkatu. Hemen kausitu» (30). Maiz ikusten dugu, kontaketa bezala deskribaketan jolasa jolasten, hitza hitzaren gainean hola edo hala kokatuz gozatzen beti: «Behin batez, bazen mutxurdin bat mehean mehe, ximurrean ximur. Gorrian gorri zituen begiak, marketsean markets mintzoa, eta zaluan zalu mihia. Denek zioten sorgina zela» (70). Ikus orobat Tolosako hiriaren eta Institutuko profesoreen portretak (106 eta hurr.). Behin baino gehiagotan Axularren tankera hartuko diozu: «Ez eri eritasunetik, eritzen dira eritasun beldurretik» (59). Eta egia da Axular goraiatzatzen duela eredutzat («tenor litake itzul gaiten Axularrenganat»)³. Egia da espresioaren sentsibilitate eta gustu barrokoa duela ere. Baina, huts egiten ez badut, Seminarioko eredu latinoak utziz bederen, Salaberryren zinezko ereduak, XVII. mendeko «moralista» frantsesak dira oroz gain (beharbada filosofian ere ezagutu dituenenak XVII. mendeko filosofo handiak izan diren bezala), psikologiaren zaletasun filosofiko-moral inoiz ez gutxitu bat ere haiekin partekatzen duela⁴. Gustuz, kontzeptista da. Haiek bezala, zehaztasuna eta barreadura bilatzen du batera, maximak egiten duen gisan. Erretolikoa da (zentzu onean). Baina ez Bossuet. Idazteak, hitzen algebra ariketak egitea dirudi harentzat, ez kaskada batean hustutzea. Diskurtso fragmentatua, diskontinua, behin eta berriro jarriorearen erdian moztu egiten duena: sententzia, inziso, figura batekin, diskurtsoa eten eta lehentasuna hartzen duena, diskurtsoa bera bere baitatik –fragmentotik– oinarrituz, kondentsazioan. Formak egiten du edukia. Diskurtso dominatzailea da nolabait. Ez du libertaterik uzten (agian berak ere ez du libertaterik). Kontrasteen jokia, sententzia, lakonismoa, ebaketa jarraikiak, irakurlea menperatzeko tresnak dira. Salaberryk ez du esplikatzeko, definitu egiten du. Ez du ikustera ematen, ikusarazi

egiten du. Epaitu egiten du, deskribatzen edo kontatzen duena. Seduzitzen ez badu, bortxatu egiten du irakurlea. Beti zauzka lotuta. Ez daki balioetsi gabe ikusten. Esaten. Haren ikustea, dekretatzea.

Are, ez da ahaztu behar, Salaberry, euskara, bera baino lehen, trebatu gabeko alorretan ahalegindu dela. Jakin-en Filosofiaren Kondairako Bergsonen kapituluari aitzin solasean berak ohartarazi legez, erdarazko mintzairak, ibiliaren ibilian, «bilakatuak dira arin-arin, xanfarin»⁵. Aldiz, «orain arte eskuara izan da guziz laborariek eta arraintzaleek elgarri bere gogoeten salhatzeko ibilki duten mintzaira»⁶. Kultur gaietan orain egokitu egin behar da, erdarak egokitu diren bezala. «Hitzek, lanean, ariz, ikasten dute, gizonak bezala, laneko ara» (kasu beti estiloari!)⁷. Salaberryk idazteko zeuzkan zailtasunak dira, hortaz, guk Salaberry ulertzeko dauzkagunak, hein batean⁸. Hori bera Zaitegirekin gertatzen da. *Ene Sinestea* eta *Beñat* ez direla berdinak, esan beharrik gabe.

Bestalde, aurreohartzeko, idazkera bezala, Salaberryren pentsamendua bera, guri heldu zaiguna, hots, haren obra euskararen gizarteko baldintzek oso baldintzatua da. Eta, haren obra baldintzatuaren gainean, oraingo gure ikerketa hau berau, lankideon artean erabaki den zereginen banaketagatik da baldintzatua. Daukagun Salaberryren pentsamendua, ez da, publiko jakin bati eman ahal eta nahi izan ziona besterik. Filosofiako irakaslea zen, baina bere idazkintza nagusia kazeta bateko zutoinetan eman du, 35 urtez astero bere iritzia argitaratuz, material hori guztia albora utziko baita ene artikulu honetan. (Kazetariaren azterketa, aparte, Pako Sudupek dagi). Kazetan zegoen egitekoen banaketagatik, Salaberry politika nazional (frantses) eta internazionalaz arduratu da. Beste organo batzuetan azaldu ditu Euskal Herriari buruz bere gogoetak. Beste forma bat dute, ondorioz, eguneroko gorabeheretatik urrunduagoa, filosofikoagoa. Baditu, beraz, bigarren, saio handiagoak, euskaraz hala frantsesez, kazetaritza independenteak, euskal gaiez bereziki. Eta baditu, hirugarren, bi liburu, *Ene Sinestea* eta *Beñat adiskidea agur*, horietan denetariko meditazioak aurkitzen baitira. Gure ikergaiko harrobi nagusia liburu eta saiook izan dira. Baina hor ere Salaberryk publikoari akomeatu behar izan du. Irakurleria filosofiko espezifikoko bat ez dago euskaraz (Euskal Herrian). Salaberryk, iz-

kribu propioki filosofikoa, bat bakarra du garbi: Bergsoni buruz (hura hegoaldean argitaratua); bi edo hiru gehienez, eskuzabal juzgatuta. Edonon, aitzitik, erreferentzia eta aipamen filosofikoak, burrustan sakabanatuak. Zatitxootatik pentsamendu (filosofiko) koherente bat birregitea ezina da, ordea, beste iturri batzuetatik (oraletatik edo) gehiago jakin gabe.

Azkenik, Salaberryrena, historia intelektual izugarri frantsesa da hegoaldeko batentzat. Eta izugarria da, hala ere, Frantziako historia intelektualetik, 20 eta 30 edo 50/60. urteetatik, ukiturik ere zenbat ez daukan, nahiko moda izan den mugimendu askotatik. Frantses Elizako eta Ipar Euskal Herriko pentsamendu bat da. Defentsarako armatua. «Munduaren» aurrez aurre. Marxismoarekin, ados egon gabe, zerbait has lezake. Seminarioan jada formazio sozial apur bat hartua zuen, berak dioenez (ES, 98). Garraiko beste joera literario-filosofiko gehienekin, edo ezin ikusi ditu (existentzialismoa, adibidez), edo ezikusi egiten ditu, edo ezin da burutu, tratamendurik ez du nolana ere. Bernanos, Green edo Van der Meersch bezalako nobelista katolikoak, absente; Mauriac, ez leku onean; Maritain filosofo neotomista bera, gutxi; Mounier, gutxiago eta gaizki; Sartre, Camus, etab., baina Marcel bera (existentzialista katolikoak), deus ez, edo atakatzeko bakarrik; surrealismoa, Oxobi hobea dela esateko⁹. Egunen batean, kultura frantsesa eta Iparraldea ezagutzen dituen batenbateg, behar du hori dena hobeto aztertu, zer den dagoena eta zer ez dagoena.

Orain, baina, Salaberryren pentsamendua bere koordenadetan kokatzeko, Frantziako historia modernoan konflikto nagusi batzuk gogoratuko ditugu apalki, hemen hegoaldeko irakurlea gogoan dugula beti ere.

Iraultzaren ildotik

Hartzen dut izenburu hau, berarekin Joseba Intxaustik liburu oso eder bat daukalako¹⁰, Eliza frantsesaren historia Iraultza ondoan argitzen duena, sarrera egokia Salaberry irakurtzeko. Historia hori gabe ez da ulertzen Salaberry. Orohar Iparraldeko Eliza

ren XX. mendeko historia ulertzeko (historia ideologikoa, gure kasuan), XIX. mendeko kalapitak «Iraultzaren ildotik» uztezinak dira.

Eliza, zer esanik ez, Iraultzaren «biktimetako» bat izan da. Kontrairaultzak, emigrazioak bereziki, printzipio iraultzaile oinarrikoa, herriaren subiranotasuna, arras ukatuko du. Printzipio horretan Jainkoaren ukoa ikusten du: Jainkoaren beharrezko presentziarena gizartean. Bonald-ek esan (1802): «La religion est la constitution fondamentale de toute société». Salaberryri hitz berdinsuak irakurtzen dizkiogunean, Frantzian (Elizan) arrazoi horiek historia konkretu bat dutela izan beharko dugu kontuan. Historia horretan sartu behar da Iparraldearen historia partikularra ere Iraultzarekin: Erregimen Zaharreko beren gobernamentuen galera, bortxaketa, identifikazioa apez pertsegietuekin, etab., bere identitate sozialaren bategitea azkenean, politikoki dekapitaturik, fedearekin, P. Lotti-k mendearen hondarreen gezur handirik gabe esan ahal izateraino *Ramuntcho*-n (1897), «l'âme du Pays Basque (...) c'est sa foie religieuse». Baina zer da Jainkoagan fedea? Horrek ere bere gorabeherak izaten ditu.

Bonald-eko bizkondearen *La législation primitive* agertu den urte berean (1802), *Le génie du christianisme* agertu da. Diferentzia inportante bat dakar: ez da kristautasunaren izenean Iraultzaren ukora mugatzen; aitzitik, ideia iraultzaile demokratikoak, kristautasunetik jalgiak deklaritzen dira. Askatasuna, gizon-emakume guztien berdintasuna eta anaitasuna, printzipio esentzialki kristauak dira: «Tous les grands principes de Rome et de la Grèce, l'égalité, la liberté, se trouvent dans notre religion», ebatziko du Chateaubriand-eko bizkondeak¹¹. Horrela, argi berritan ager zitekeen Iraultza; baina, batez ere, kristautasuna bera ageri zen argi berritan. Irekita gelditzen zen kristautasuna, ordena monarkikoaren sostengu ukiezina izatetik, errepublikanismoarekin uztartzeko posibilitatea.

Linea honetan mugitu da Lamennais, Iraultzaren onarpen osoraino joango den profeta. Salaberryrenak izan litezkeen hitzak, irakurtzen dizkiogu honi ere: «(...) jamais on ne constituera de société seulement avec des hommes. Il faut que l'homme soit

d'abord en société avec Dieu pour pouvoir entrer en relation avec ses semblables» (1817).

De fakto, monarkia birrezarri delarik, laster gelditu da ebidentzian, ez dela «jainkozko zuzenbidea» birrezarri, politika lar-dats bat baizik. Belaunaldi monarkiko idealista baten desilusioak darrai. Handik aurrera, katolizismoa (sozialki Frantzia oraindik katolikoa da erabat) bi joeratan erdibituta ibiliko da, gizarte politikoaren uko eta baiespenaren artean. Bi korronteok, Napoleon III.aren pean, bi alderditan organizatu dira. Alde batean «liberalismo katolikoa» deitua, gizartearekin nolabait bakea egin duena: Lacordaire, Dupanloup, Montalembert, de Broglie dukea, bere iritziaren organo *Le Correspondent* kazeta duena. Bestean katolizismo intransigentea, Louis Veuillot-en *L'Univers* kazeta polemikoarekin. Pio IX.aren «Syllabus»-ak (1864), gero Vatikanoko I. Kontzilioak (1870), katolizismo (politiko) liberalari ate denak itxi dizkiote. Orbangabea, Infalibilitatea, dira oraingo dogmak; Lourdesko mirariak, Jesusen Bihotz Sakratua, Arseko erre-torea, debozio berriak. Gizarte berriaren manifestazio politiko, li-terario, filosofiko guztiak fedearen berdin etsaitzat kondenatuak gelditu dira. Konpromisorik ez fedegabekeria berriarekin! Ga-rrantzizkoa izango da, hortaz, ulertzea, ideia liberalek intransi-gentziaren kanpoaren barruan ibili beharko dutela, nahitaez, ka-tolizismoan.

Aldi berean, fedea Frantzian, nekazarien emigrazioarekin hi-rietara, gutxituz doalako, Elizak langile erakundeak antolatu ditu hirietan. Liberalismo ekonomikoaren kritika oso jeneralizatzen da Elizan, eta burgesiaren kritikatzeta zentzu guztietan, naturala bilakatzen da (ikusiko dugu jarraipena Salaberry baitan), batez ere Leon XIII.az gero (1891)¹²: klase borroka kondenatzen da, baina langileen elkarte eta korporazio eskubideak errebindika-tzen dira eta sutuki gaitzesten da kapitalismoa. aurrez aurre, Gambetta eta Jules Ferry bezalako «antiklerikalista» amorratuak («Le cléricalisme, voilà l'ennemi!», Gambetta-k, 1877), gero «erra-dikalak», Eliza eta Estatuaren banaketarekin (Combes, 1905). Iraultzaz gero, mende osoa, Eliza Estatuarekin –gizarte berriare-kin– gerran ibili da.

Beranduenik 1890etik aurrera garbi zegoen, Errepublikak ez zuela alternatibarik. Elizaren «ralliement»a hasi da, Estuatiari alde-

ratzea. Baina, mendearen hondarretan, Frantzia da bi fronte handitan erdibiturik dabilena (oroit Dreyfus afera): nazionalismoa eta sozialismoa izenda genitzake alderdiok. Beti «erlijio arazoaren» soluzioaren aiduru, Eliza itxuraz antiliberal, antikapitalista hori, zeinekin eta, eskuin nazionalistako burgesia burgesenarekin lotu da!

Badago arrazoi bat, Ipar eta Hegoaldeko abertzaletasun edo kontzientzia nazionalaren historia diferentea esplikatzeko ailegatu ohi dena, Salaberryk ere ematen duena: «Hego-Euskaldunek egin dituzte hiru azken gerlak Espainiaren kontra. Ipar-Euskaldunek egin ditugu azken hiru gerlak, bertzeak bezala, Frantziaren alde» (ES, 174). Halaxe izan dela suposatuz ere, eta ezer kendu gabe beren balio larritik, ez baitago ezer kentzerik, kanpoko etsaiekin gerrei¹³, batez ere gero Estatuak –eskolan, urteurren, monumentu eta zeremonia politikoetan, irrati/telebistetan– atergabe horiek birgogoratzen eta magnifikatzen baditu biziera publikoan, Frantzian oraindik itxuragabeki egiten den bezala, begitantzen zait, hala ere, orohar nazionalismo frantsesaren eta partikularki horren presentziaren Iparraldean ideia sinplifikatu batekin argudiatzen dela modu horretan, hura kanpoko agresioaren erantzun soil (agian desenkusagarri!) bezala interpretatuz, ez prozesu «intrafrantsesen» produktu bezala. Lehenagoko historiari utzita, Iraultza auzo-herrien inbasoreak eta Napoleonek badute nazionalismoarekin zerikusiren bat¹⁴. Restaurazioarekin Bonaparte «ogroaren» legenda beltza alditxo batez nagusitu bada, laster, literaturak, arteak, gobernamentuek berek, mediokritateen errege, errepublika eta «Napoléon-le-Petit» guztien gainetik, haren urrezko legenda bat zabalarazi dute, Nazio Handiaren buruzagi handiarena. Michelet-en nazionalismo loriatsua –hots, 1840ko burgesia txiki liberalarena, R. Barthes-ek azpimarratu zuenez– Iraultza handiaren oroigarriez eta Napoleonen epopeia inperialaz hornitua da, oraindik bake eta askatasunzalea bada ere. Burgesia handiaren inperialismo koloniala, geroxeago, Inperio Napoleondarraren oroipenez jantzi da orobat. Eta Paris monumentalak XIX. mendean hartu duen karakterra hiri bezala, gaur arte, nazionalismoaren monumentu bat da bera osoa. Esaterako, 70eko gerra franko-prusiarrak Iparraldeari gutxi ukitu dio –bide batez: nazionalismo frantsesa, haren ondorioa izan bada, ez da gutxiago izan haren kausa-; baina *Eskualduna* kazeta or-

durako nazionalista frantses porrokatua da. Eta hor, XIX. mendearen azkenetan, apezak dira, hain zuzen, nazionalista frantses porrokatuak Iparraldean, Ramuntcho laiko xumeari Pierre Lotti-k esanarazten dion bitartean: «français ou espagnol, moi ça m'est égal (...). Je suis basque (...); le reste, je m'en fiche». Ipar Euskadi nazionalismo frantsesean apezek ebanjelizatu dute lehenengo; eskolak, gero (honek, askotan, apez haien aurka).

Lehen Mundu Gerraren ostean, Wall Street-eko 1929ko kracharen ostean bereziki, mendebaleko zibilizazio osoa suntsitzen ari delako inpresioa nagusitu da Frantzia. Orduan meditazio humanistak esan du: giza arrazoimena ez da gauza berak sortu ekoizpenak menpean edukitzeko eta gobernatzeko – dirua, makinak (P. Valéry, *Regards sur le monde actuel*, 1931). Edo: andre-gizonaren aurrerapen teknikoaren eta moralaren artean desoreka heriogarria dago (H. Bergson, *Les deux sources de la morale et de la religion*, 1932). Tresnaren aroan, gizakia –izpiritua– indar mekanikoen txotxongilo. Eskuin nahiz ezkerreko agitazioaren topoi arruntak bilakatu dira: zibilizazioaren krisia, moral burgesaren heriotza. Frantzia mugimendu literario eta intelektual bizkor bat egon da garai honetan, katolizismo berritu batetik munduaren berriztea itxaroten zuena (Claudel, etab.). Mugimendu katoliko interesgarriak, filosofian, literaturan, politikan, artean egon dira, pizkunde bat bailitzan, zinez modernoa, ezkertiarra askotan. Hala ere, Espainiako gerra zibilarekin katoliko frantsesak hautua egin beharrean kausitu direnean, ohoragarri gutxi batzuek baka-rik hautatu dute garbi Francoren aurka. Ipar Euskal Herrian, aldiz, onenean ere abertzaleen aurka ez jartzera, ikusten dugu, iristen direla Salaberry, Lafitte bera, etab., inoiz ez Altxamenduaren aurka, gutxiago Errepublikaren alde, gertakarien martxak aski berandu begiak ireki eta alderdi hartzera behartu dituen arte.

XIX. mendea, bere historia politiko eta intelektual (materialismo, zientismo) nahasiarekin, zama ikaragarri bat izan da Salaberryren gainean. Honen pentsamenduaren historia, herentzia astun haren lorretik askatzeko borroka atsedengabearena bezala laburbil daiteke.

Lehen eta orain, XIX eta XX. mendeak

Salaberry 1903an jaioa zen. «Hogoigarren mendeko xori» deritzo bere buruari (ES, 73). Hori ez da, hala ere, kalendarioaren egiaztatze soila, ezpada substantzialki «bestelakotzat» zeukala hogoigarren mendea bere aurrekoaren aldean. «De Gaulle sortu zen 1890ean. Hamar urtez huts egina zuen hogoigarren mendea. Nehork ez dezake bere sort-urtearen gainetik jauzi egin. Hemeretzigarren mendeko gizonari arrotz zaio, oro har, hogoigarren mendea» (ES, 182). Mende hogoigarrentasun berezi hori zehazki zertantxe datzan, ez dut uste, erantzungo ligukeenik, ez dio asko axola ere. Diferentzia hain errotikoa markatzearen zentzu benetakoa, XIX. mendea negatiboki markatzea da. Praktikan, XX. mendeko hainbat gauza negatibo, XIX. mendeko edo haren ondareztat joko da; alderantziz, Bergson batek, esaterako, nahiko XX. mendetarra dirudi Salaberryren juzguetan («gure mendeko San Agustin»). Kontzilioaz eta 68ko maiatzaz gero batez ere, Salaberryren baliabideetan, atentzioa ematen du, zein maiz aurkitzen den, lehen hola, baina orain, edo, XIX. mendean hori, baina XX.ean beste hau, oposizio eskema. Nazionalismoa XIX. mendea da, erregionalismoa eta europeismoa XX.a; materialismoa XIX.a, izpiritualismoa XX.a; zientismo ateista XIX. mendea, zientziaren eta fedearen elkartasuna XX.a. Esango litzateke, bera bere baitan edo bere inguruan borrokatzen ari den negatiboa, berak uko egiten diona, gainditu nahi lukeena, hori dela XIX. mendea. Nahitaez, holako XIX. mende batek presente egon beharra dauka XX. mendean, hemen ari baita Salaberry bere borroka borrokatzen!

Hala ere, lehen eta orainen zentzuak alderantzizkoa dirudi. «Lehen» –demagun, hamalauko gerra aitzinean– mundua eta gauzak hobeto zebiltzala, ematen du. Janean nahiz lanean, lehen jendea osoagoa zen oraingoa baino: «Jatekoa ba, osagarria ba, gosea ba, axolarik gabe, jan eta edan, lore baita bizia. Oraiko gizaldia nigartsu bezain irritsu orduko. Soberakinak, gerlak, lanak, sineste gabeak ez zuten oraino biplaturik ezarri iguzkiaren argia» (ES, 25). Langileago eta nekagaitzago zen: «biziki gutiago akitzen ziren orduko gizonak», eta alaiagoa: «lana eta besta ez ziren oraino osoki behexiak. Biak gizonaren urrats goxoan ibilki» (ES, 51). Jatorrago eta zintzoago: «Oraiko gizonak ez du axolarik ez etxeaz, ez herriaz, ez elizaz, ez fedez. Bere burua bere zilko. Bere burua bere Jainko. Bizi da berekoitasunaren

iguzki hila argitzaile. Bere atsegina bere xede bakar, ez da harritzeko huts egiten badu lehen-lehenik bere zoriona» (ES, 27). Patxada gehiagoan biltzen zen mahain inguruan familia, eta familia ere familia zen oraindik: «Jendeak bazuten eta hartzen zuten denbora artzeko eleketan etxekeekin mahian, auzoekin bidean, herritarrekin plazan. Ez zabiltzan hil-itoka, su hilzaleak, edo ipurditik su zutela iduri (...). Familia ez zen aita ama eta hauurretan gelditzen. Familia, aita ama haur ahaide auzoek zuten egiten. Familia oraino leinu. Eta leinuak nahi besta elgarretartzeko. Orain igandetan jo beribilean etxerat; orain bidean bakotxak bere hura gogoan; orain etxean telebixta, bere aho haundiarekin, kalakan ari. Desegin besta; desbesta nagusi. Ixildu irria. Ixildu kantua. Gelditu oihua» (ES, 51). Balio klasiko denak gainbehera joanak dira, itxuraz, moralak bezala intelektualak: «Orainko egunetan, uzten dugu aise egia, bere-ber eta umexurtx, entzuteko gure kidekoen edo gure jaiduren kalapita. Eri dugu gure artean egia. Egiak egin du gure zibilizazioa edo jendekuntzaren haundia. Goait. Egiaren gutiosteak eihar-araz dezake gure jendekuntza» (ES, 90). Balioak galdurik, etorkizun beltza gurea: «Aberats zontbeitño ziren lehenago aiserian, eta laxoan, bizi. Orain aintz doibat aberats baitira, aberatsen arroilarat aintz lerratzen. Lohikeria goihendura sakelan baitago, biharko lohikeria izanen da droga. Bihar hori, egun hasia» (ES, 115). Bertsolariak berak ere hasiak dira lizunkeriak kantatzen.

Tradizionalista puruak agian denboraren joaira beti gainbehera ikusten du, gaur atzo baino okerrago, atzo okerrago herenegun eta herenegun atxitik baino, hasierako urre arotik urrunduz eta maskalduz. Salaberryk, aldiz, bere burua ikusten du aurrreratzen, hobetzen –euskal kontzientzia irabazten, adibidez–, Eliza ikusten du herritzen (Kontzilioa), Europa ikusten du berria sortzen, nazionalismoa gaituz erregionalismoa pizten, materialismoa gaituz filosofia eta zientzia berriak hedatzen, etab. Progresoaren fededun edo «aintzinakari» bat izateko, hala ere, tokatu zitzaion gizarteko eta hezkuntzako ez izan beharko zuten. Estuak zirela atzoko apezak, dantzaren kontra, dena debeku? «Orduan deus ez haizu. Orduan deus ez haizuaren denbora bizi; orain denak haizuaren denbora hasia. Orduan deus ez haizua poxulu; orain denak haizua irrisku. Denbora guziek beren ongi gaizkiak ukanki. Eta erloiaren balantza, tik-tak, tik-tak, bat

bertzearen ondotik agurtuz, batetik bertzerat urruntzen» (ES, 80). Berritzea lege bada, lege da zahartzea; beti da negu eta udaberri. «Haizeak egiten du haize eliza barnean. Haize Izpiritu sainduak eremaiten ditu mundua bezain zaharra den arboletik, hosto eihartuak, sor-arazten bur-bur-bur, hosto berriak. Beti negu, beti primadera» (ES, 13-14). Berritasunek ez dute gehiegi entusiasmatzen. Fedea, ez aldatuz aldatzen da: «Beti desberdina, behar du egon beti berdina giristinoen sinestean» (ES, 15). Kontzilioaz beraz ez da ageri optimistegia. Teologoek Elizaren kontzeptua aldatu da, baina Salaberryri ez zaio begitantzen derrigor hobetu egin denik, aldebakarkeria batetik bestera etorri garela baizik. «Lehenago sobera ginaukan eliza Aita sainduaren, apezpikuen eta apezzen talde bezela. Behatzen ginon elizari goitirat. Orain eliza sobera daukagu jende giristinoaren talde gisa. Behatzen diogu elizari zabalerat. Goitia eta zabala ez ditazke behex, biek bat egiten baitute» (ES, 96). Jainkoaren eta gizon-emakumearen lekua bera fedean, ez du uste, zuzendu egin direnik. «Batikaneko konzilio aintzinean (...), ongi ikusten Jaungoikoa, gaizki gizona. Batikaneko konzilio ondoan, ongi ikusten gizona, gaizki Jaungoikoa» (ES, 186). Salaberry-ren pentsamendua bere osoan eza gututa, balioespen hau negatiboa bakarrik izan baitaiteke. Funtsezkoan, aurreratu baino, atzeratu egin dugu: «Biziki gutiago ari baigira otoitzean, ba apezak, ba fededunak, atsegabe itsusiak erori dira ba apezzen, ba giristinoen gainerat» (ES, 96-97).

Salaberryk historiaren ez tesi tradizionalista, ez progresista garbi bat dauka. Baina pesimismo handi bat beti, funtsean. Bartzuetan, orainak lehena gainditu duela, dirudi. Hala, XIX. mendea, materialismoarena, naturaren ikerketaren aroa litzateke; bul-tzada prometeiko batean, XX.a, izpiritalismoarena, gogo edo psykhearen ikerketena. «Hemeretzigarren mendea, jakitatearen mendea da. Bainan orduko jakitateak, nola eginak diren gogorik gabeko gauzak, gain gaintetik, zilhatu nahi zituen. Orduko jakitateak axola guti zaukan gizonaz». Bergsonen eta, jakitate molde hori gainditu dute. Alde batetik, ikus daiteke hor progresio positibo bat, eta hala ikusten du zalantza gabe Salaberryk. Baina haren ikustea, balioestea— biak epai moral berdinean gogoraren pean erortzen dira, progresioan nolabait gaizkian progresatzea hautematen baita. «La Fête dans l'âme basque» saioan (1956), hori euskal arimaren gorazarrezko filosofia saio bat da, mendebaleko

zibilizazioaren krisia aztertzen da. «D'où vient notre crise, qui est une crise de l'âme?» Gure arimak, hots, zibilizazioak, bere hiru zutoin historikoak galdu ditu, hori Atenas, Erroma eta Jerusalem izan baitira –zientzia, legea, erlijioa. Hiru osagarriok osatzen zuen oreka –mendebaleko bizitza eta zibilizazioa– zatibanatu egin da. Desintegratu. Zientziak ez du ja erlijioaren kontrapisua osagarri; legea dominazio tresna hutsa bilakatu da herriak organizatzekeo zuhurtziaren ordeiz. Eta 1956ko testu batean jada Iparraldean –Frantzia– harritu behar gintuzkeena (Estatuaren eta Elizaren banaketarik ez hori Hegoaldean dago!): «La séparation de l'Eglise et de l'Etat ne fut que symptôme criant d'une séparation plus profonde: celle du sacré et de la vie. Aussi désastreuse à tous les deux et en même temps. La désintégration de l'homme précéda celle de l'atome». Zibilizazioaren krisiaren erroa eta arrazoia, gizakiaren destintegrazioan datza hortaz. Hau berau, prozesu kultural konplexu baten emaitza bezala ikus genezake. Batetik, zientzien garapideak XX. mendean gizakiaren dominaziorako psikoteknia gaitzak emaitzatu ditu Estatuaren baliabidetakoa, Anaia Handia, hori nazismoaren eta komunismoaren metodoetan nabaritu da, berak bost urte lehenagoko «L'Homme basque» saioan seinatu bezala. «La désintégration de la personnalité était réalisée», ebazten du Mindszenty Kardinalaren auzi sonatuari erreferituz. Bestetik, Salaberryk hainbat aldi eta eratan salatu duen ohiaren eta tradizioaren ahaztura dago, gizon-emakume modernoa denborarik gabe, iraganari loturarik ez, lagun hurkoaren ere ez zorrik, bere indibidualismo eta egoismoan ezartzen duena. «Ni nago oraiko gizon gehientsuek ez dutenez bihotzaren zolan, ezin aitortuzko arrangura. Nahi lukete agertu nehoi zorrik gabe, bere buruaren iturri. Arbuiatzen dute denbora, eta denborarekin herria. Baduteke bur-bur-bur ausikika ari, Freud-ek izendatua duen Oedipen koropiloa, aita hil duen semearen min gaixtoa».

«Mendeko bi zauriak» saioan (1974), horrek hain zuzen mendebaleko zibilizazioaren krisia sistematiko aztertzeko xedea ditu, aurrena zibilizazio prozesuaren beraren, hots, produkzio moldeen segidaren ekarpenzat ematen da gizakiaren eta gizartearen destintegrazioa delako hau. Gizakia abere elkarretarakoia da, soziala («ihizi lagunkari gizona. Nihun ez da gizona bizi izan behex: bera bere buruaren lagun bakar»). Lehengizona, fruitu biltzetik

edo abelazkuntzatik bizi zena, beti harat honat, bortxatua zen bizimoduagatik beragatik lagunekin elkarretaratzera. Hor hasi eta bukatzen da nonbait abere rousseautiar honen biziera naturala. «Aspaldiko bizi molde zendu horiek ziren behar bada gizonaren jiteari hobeki zoazkionak», harritzen gaitu pixka bat. Laborantza abiatu orduko sozialtasuna gutxitzen dela ematen du, gizon-ema-kumea bere jabetasunetan bilduko da, egoitzari lotuko, bera bakarrik. Tresnaren gure aroan, azkenik, menditik, itsasotik, inguruko bazterretik ere moztu eta, hiri handietan («lantegiaren haurrak»), bera bakarrik, zeruharraskarrietan gordetzen da bizitzatxo batean, «lotzeko orde gizonari, hartarik ere behexi. Moztu bazterretik, moztu gizonetik». Gehiago harritzen gaitu hemen, Salaberryk bere azalpenetan maiz tartekatu ohi dituen horietako digresio batek. Produkzio moldeen eta giza desintegrazioaren errepaso melankolikoa ari da egiten, bat-batean, logika handirik gabe itxuraz, gorazarre kanta bat eskaintzen dio, ez hasierako naturala eta ez XX. mendeko desintegratua, baina printzipioz dekadentzia historia bateko maila bat besterik ez dugun gizarte laborariari. Gizon honek ukitu du, «bas-herri bildu-bildutik ihes», baina handitasun izpiritual eta anbizio heroiko batek bultzatua, Euskal Herriaren, Europaren, are gizadiaren orain arteko erpin gorena, behiala Gurutzadez, geroago Ameriketa, Afrika, Asiako konkistez. Inperio horien galerarekin, «Europa eri da, itzali haunditasunaren sukarrak errea». Harritzen gaitu. Gutxienez jakinaren gainean jarraitzen dugu irakurketan, Salaberryk zer kontsideratzen duen handia gizonaren historian, krisiak harrapatu baino lehen. Dena dela, historiako aldi hori joana da: tresnak sarrarazi du mundua, ez bakarrik mende berri batean, baina adin berri batean. Krisiaren bigarren kausa ez du ahazten, zientziarena. Oraingoan ez da aipatzen gizakia menperatzeko psikozientzia, gizakia ikaratzeko teknozentzia atomikoa baizik. Haatik guztiz harritzen gaituena –krisiaren diagnostikoa bi zatitan banatua dago, lehenari «herria eri» deritzo, produkzio moldeen hurrenkerarenari–, zientziaren arrazoia, ez gizartearen eritasunean, ezpada «eri Eliza» atalean aurkitzea da, guztiz ezustekoa ez izan arren, erakutsia baitu bestetan ere zientzia, teknika, Modernitatearen orohar kontsideratzeko, bere kategoria oinarritzakoak teologikoak direla. Modernitatearen kritikako, Heidegger-engandik Frankfurteko Eskolara ohiko hainbat elementu jasotzen da hor. Ernazimentuan

ikusten da pizten Modernitatea (antropozentrikoa) eta ber-denboran Modernitatearean krisia, Maritain-ek *Humanismo integral*-ean bezala, barnenean arras bestelako begiez hala ere. Zientziak boterea dakar, botereak harrokeria. «Aurkitu egiak, sortu tresnak, hazteko orde gizonaren nortasuna, oiestu dute haren urgulua. Uste ukan du bera, berarentzat zela Jainko, «homo homini deus», Feuerbach gogolari alemanak zion bezala». Prometeo berria, argia eta indarra eskuan atxikirik, «aski da. Ez du nehoren beharrik (...). Jakintasuna eta hartarik dilingan dagon ahaltasuna, bilakatu dira, hamaborzgarren mendetik hogoigarren menderat munduko erlisione berri». Renan-en izena berehala agertuko da (XIX. mendea karakterizatuz, noski). XX. mendean, ordea, zientziak ematen duena, ez da harrokeria, bai izuikara. «Jakitatea egin da hiltzale». «Promete berriak eskuan dauka bomba atomikaren ximixta ezpata». Gizon guztien artean eriez benedikatua den Pasteur, gizon guztien artean madarikatua bilaka daiteke, mikrobiozko gerra batengatik. Gehi txikizio ekologikoa, planetaren hustiaketa, etab.. «Iratzartu dira gizonak borz mende iraun duen ametsez bete zorion xoragarritik». Zientziaren balioa ez-ezik, bizitzaren zentzua bera dago auzikatua. «Hedoi ilun bat jautsi da zerutik lurrerat. Munduaren zalaparta batek omen gizona ekarri; munduaren zalaparta batek gizona bide eramanen. Arrazoinik gabe sortua, arrazoinik gabe hilen. Atsegabezko credo horren misionest aipatuena ditake Jean-Paul Sartre». Sartre ez bezala, Salaberry eta bere irakurle euskaldunak fededunak dira. Baina: «Nahi ala ez guziek hartzen dute mendeko aire bera, aire hedoitsua». Horixe omen baita gaurko mundua.

XIX. mendeko eritasunez da eri XX. mendea. Han hasia da «tresna aroa»; tresnarekin eta zientziarekin, bere burua desegin ahal izaterainoko gizakiaren botere neurrigabekoa. Tresnak andre-gizona zangopilatu du, bere existentziaren arrisku zoroan ere jarri du. Baina tresnak gizakia jaso du halaber. Eta Europa munduan nagusi altxatu du, Salaberryk maite duen boterearen ikuskizun handia baita hori: «Hemeretzigarren mendea. Europa hertsia mundu zabalaren jabea duk, Hego-Amerikatik Asia leihorreraino. Harek errana egia, harek egina ongia, harek hautatua ederra». Boterearen hedapen horrek Salaberry liluratu egiten du nonbait. Faszinazio moduko bat sumatzen da orobat tonuan, azkenean moralki harengandik urrunduko bada ere, Napoleon

deskribatzen duela («gezur, ukaldi, ohointza, hiltze harentzat haizu»): «Gogoan dik Napoleon zaldizko miresgarria, putarka labrokan ibilia Italiatik Egiptorat, eta Alemanian gaindi Rusiaren bihotzeraino, izaiteko, jainkoso bat iduri, aire gaixtoaz joa». «Handitasun» eta boterearen liluratik, ematen du, ez du guztiz lortzen askatzea. Ondorioz, XIX. mendeak badizu bere ederra; eta XIX. mende gaiztoa –teknikarena, zientismoarena– egiaz gaiztotu, XX. mendea izango da, egin duena. «Hemeretzigarren mendean, ur-guluak galdu duke europatiar gizona. Egin ditu aurkitze miresgarriak. Bere aztaparpean atxiki Asia eta Afrika. Bainan, hogoi-garren mendean, zikindu ditu eskuak, zikindu jakintza, jakintzari esker erre baititu gerlan hiriak, zakur errabiatuak bezala gerlan kalitu jendetzeak». Lehena, oraina, XIX ala XX. mendea, Salaberryren jarrera zalantzakoa da, kontraesantsua ez esateko, historia sozial eta politikoari beha.

Batere ez zalantza, ez ekibokorik, filosofian dauka, erlijioaren kapituluan hobeki esan. XIX. mendea zientismoaren mendea da («orduko erlijione gabekoen erlijioea». Baina batez ere XIX. mendeak sortu ditu «gure mendeko fede okerraren bi profetak, eta erran nezake bi bertsulari gaitzak: Nietzsche eta Marx (...). Bientzat Jaungoikoa hila duk». Eta bien arten hil dutela esango litzateke Salaberry irakurrita. Biak direla XX. mendeko basakeria basaenen kausak. XX. mendea sinesgabea da. «Hori da Mendean munduko oraiko irriskua. Sineste eskasaz eri da Mendean mundua. Federik gabe, «agertu da gizona alabainan [hogeigarren mendean], ez gizon, bainan otso gizonaren alderat. Josteta bezala erre ditu gizon, emazte, eta haur, hirietan eta hiriekin. Bildu ditu korraletarat gizon, emazte eta haur, erretzeko bere nahirat, bere gosturat, zer egunez berak ikus». Basakeria goren hau ez zen posible izango zientzia eta teknika modernoak gabe. Haren zuzeneko eta zinezko kausa, ordea, Jainkoa hil duen filosofian dago, Jainkoaren heriotzaren ondorio nazismo eta komunismoarekin. Ismo gaizto bi hauen kausa bezala zientzia edo zientismoa ere aurkitzen da noiz edo behin aipaturik. Baina lehen Mundu Gerrak jada kaskatua utzi du zientismoa (ES, 104). Marx-ek eta Nietzsche-k bizi-bizirik diraute, aldiz, eta: «Nietzsche-tik jalgi duk fazista beltzen etorkizuna (...). Marx-en leinutik jalgi duk fazista gorrien, komunisten edo ezkertiar zaharren etorkizuna, hiruetan hogoi urtez goiti baitu Rusiako lehen alkiaren ttottotuak daudela».

Biok, alabaina, XIX. mendeko aleman «bertsulariak» dira. Paradoxalki, hortaz, XIX. mendea da nagusi XX. mendean.

Ene Sinestea-ren «Aintzin solas edo has aintzineko zonbeit go-goeta»n, bi eritasun edo zaurien ordeztu, bi izurrite aurkitzen dugu. Alabaina, orain, zientismoa edo gabe, desintegrazio sozi-ekonomikoa edo ere gabe, lehenengo izurritea soil gizartearen paganismoa da, sinesgabekeria orokorra. Bigarrena, fededunen beren fedearen izurritea: «Jaungoikoaren begitartea egin dugu gurea bezalako». Hori zer den, edo nola egin litekeen ez egin, erraza ez dago ulertzeko Salaberryren petatxuzko azalpen laburretan. Beti ere krisia funtsean erlijiosoa dena, badirudi, zalantzarik ez dagoela. Horiek, nolana ere, azken urteetako testuak dira. «Du régionalisme à l'internationalisme» saioan (1951) beste termino hauetan analizatu zien krisia euskal estudianteei: «Je crois bien plutôt (erreforma moral eta izpirituala galdatzen zuen de Broglie-gandik distantziatuz), que la crise que nous traversons est avant tout une crise intellectuelle». Problema da, teknologia supermodernoaren aroan, gure mentalitateak atzera gelditu direla. «Le moyen âge (ez XIX. mendea, ez Ernazimentua!) n'est pas très loin, ainsi que nous l'enseignent les manuels d'histoire. Il s'appelle: aujourd'hui». Ezer baino lehen, mentalitateak eguneratu beharra dago. Orduan jakingo da, zein den, egunerako behar den erreforma moral (erlijiosoa). «Réforme intellectuelle, avant la réforme morale. Des deux réformes indispensables, elle est la plus urgente». Gaztigatu beharrik ez daukat, konferentzia honek estudianteak Europako Batasunaren alde berotu nahi zituela.

Salaberry maiz mintzo da, kazetaritzan ari ez denean ere, punpaka (estiloarekin batera bere karakterra da hori, intelektualki), balioespen orokor absolutuak momentuko inpresio edo ikuspegiaren pean boteaz: XIX. mendea holakoa da, holakoa XX.a, Nietzsche hau eta Marx hori. Gero erreparatzen duzu, testu ezberdinak alderatzen dituzunean XIX-XX. mendei, edo Nietzsche eta Marx-i buruz, sistema bat, filosofia bat ez dagoela barenan, alferrik bilatzen duzula. Momentuoro dagoena, momentuko borroka da, autorearen perspektiba osoa esaldi bakoitzera menperatuz eta kontzentratuz. Hura berera doa. Marx, Nietzsche ala XIX. mendea, tresnak dira funtsean bere xederako. Pilotak, bere jokoan. Inoiz ez da gelditu eta Hegel, Nietzsche edo Marx-en arrazoi bat seriooki sakontzen pausatuko. Bota aipu solte bat,

topikoren bat, eta segi. Intziso eruditoak, adibideak. Ez dihardu eta ez dago interesatua eztabaida filosofikoetan, baina «praktikoetan».

Behatzen badugu, ordea, xehekiago, filosofo handi gehien-gehienean agerpenak esporadikoak dira –Platon edo Aristoteles, Kant, San Tomas bera–, baina ikusiko dugu, Marx eta Nietzsche horietxek hain zuzen, Salaberryren saio handi kasik guztietan errekurrenteak direla, 1950ean hasi eta 1981eraino. Seinale, iragaitzeko aipu soilaren itxura literarioan, azpiko borroka iraunkor batena: «Jainkoaren heriotzaren» borroka. Borroka luze bat da, bai bere buruarekin –Seminarioan eta Institutu Katolikoan ikasi zuen eta orain auzikatzen duen pentsamendu apologetikoarekin– bai deskristautzeko bidean ikusten duen inguruko munduarekin ere, azken urteetan areagotuz, larriagotuz doana. Haren garaian mundua errotik aldatu da, euskal mundua batez ere. Salaberryrentzat Jainkoaren heriotzaren arazoan, gizonaren etorkizuna, XX. mendeara, euskal gazteria eta Euskal Herriarena, daude jokoan. Hasieran (50. urteetan) urrutiko gai erudito bat zirudikeena, urteak joan ahala, geroz eta hurbilagoa, premiatsua goa bilakatuko da, politikoki, moralki, intelektualki. ETA, Enbata sortuz doaz. Salaberryk ulertu du, kontua ez dela jada apologetika klasikoan jarraitzea. Ireki beharra dago mundu berriaren egiari: Marx-en egiari, esaterako, eta filosofo moderno antikristauten «kristautasunari» (ES, 114). Salaberryren pentsamendua, gazteriaren borrokarekin batera borrokan eta eboluzioan joango da. Beti berdina, beti aldatuz, berak esango lukeen bezala.

Pentsamenduaren borroka, eboluzioa

Hemen Salaberryren pentsamendua ikusi nahi dugu. Baina ideiak bizi egiten dira. Historia bat izaten dute. Biografia intelektuala zehaztera sartu gabe –nahita ere ezingo baikenuke–, on izango da pixka bat haren eboluzioa gomutatzea, ideiak autorearen bizitza pertsonalean eta garaian txertatuz, haiek abstraktuki behatu baino lehen. Pertsonaz beraz, nolana ere, gutxi dakidalako, eta bestela ere ez naizelako ideien arazoetan historia pertsonalak aipatzeko zalea, ez dut sakonduko, idazlearen traiektoria ulertzeko lagun lezakeentxo baina gehiago. Gure hurreman guztia gutunezkoa izan zen; pertsonala, ia ezer ez adina

tsu. Astero irakurtzen nuen *Herria*-n. Aitortu behar dut, So Egi-learn miresle nintzela, euskaraz nahiz frantsesez, jada hogeit urte ingururekin. Beharbada zor aspaldiko horren sentimenduak sarrarazi nau orain, Pako Sudupek adiskidetsuki bultzaturik, lor neke honetan. Behin edo bitan bakarrik ikusi nuen, oker ez bango. 1962/63an, uste dut, Arantzazun. Agian beste pare bat aldiz Iparraldean, geroago, bilera edo kurtsoren batzuen kariatara, Alemaniatik etorrira egoten nintzenez. *Jakin*-ek prestatzen zuen Filosofiaren Historia baterako, berak «Henri Bergson» kapitulua idatzi zuen (1965ean argitaratua). Bere «L'Homme basque. Essai de Caractéologie Euskarienne», «Du régionalisme», «Le Pédagogue et le Commissaire», «La Fête» saioak oparitu zizkidan orduan, eskuz berak «Ene orhoitzapen hoberenarekin» eskaintza sinatuz. 78an *Ene Sinestea*, bere memoriak bezalako liburua, igorri zidan, «Ipar Euskadi/Eta/Hego Euskadi/ – Bat baita Euskal-Herria/ Bihotzetik» eskaintza eta sinadura bere eskuz idatzita berriro. 80an Omenaldia, «Ipar-aldekoak/ Hego aldekoari/ Orhoitzapenetan/ E Salaberry» eskaintzarekin eskuz. Eta gehiagorik ez. Nahikoa bere aldetik, tamalez begikotasun nire aldetik ez behar bezala itzulia. Bihoakio gaur omenaldi –miresmenezko eta kritiko– atzeratua.

Haren idazkietara etorritz. Esan ohi da –ohi dugu–, Salaberry aurrena nazionalista frantsesa izan zela; eta, gero, Armada frantsesean ofiziala baitzen Bigarren Mundu Gerran, alemanek atxilotu eta, presokanpoan euskal abertzaletu zela, Alemanian. Berak kontatzen du horrelatsu. Hobeto berexiz, bada: Salaberryren euskaltasun kontzientzia nolabaiteko bat gerra aurrekoa da, izan. Hala «Zer da eskualdun izaitea?», Eskualzaleen Bilkura eguneko sermoia, 1937koa da. Konbertsio historia bat polita izango litzateke, baina ez da egon, beraz. Galde litekeena da, zer kontzientzia zen 37ko hori. «Eskualdun izaitea da, eskual lur, mintzaira, fedearen bihotz guziz maithatzea. Hortik kanpo ez da eskualdun osorik». Lurra, mintzaira, fedea.

Lurra geroxerako utzi eta, euskarari dagokionerako, «mintzaira hortan ez ditake ar hainitz denbora –diosku Salaberryk–, nahi ala ez, Jainko Jaunaz orhoitu gabe. Eskuaraz mintzatzea, girixtinoki mintzatzea». Euskaldun eta fededunek bat egiten dute, h. d., fedea eta mintzaira (famiarekin eta etxeko hezkuntzarekin alegia) elkarri lotuak daude. Euskara, etxeko otoitzen mintzaira da. «Zer li-

take mintzairia, ez balitu Jainkoari egin othoitzak jasaiten? Hartz-, ezpain-bazter arrabots ez deus bat...» Salaberryren testuak ereduak dira, «euskaldun fededun» ideologia deitu izan dena, konkretuki zertan zetzan, bistaratzeko. «Eskualdun zuzen bizi direnak» otoitz egileak dira, sukaldean bildurik, denak belauniko, «lehengo molde ederretarik deus ahanzi gabe». Edo: «(...) Gure arbasoek ezagutu dute heien gainean Jainkoaren eskua; hainbertze elizatiar egon, nun jendek, eskualdun bat ikhustearekin, erraiten baitzuten: «Hara girixtino bat!» Beraz, ez baditugu urhatsak urhats horietan emaiten, batere jalitzen bagira mail handi hortarik, edo jalitzeko irriskuan jartzen, orduan, ez gira Eskual-herriaren seme!» Fedeaz bezainbatean, bada: euskaldun ona ezin da fedegabea izan (arbasoekiko jarraitasuna eteten du, etab.). Mintzairaz bezainbatean, halaber: 37ko testu honetan euskarak ez du berezko beste baliorik erakusten, fede-babes bat da. Euskararen beraren balioa bermatzeko lehenengo filosofia edo gogoeta 51ko «Le Pédagogue et le Commissaire»-n aurkituko dugu, eta 67ko «L'aliénation basque»-n batez ere.

Lurrarekikoan, Salaberry baitan bada zerbait, atentzioa ematen duena, eta gero ere beti horrela jarraitu duena: Euskal Herria ikusteko bere moduak, kanpotik ikusten duenarena ematen du; emigratu eta herri-minez oroitzen denarena bezala. «Zoaz Eskual-herrira –dio Iparragirre glosatuz-: han etxeak zuriago, beren teila gorri hegalen pean. Zoaz: han landak aberatsago, ogi eta arthoz tinki betheak. Zoaz: han zerua urdinago, xahutzen duelarik hego zalhuak. Zoaz: nihun hain ezti mendiak, urak hain garbi, hain zabal itsasoa. Zoaz Eskual-herrirat, hor delakotz zure sor-lekua, eta ama batek ezkaratz-athea idekitzean bezala, erraiten baitautzu irriz kanporat: ongi zirela ethorri!». Euskal Herria, etxean daukagun ama, ezkaratza, sorlekua da; etxe txuriak, zelai berdeak eta –L. Touletek, Eskualzaleen Biltzarrak 79an Heletan egin omenaldikoan, esan dion bezala– «notre Pays Basque, le plus beau pays du monde». (Tira, omenaldiko beroan esana da eta!). Salaberryren izkribuetan emigranteak leku handia betetzen du. Hori ez da harrizkekoa, Ipar Euskal Herrian zen problemarekin. Are gutxiago, emigrazioaren fenomenoak berak aitaren aldetik ezagutzen zuen bezala ezagututa familian bertan. Salaberry Euskal Herriaz oso erreferentzia konkretuen terminoetan –Heleta, Baigura mendia– mintzo ohi da, presentzia batez bezala. Baina haren tes-

tuari, herritik joan eta jada guztiz hangoa ez denaren sentiera eta nostalgia keru bat, hartzen zaio askotan.

Bestalde, poetikotik politikoraino, lurrak esanahi ezberdinak izan ditzake. 37ko Salaberryrentzat lurra etxearekin eta lanarekin dago lotua, nekazaritzarekin (herrialdearen arima mintzaira bada, lurra da gorputza, esango digu), nekazaritzak orduan adierazten duenaz: tradizioa, Jainkoa, etab., berriro, lur hori «gure aitek, eta aiten aitek, mende eta mendez, beren gogoz, beren izerdiz, amodiorekin lantu eta orhatua» baita. Salaberryk lanaren teologia ezin positiboagoa dauka (Arizmendiarrietaren bera, hain zuzen: honek industriari aplikatzen diona, hark laborantzari aplikatua). Lurraren laborantzak Kreatzailearen mutil eta lagun egiten gaitu, «gure eskuak haren eskuen ordain, berak gure aita zelakotz guretzat hasi lana»ren jarraitzaile. Lantzeko eta apaintzeko Jainkoak herri bakoitzari eman dion lurrak, egiten gaitu «nun nahi agertzeko on giren norbait». Egiten gaitu sinesgarri, fidagarri. Lurrak errotzen, etxekotzen gaitu, tinkatzen gaitu leku eta historia batean –azkenean «moral» batean, gizontasun batean. «Lurra maite ez duena usu bilhakutzen da erdi-jaun, erdi-feiries, erdi ergel, –hiritarrek ere [kasu!] ez baitute azkenekotz ikhusten ahal». (Hiria eta lurra kontrajarriak!). Konparatzen bada 1978ko *Ene Sinestea*-rekin, adibidez, hemen ja, ez lurrak, gizona etxeak egiten du (32 orr.), edo herriak egiten du (73-74 orr.), edo garaiak (5 orr.), edo fedeak (71-72 orr.), nahikoa konplikatua da ja, azken finean zerk ez duen egiten, baina honezkero ez da aintzakotzat hartzen lurra.

Lurraren laborantzak Jainkoarengana garamatzala bezala, pilota ere (kirola) «une sorte d'initiation à la vie spirituelle» kontsideratzen da Salaberryren 37ko beste testu batean. Pilota, izpiritualitate eskola bat. Erdi Aroan herri kristauak Katedralaren ondoan eskola jasotzen zuen bezala, gure herriak elizaren ondoan pilotalekua eraikitzen du, «qui est un peu, si vous le voulez, son université populaire». Pilota indarraren eta nahimenaren jokoa da, baina adimenaren zorrozketara orobat («il est pour notre intelligence et notre volonté, comme une introduction à la vie spirituelle»), eta Jainkoaren ezagutzara bidatze bat. Aszesiak monjea zaildu eta izpiritu-jasotzen duen antzera, pilotak euskaldun gaztearen adimena eta nahimena hezitzen eta jasoarazten ditu. «Je crois que cette sublimation lente de toutes nos vigueurs, que

cette pénétration de l'intelligence dans tous nos pores représentent une tâche grande et sainte, parce qu'elles marquent les étapes d'une ascension qui nous rapproche du Dieu qui est Esprit».

Nabariak dira gerra aurreko Salaberryren euskal kontzientziaren mugak. Hala «Zazpiak bat» goiburua bera, teologizaturik, denok batzen gaituen karitatearen espresio bihurtuko da haren meditazioan. Hegoaldeko gerra zibilak euskaldunak bi frontetan erdibitu zituen Iparraldean ere. «Il y a sept provinces, et les sept ne font qu'un; hélas, aujourd'hui, dans les esprits et dans les coeurs, les sept font deux (...) Et, pourquoi feindre, dans cette irréductible alternative, pour les uns ou pour les autres, nous avons tous opté». Drama honetan, «Zazpiak bat» da, esango digu, «la loi de la charité». Berdin «Zer da eskualdun izaitea?»n: «Eskualdun garbiak Nabarran, eskualdun garbiak Bizkaian; hala ere batzu bertzeekin oldar izigarrian..., eta (zendako gorde?) orok ala batzuen ala bertzen alde hautatu dugu jartzea (...). Ah! zer den eskualdun izaitea? Hain behar eta ez dugun karitatearen, Jainko karitate-ithurburutik ardiestea».

Labur: 1937ko Salaberry «euskaldun fededun» ideologiaren ordezkari kunplitua da. (Nolabait, beti izango da hori: ikus *Ene Sinestea*, 42 eta hur., 68 eta hur., *Beñat*, 69 eta hur.). Berak dio aski gora: «Izan eskualdun eta fededun! *Eskualdun eta fededun*, erran nahi baita, bat bertzearekin; bat bertzea gabe deus ez delakotz; bat bertzerik ez baititake berex; bat bertzeari, aitzinekoen ondolik guk ere nahi baititugu atxiki, artekarik gabe, josiak». Oraindik fedea oroz gain tradizioa adierazten duela, ematen du, eta ia tradizioa soilik; *Ene Sinestea*-n, bitartean krisi erlijiosoa nabarmentzen ari delako apika, sinesmenak, euskalduntasunarena baino barnago, gizatasunaren oinarritzko funtsa esan nahiko du (tradizioaren inportantzia galdu gabe).

Salaberryren eboluzioan mugarri esanahitsuak izan dira bere esanean: Gernikako bonbardaketa eta Bilboko setio eta erorikoa, Vatikanoko II. Kontzilioa, ETAko iheslarien presentzia Iparraldean (gose grebak, etab.), 68ko maiatza; ororen gainetik, ordea, bere esperientzia pertsonala presokanpoan Alemanian.

«Sutan Espainia –oroitzen da. Hango suak erna-arazten doi bat ni baitan kasik hila zagon euskaldungoa. Euskal-Herriaren seme, ez nakien Euskaldun nintzala» (ES, 122). Garai hartan,

gutxi ziren euskaltzaleak, eta euskaltzaleak ez ziren abertzaleak, gogoratzen digu berak. Salaberry, euskalduna zen etxetik, baina, eskola frantsesean hezia, liburu frantsesetan ikas-irakurria beti, galdua zuen euskaldun gogo, euskaldungoa. Gerra zibileko bi fronteen artean, sinpatien arabera erdibanatua gelditzen zen, ez bateko, ez besteko, baxenabartar bezala Nafarroarekiko sinpatiaz batetik, Araba-Bizkaia-Gipuzkoari atxikia bestetik. Zuriek Gernika kiskaldu bazuten, gorriek Irun zuten sutan ezarri. «Bilbao erori zelarik Francotiarren eskuetarat (...) senditu nuen lehen aldikotz zerbait higika ari odolean. Hola hunkia ditake emaztekoa ohartzeko delarik ezagutzen ez duen haurra bizi duela sabelean» (Ib.). Gau osoan ez zuen lorik egin. Bulkada emana zegoen go-goetan aritzeko.

Eskultoreak –dio behin poema bat aipatuz– aurpegia ez du sortzen, baizik hura estaltzen zuena kentzen eta aurpegia agerian jartzen: presokanpoko gatibutzari derizkio, horrela, bere arimaren eskultorea. Hark garbitu dio arima, estaltzen zuen hainbat uste eta mustetik. «Car une captivité de cinq ans n'est-elle pas le ciseau d'acier en même temps que le lourd maillet du sculpteur qui frappe à coups redoublés faisant tomber des pans d'inconscience, des masses d'ombre, des zones tenaces de préjugés, nous réduisant à ces quelques lignes de force qui nous déterminent?» Arimaren zuritze prozesu hau *Ene Sinestea*-n azaltzen da xehekiago: txikitatik hezkuntzak itsatsi zion nazionalismo frantsesa, alemanen aurkako hainbat aurreritzi ergel, gerran eta presokanpoan aise deuseztuz doazenak. Estalkiak galduta, Salaberryren arima bere biluztasunera, bere erroetara itzularazia aurkitu da. Nolabait, bere aberria berri agertu zaio gogoaren zolan. «Si l'on nous demandait: «Derrière la grille des barbelés d'un stalag allemand, quel est donc l'horizon que vous avez le mieux contemplé?» Nous pourrions rétorquer sans ambages: Celui de l'Eskual Herria». Presoen artean antolatuta duten Unibertsitatean, berak Soziologia irakatsi du. Ohartu da, klaseak ez, baino kideetasun «nazionalak» biltzen duela jendea naturalki elkarrengana. «L'expérience des camps de la captivité reste probante. Elle n'a pas été marxiste: nul ne se réclamait de son métier: forgeron, cultivateur, fonctionnaire. Elle est demeurée barrésienne, selon les paroles du romancier de la Lorraine, se rattachant fiévreusement «à la terre et aux mortes». «Ez dira nihun agertu Frantsesak hain Frantses, An-

glesak hain Angles, Holandresak hain Holandres... hala nola Alemanian. Nortasunetik buluziak nihun ez dira izan hain kasko gogor, hala nola herriaren nortasunari atxikiak» (ES, 159). Presokanpoan bere barneko Euskal Herria deskubritu du. «Ainsi nous nous sommes trouvés plus près de notre pays que nous le fûmes jamais, au bout de ce long exil, à l'extrémité de deux milles kilomètres: plus près de notre âme», aitortu du 1949ko «L'Homme Basque. Essai de Caractérologie Euskarienne» hitzaldian euskal estudianteei Ustaritzen (1950ean argitaratua, 6 orr.).

Gerra Frantzian 1940ko maiatzaren hamarrean hasi zen, eta ekainaren 16an soldadu frantses eta arabiar andana batekin preso atzemana Montargis-en, Armada Frantseseko Salaberry subofizialaren «hiria», berak esaten duenez («hastean baginen berrogei bat mila frantses»; gehi ingeles, iugoslabiak, italiar, amerikano, poloniar, holandesak, preso militarrek denak: Salaberryren zenbakia 59.416 izan da) «Stalag IV B» «gizon korrala» izanen da bost urtez, Saxoniako Mühlberg herrixkan, Leipzig eta Dresden artean, Elba ibaiaren ertzean (ES, 138 eta hurr.). Alemaniako eta mendebaleko historian Mühlberg ez da edozein herrixka: Mühlbergeko gudua Schmalkaldengo gerran, Luterogatik eta erlijio gerretan izan duen inportantziagatik ez balitz ere, Tizianoren pottret famatuagatik nahiko ezaguna da, Karlos V. Zesar «gerrako oinaztarria»rekin zaldi eder gainean garaile. Kasualitatez, gainera, Mühlbergeko gudu hori apirilaren 24an izan zen (1547); eta apirilaren 23an hartu zuen Armada Gorriak Stalag IV B (1945). Presokanpoak berak aipalditxo historiko bat merezi zuen: gerran soldadu aliatuen eta Salaberryren presokanpoa izan ondoren, gero «gerra hotzean» makina bat alemanena izan baita, nazien peko usadio berbera izanez sobietarren pean hainbat urtean (han hil da nire lagun Dr. Kröpfleren aita). Eta berdin, aldi batez bederen, Buchenwald, Weimar ondoan, Dachau (ene adiskide Dr. Kramm, orduan gaztetxo soldadua, hor egon da amerikanoen preso). Salaberryren luma ez da istant bat holako kontuetan pausatzen, ez doazkionak zuzenean berari. Alemanian egina zuen lehenago soldaduska ere, hemezortzi hilabete okupazioko tropa frantses nagusiuste harroan (ES, 94-95, 122), Rin ondoko Schierstein-en (Wiesbaden-go auzoa orain). Hala ere, hizkuntza, historia eta kultura alemanean barnatzeko interes handirik, ez dirudi, inoiz izan duenik. Filosofia alemanean ere, iruditzen zait, ez da inoiz egiaz

barrendu. Aitzitik, bere soldadu esperientziek, frantsesetik bestelako kultura edo pentsamendu eremu berrietara zabaltzeko baino gehiago, bere munduan –frantsesean, gero euskaldunean– sako-nago murgiltzeko balio izan zioten.

Gerra ondoko haren literaturan lehenengo nabaritzen du-guna, testu tipoaren beraren diferentzia da: orain kazetariaren ar-tikuluak dauzkagu, ez sermoiak; egunean eguneko politikaren iruzkina, gogoeta saioa, poema bat, antzerkia, azterketa kritikoa. Ekintza gogotsua eta borroka, erritmo izugarrian. Beste bide ba-tean sartua da honezkeroko Salaberry.

Maiatzean askatu eta irailean (1945) filosofia irakasten hasi da berriro Uztaritzeko Seminarioan. Bi partetan partitzen du berak bere bizitza: «Ene biziko lehen zatian, liburuak erakasle, liburuak gauza. Ene biziko bigarren zatian, gauzak erakasle, gauzak li-buru» (ES, 178). Orain bere irakasle dituen gauzak, Euskal Her-riko gauzak dira eta Euskal Herriko gizon-emakumeak. Euskal errealitatea. Bera ikasle bihurtu da. Betidanik bereak zituen He-leta, Baigura, Euskal Herria, bereak egiten ditu berriro, modu berri batean. «Berriz sortu» da, esango du berak. Eta sortu –giza-kia lau-bortz lelo bihotzean kantuz duela, sortzen omen baita– «lau-bortz lelo ezpainetarik dariotela: Euskal Herria, Europa, Zu-zentasuna, Askatasuna, Bakea. Bortz pilare horien puntan dago itxaropena» (ES, 179). Bihotz berriko lelo horien artean Frantzia ez dagoela, ohartzen dugu. Euskal Herria bai. («Bere dorpe gu-zian eri zen ene frantses nazionalismoa», idatzi du). Filosofia es-triktoaren aldetik aldakuntza handirik ez dela nabaritzen, uste dut. Bere eskema fundamental neotomistan gelditu da, 1950eko «Saint Thomas» konferentzian ikusten denez. Aldakuntza, ikus-bide sozial eta politikoetan egiaztatzen da batez ere. Nolakoa, zehazki? Xehetasunik aipatu baino lehen balioespen orokor bat arriskatzea zilegi bada, ideia bat emateko, eboluzioa, 1) filoso-fiaren mailan, sistema dogmatiko batetik irekitasunera, are de-sinteres teoriko batera, eta 2) nazionalismo frantsesetik euskal abertzaletasunera joan doala, esan liteke. Baina, berexteko, edo inori ez gehiegi ulerrarazteko, esango nuke, nazionalismo fran-tsesearen uko zuzen bat egiaz inon ez dagoela harengan, baizik euskal abertzaletasunaren erradikaltze bat, nazionalismo frantse-saren zenbait alderekin geroz eta kritikoago. Formula batean juz-gatzeko: Salaberry, nazionalista frantses hasi eta, oso frantsesa

gelditu da azkeneraino: baina, nik uste, ez nazionalista frantsesa; alta bai, azkeneraino euskaldun eta, geroz eta gehiago, euskal abertzale.

1950-1951 urteetan, ahalegin handian ikusten dugu Salaberry, euskaltasunaren eta euskal arazoaren teoria orokor baten bila. Urte horietan segidan eman ditu «L'Homme basque. Essai de Caractéologie Euskarienne», «Frantses Xabierekoa Eskualdun Seme», pastoral ñimiño baten itxurako antzezketak (Seminario-rako, nik uste), «Le Pédagogue et le Commissaire. Défense d'une culture populaire euskarienne» eta «Du régionalisme à l'internationalisme», euskal estudianteei konferentzia Donibane Lohizunen (1951eko uztailen). Pentsamendu teologikoa tradizionala da: «Dohatsu giristinoa, emana izanikan ere bekhatuari!... Ezen urhatsez-urhats jarraikitzen zaio urrikia gaizkiari. – Dohakabea aldiz fede gabea: nola jalgi ditake bekhatu buztin lohitik?» («Frantses»). Fedearekin bat, euskal nortasunaren sinboloak goratzen dira: euskaldun bandera, Zazpiak Bat. Eta euskaltasunaren harrotasuna: «Eskualdunak zerbait gogoan hartu eta, nork du baratuko? Eta nahi ez duen hortarat indarka nork du bortxatuko?...» Ez da gutxi esana, Hegoan bezala Iparrean besteren pean bortxatua aspaldian dagoen euskaldunaz esateko. Baina indar bat da ametsa. Erresistentziarako. Errebeldiarako. Indar bat da gogoeta kritikoa ere, orain abian sumatzen duguna.

Idazki teologikorik ez baitu eman, ezin dugu jarraitu xeheki haren ideien eboluzioa alor horretan. Baina irakurtzen dugularik *Ene Sinestea*, 9. or., topatzen dugu: «Paganoek bazuten argi bir-bira bat». Aha!, ez zeuden, beraz, guztiz Jainkoaren eskutik utziak. Are, juzgatzen da orain: «Paganoez dena trufatzen, Jaungoikoaz da ihakintzen. Beha artarekin, ba Greziako, ba Metziko, ba Xinako, ba Afrikako sinesteri, ikusi arte, lohiarekin nahas-mahas egonki, egiaren ur-xirripa mehea». Diferentzia nabarmena da. Ez bakarrik orain paganoei egiaren parte bat aitortzen zaielako (eta inork ez omen duelako parte bat baizik), ezpada orain guztiz desagertua delako batez ere bekatuaren eta kondenazioaren eskenategi hura dena. Kristautasuna, paganismoa, ez daude buruz buru oposaturik, beharrez bata bestea ukatu, baizik denak elkarturik Jainkoaren lorian, elkarrekin eskuz esku. Paganoen egia ere Jainkoaren egia da. «Nun ere irabazten baitu egiak, irabazten du kartaldia Jaungoikoak. Nun ere

irabazten baitu ongiak, irabazten du kartaldia Jaungoikoak» (Ib.). Egiak, filosofian ere, nonahi egon ahalko du hemendik aurrera, ez eskola katolikoan bakarrik. Obra onak ez dira izango fededunen monopolioa: «Girixtinoek obratzen ez dituztelarik Jesus Jaunaren erakaspenak (...) obratzen dituzte girixtino ez direnek».

Eboluzioa hobeto jarraitzen dugu kezka politikoetan. Salaberryren luman Euskal Herria eta Frantzia kontrajarrita agertzen diren estreinako aldian, termino nahiko abstraktuetan egiten dute: mendia eta ordekaren kontrastea da. «La montagne est seigneuriale (...). La plaine est princière». Ordeka emankorra da. Menditarrak lanaren emaitza urria maiteko du:

«Et dans son coeur grandira le sentiment élargi à chaque sacrifice, qui porte le nom bien donné de patriotisme, ayant germé à même la terre des pères.

Or, voici que, depuis le XVIIIe siècle, nous avons substitué, à la réalité de la patrie, une idée, celle de la nation. La patrie désigne un ensemble spatial et tangible dont notre âme peut s'éprendre puisqu'il constitue son enveloppe et son corps. La nation représente un concept élaboré par l'esprit, et pour l'esprit; une vue du monde distincte de toute autre et qui, dès lors, s'oppose à toute autre avec fanatisme. Chacun préfère sa patrie: il y est né; mais il n'ignore pas qu'elle est imparfaite, comme tous les chefs-d'oeuvre humains, et qu'il existe, à côté d'elle, d'autres réussites dont les apports lui seraient d'un heureux complément. La nation doit à sa qualité abstraite de se croire valable partout et de se vouloir seule précieuse: elle ignore ses limites, parce que dans une direction qui est la sienne propre, elle n'en a pas. Mais une abstraction manque de chaleur vitale. Elle reste de la classe de ceux que Nietzsche appelait: les monstres froids. Aussi agite-t-elle, pour s'animer, les frayeurs agressives, les souvenirs cruels, les griefs certains, les xénophobies louches. Le patriotisme est un amour. Le nationalisme est une haine. Nous ne sommes plus unis que pour ces liens négatifs que sont la rancune et la vengeance» («L'Homme basque...», 21).

«Le Pédagogue et le Commissaire», irakaskuntzari buruz, testu bero-bero idatzia da, euskararen eta kultura herritar xumearen alde. Kritikoa burgesiaren aurka. Kritikoa, batez ere, euskara baztertzen duen zanpaketa estatalaren («l'exploitation étatique») eta jakobinismoaren aurka, liberaltasun itxuraz jantzia agertzen bada ere. «D'une certaine morgue jacobine, d'une sorte de puritanisme en loques scientistes, nous sommes saturés». Estatu-Nazioaren eta nazionalismoaren Salaberryren kritikak, Frantziaren gaindipena bilatzen du, ukatu gabe, alde bitarantz: Europa batua, gainetik, eta eskualde federalen aitorpena, azpitik. Zentzu honetan, joera diferenteen artean bere posizioa definitzeko «Du régionalisme à l'internationalisme» testua militantea da, Europa aldarrikatuz eta aldi berean federalismoa errebindikatuz Frantzian. Harrezkero denborak aldatu egin dira, nolana ere. Interesantea da guretzat hor Salaberry Mounier-en kritika, teorikoan ez-ezik, pertsonalean ere sakats aurkitzea: Hegoaldean K. Santamaria, Arizmendiarieta, Mounier-en predikazioa zabaltzen ari ziren unean. Salaberryk Mounier-i, besteren artean, nazionalismo frantsesa puztu izana egozten dio, Europako batasunari oztopoak jarritz adiskide marxistei laguntzearen. Guri gaur ozta irudituko zaigu nazionalismo txikiagoa, Salaberry bera Europako batasunaren alde, Frantziak inperio koloniala ez galtzearen, egotea, besteak beste: «Un magnifique empire colonial fut rassemblé par les fondateurs des dynasties bourgeoises. Et il est à craindre qu'il ne soit saccagé par les héritiers incapables de se plier à une nécessaire évolution [Europako batasuna], et qui sait si de cette oeuvre gigantesque, qui avait requis d'innombrables sacrifices, qui sait s'il ne restera pas surtout le souvenir des crimes qui la polluèrent... et des rancunes!». Europa batuak Frantzia koloniala salbatu behar du: «L'Europe a sa frontière sur le Tchad». Salaberryk, eskolak eta liburuen irakurketak buruan alemanen aurkako aurreritziarik absurduenak sartu zizkiotela, momentu batean garbi erreparatu eta salatu du. Beharbada eskolan ikasitako Frantziaren, kulturaren, munduko ordenaren, hainbat ideia eta eskema, guretzat ebidentzia bilakatuei, zailago erreparatzen diegu, eta hagitik neketsuago dugu horietatik «sendatzea». Hala, Salaberryk behin kontatzen du, nola haurrak bere bihotz beroarekin ikasi zuen, «Frantzia hori zabaltzen dela itsas-mugez gainez gain, Afrikan eta Xinan barna! Frantziatik urrun ere bada oraino Fran-

tzia. Hiru koloretako bandera landatua dagon bezain urrun, denetan da hain goxo zaikun herria». Estatuaren edo aberriaren ideia batek, historiaren ideia bat barnebiltzen baitu, Salaberryk buruan eta bihotzean sartu zuen, Frantzia nola –Alemania eta Ingalaterra baino lehen– etxe bakar bat bilakatu zen frantses guztientzat: «Lan miresgarri hori egin zuten lehen erregek, eta begiratu heien ondokoek. Geroztik bat dago Frantzia, mendian harroka bezain hazkar baita haren batasuna». Barneko Frantzia, hori. Gero, berdin, erregeak, Napoleon, Errepublikako ministroak ari izan dira, «laborariak lur-berri egiten bezala, Frantziako zedarriak ezin haratxagoño emanaz. Hola egin dute berriz kanpoko Frantzia». Hastean, Salaberryrentzat errealitate historiko, politiko, geografiko ebidenteak ematen du, Frantzia, barneko Frantzia eta kanpoko Frantziak (hizkuntza bera apenas da gaitzgabea) osatua dela, «Dunkerque-tik Tamanrasset-erat». Europako batasunak «Frantzia zabal haundia» gorde behar du. Haren lumatik kutsu nazionalista frantseseko hainbat erreferentzia naturaltasunik handienarekin isurtzen da (edo faltatzen da erreferentzia, egon beharko lukeenean) Ingalaterrari edo Alemania, Espainiari buruz. Nazionalismo zakarrena gainditzen denean ere, ingelesak holako, alemanak holako, naturalki jarraituko da irizten (Herbehereak, Belgikak, Danimarkak, etab., ez esistitzen jarraituko dute, hots, aintzat hartuak ez izaten ezertarako). Frantzia hau da, Ingalaterra hori, Errusia, Amerika. Estatuak, historian misio metafisiko bat inkarnatzen duten errealitateak bezala, patuak bezala, juzgatuko dira, historismo teologiko ahazteko hobe baten manera ezagunean: «Jaungoikoak agertu ditu Europakoen begieri Egia, Ahala, Ederra, Haundia, Ongia. Egia, gain-gainetik, Frantziari; Ahala, gain-gainetik Ingalaterrari; Ederra gain-gainetik Espainiari; Haundia gain-gainetik Alemaniari, Rusiari; Ongia, gain-gainetik Euskal Herriari» (ES, 12). Egia Frantziari hain zuzen: munduaren argia Frantzia da – pentsamendua, zientzia, argitasuna Frantziaren dohain berezi deklaratu ohi zuten XIX. mendeko autore frantsesen tradizio jator-jatorrean.

Historia eta Estatuak ikusteko modu XIX. mendetiar hau (bere aldaki frantsesean), Salaberryk funtsean beti gorde du, inoiz kuestionatu gabe. Nazionalismoaren arazoa konplexua da Estatu-Nazioen haurrentzat, harekin kritikoak izan nahi dutenean ere. Salaberryk berak aitortu du hori, bere kasurako, Amestoy,

Beloken historiako irakasle errotik euskaldun eta errotik frantses nazionalistaren influentzia aipatzen duela bere ikasleen gainean, gaindiezina askorentzat, gaindigaitza berarentzat ere (ES, 90, 92; ik. halaber 67, 105!!!). Teinka larri batean ibiliko da beti. Hala, Karakterologiako Saioan aberria eta Estatu-Nazioa kontrajarri ostean, «Du régionalisme»n aberri txiki (Euskal Herria) eta aberri handiaz (Frantzia) mintzo zaigu berriro, eta aberri txikiaren maitasunaren beharraz aberri handia maitatzeko. «Celui qui n'aime pas sa région, n'aimera pas sa nation». «Une intensification de l'amour de la petite patrie, doit déterminer son éclatement dans l'amour de la grande patrie nationale» («patrie nationale», inori du-darik ez uzteko: bestela norbaitek pentsa lezake, aberri handia, Salaberryren logikan, Europak izan behar zuela). «La région constitue l'abécédaire où nous apprenons l'amour inconditionnel de la nation». Aberri txikia sentimenduaren eta instintoarena da; handia gizaki razionalaren aberria, kulturarena. Aberri txikia afektibitatearentzat beharrezkoa bada, aberri handia bizitza intelektual, kultural, izpiritual duin baterako da beharrezkoa... (Izpiritualak Frantzia behar du!, berriro topos klasiko bat). Bukatzeko, bada –parrafo berean nazionalismoa zorrotz kondenatuz– aholku ebanjeliko hau: «L'homme qui n'aime pas son pays plus que lui-même, n'est plus un homme. Celui qui est incapable de sacrifier sa vie, dans un élan de volonté libre, celui-là a déjà perdu ses raisons de vivre».

Salaberry aro kolonialeko eskemetatik zetorren. Europak Afrika behar zuen, Afrikak Europaren laguntza eta gidaritza behar zuen, guztien (gizadiaren) ongiak Europa eta Afrika bat izatea galdatzen zuen, bestela akabo Afrika gaixoa, etab., kolonizatzaileak eta kolonizatuak denak adiskide eta berdin onuradun lirartekeen mundu zoragarri bat. Inperioaren batasun ideia (ideologia) zaharra, motibazio erlijioso eta humanistaz bermatua Salaberryren kasuan. Agustinitas politiko zaharberria, edo mundua Eliza Katolikoaren irudira pentsatua, bere Aita Santu, diozesi episkopal eta misio lurraldeekin (ikus ES, 92: Errepublikako Presidente ez al da «Herriaren Aita»?), ordena santuan denak zerura bidean. Beharbada pentsatu du, Aljerian, Indotxinan, gazteek aberri handiaren alde bizia emateko prest egon behar zutela, eginbehar gizatasunezko eta morala zela urruti haietan Frantzia defendatzea. Inportantea da, nolana ere, oker ez banago, odo-

laren orduan, Salaberry ez dela gehiegi tematu asmo horietan. Bera halako ideietatik bazetorren, etorri, gerra haizeek laster eramantuzte airean orbelak bezala irudipen humanitario-paternalista horiek, bake denboran askori errealitatea estaltzeko balio izaten zutenak. (Salaberryren eboluzioaren historiak, esperientzia pusketaka puskatuz doakion mundu batena dirudi). 40-45eko gerra eta presokanpoko esperientzietatik berak atera duen konklusio inportante bat, agian nagusia, nazionalismoaren kritika izan baita, nazionalismoaren kritikan jardungo da bera Aljeriako gerran, nazionalismo frantsesa nahiz aljerianoa, hori delakoan hondamendiaren erruduna.

Hain zuzen, nazionalismoaren arbuiotik garatua da Salaberryren «erregionalismo» geroz eta premiatsuago eta zabalagoa. Esanahitsua haren konferentziaren izenburua bera: erregionalismotik –nazionalismorik ez!– internazionalismora. Nazionalismoarekin identifikatzen dira jakobinismoa eta zentralismo ekonomikoa, hexagonoan herri txikien kultura nahiz ekonomia bizi ezinik, eta gerora desagertzeko arriskuan, jartzen dituztenak. Laster ikuspegi kritiko hau pentsamendu teoriko edo filosofiara hedatuko da: Salaberryren erregionalismoak ez baititu tesi politiko batzuk aldarrikatzen bakarrik; epistemologia bat da, antropologia bat, filosofia bat, errealitatea sentitzeko eta atzemateko modu berri bat galdatzen du. Gizon-emakumea lurrean kokatzeko beste modu bat funtsean. Hortik bere kritika Mounier-i («il n'était pas l'homme des sens»), Teilhard de Chardin-i («il est un déraciné»), pentsamendu orokor abstraktuari, jakobinismo edo zentralismo gisa bat bezala, singularraren, errearen ezaxola. Harentzat euskara da «la langue concrète» (frantsesaren kontrara). «Descartes Eskual-Herriari urrun bezain, Bergson Eskual-Herriari hurbil», idatzi du behin. «Nork daki ez gaituenez Bergson-ek laguntzen ahal gure eskualdunagoaren hobeki argitzen, gure eskualdunoragot hobeki bihurtzen?». Bere seriotasun «irrazionalista» (gutziz razional!) osoan ulertu behar dugu hori, beharbada estreina bitxi samarra dirudien arren. Salaberryren pentsamendua eta eboluzioa behar bezala sakontzeko, gehiago jakin beharko genuke haren ikas eta irakurketei, eta influentziei buruz, batez ere haren barne-barneko egitura ezkutuak argitzeko. Susmoa daukat, esaterako, izan litekeela Salaberry baitan, berak aitortzen duen Bergson metafisikoaren eraginaren osagarri inportante bat,

sozio-psikologiko eta praktikoagoa berau, orain ia erabat ahaztua dagoen L. Klages (1872-1956) filosofo eta psikologo alemanazkoa. Honen *Les principes de la caractérologie* 1930ean eman zen itzulpen frantsesean. (Klages grafologiaren eta karakterologiaren «asmazaila» da). Stalag-eko Unibertsitatean Salaberry, dirudienez, Klagesi buruz mintzatu zen. Bergsonen adimen (zientzia) eta intuizioaren dualismoaren antzera, Klagesen filosofian oinarritzea da izpiritua eta bizitzaren oposizioa, bakoitzaren existentzian bezala giza historian. Izpiritua eta bizitza (arima) printzipio etsaiak dira. Bizitza edo arimak errealitate kosmikoren gelditugabeko jario espazio-denborazkoan zuzenki, artekogabeki –kontzientziaren edo kontzeptuaren bitartekotza gabe alegia–, bizipen eta emozioz parte hartzen du. Munduko zerak oraindik ez dira adimen abstraitzaile batek bihurtuko dituen «gauza» banatu, zermugatuak, lotuak zer-izan bati eta higigabetuak; baizik eta kosmos guztia kalitate, indar demoniko, irudi sare edo ehundura bat da, arima inguratzen bere barruan eta berearekin bat, ez haren aurrez aurre, berezirik. Batasun handi bat dena. Kosmosaren bizitzan bizitze hau, lurrarekin eta konkretuarekin bat izaki, egun herri «primitiboetan» ikus (omen) genezake. Arimak, bere munduarekin bat, bizi duen esperientzia gozatu ezmugatu espazio-denboran jariokorraren isuria, izpirituak geldiarazi egiten du, zatitu, zedarritu, bere propioa den egintza akosmiko, espazio-denbora gabekoaz, kontzeptu razionalaz. Izpiritua arimaren etsaia da. Izpiritua pean, arima kontzientzia bilakatzen da, geroz eta intelektualago, geroz eta abstraktuago eta irrealago haren errealitatea. Zibilizazio prozesua, izpiritua borroka eta garaipenaren historia da arimaren aurka; gizadiaren izpiritualizazio (intelektualizazio) eta arimagebetzearen historia, teknikaren nagusitze orokorreraino. Historiaren ardatza izpiritua eta arima (bizitza) bi poloen oposizioan datza. «Izpiritua «da», izan; bizitza joan doa. Izpirituak juzgatu egiten du; bizitzak, bizitu. Judizioa egintza da; bizipena, pathos. Izpirituak izan badena atzematen du; bizitzak gertakariaren bizipena bizi egiten du. Izate (izate hutsa) espazio-denboraz kanpokoa da, eta halakoa da izpiritua ere; gertakaria espazio-denborazkoa da, eta bizitza ere halakoa. Izate printzipialki pentsatu ahalgarria da, ordea sekula ez artekogabeki bizitu ahalgarria; gertakaria printzipialki bizitu ahalgarria da, ordea ez sekula artekogabeki ulertu ahalgarria.

Juzgu egintzak aurretik bizipena bizi duen bizitza suposatzen du; bizitzak izpirituaren beharrik ez du aurretik, bizipena bizitzeko. Izpiritua, bizitzaren barruan egoiliar, haren aurka zuzenduriko indarra da; bizitza, izpirituaren erakarle bilakatu den bezainbatean, defentsako instintoz jarkitzen zaio beroni. Gizadiaren ibilbide «historikoaren» funtsa («progreso» ere deitzen dena), izpirituaren borroka garaipentsu aurrerakorra da bizitzaren aurka, azken honen suntsipen logikoki aurreikusgarritzko amaierarekin». Filosofiaren zeregina, intelektualismo arimaren agortzaile horri ahal den neurrian buru egitea izanen da (Bergsonen intuizioak intelektualismotik –zientzia positiboaren hesietatik– erredimitzen gaituen legez). Salaberry –ikusiko dugu– era beretsuan mintzo da filosofoaz eta olerkariaz (edo bertsolariaz). Eta «L'Homme basque»-ko holako pasarte bat, adibidez, izpirituaren kritikarekin eta esplikabide polarren eskaerarekin, Klages-en oihartzun garbia da, nik uste: «En face de chaque problème, nous sommes immédiatement tentés de remonter à un principe dernier dont le reste ne serait que conséquence ou corollaire. L'esprit humain est moniste par nature. Mais la réalité ne se laisse pas emprisonner par cette canalisation en ligne droite. Elle déborde par dessus ce tracé logique. Elle se ramifie autour d'un double pôle. Elle entre en conflit avec la raison. Elle exige deux axes de référence...» Metodologia hori izango da berak euskal karakterologian praktikatuko duena. Baina Bergson-Klagesen planteamolde bipolarra nabarmen badago Salaberryren metodoaren oinarrian, beharbada konkretuki Euskal Herria mundu modernoan ikusteko haren moduan ere, nabaritzen dira filosofia horren aztarnak: «(...) Nous nous penchons sur les civilisations anciennes pour y découvrir les symptômes d'une vitalité disparue (...). Qui sait si tant de visiteurs ne viennent pas sur la Côte basque parce qu'ils sentent leur âme se disjoindre et qu'ils entendent leurs pensées se heurter en désordre, pareilles, à l'intérieur de'un jouet, aux morceaux d'un ressort brisé? Ils cherchent des hommes qui soient encore des hommes». Ikusiko dugu, halakoxe moldeetan hautemana aurkezten digula beti, oraindik guztiz endekatu gabeko mundu baten hondar sano bezala, euskal kultura. Teknikari buruz, ordea, Euskal Herri laboraria beti haren eskasean ikusi duelako ere, Salaberryren iritzia erdibitua aurkituko da haren kritikaren eta beharraren artean.

50.eko hamarkada hori (bere) euskal kontzientziaren sendotze razionaleko eta apostolutzakoa kontsidera geniezaioke. Kritika bakanen batzuk baditu, hala egunorokotasun loakarkorrena («sans doute au Pays Basque la monotonie est-elle plus monotone»), indibidualismo anarko baten arriskuarena, batez ere burgesiarena, baina, orotara, Salaberryren Euskal Herriak ederrez eta balio humanistikoz beteriko Arkadia ematen du. Behin eta berriro errepikatu du Euskal Herria, mundu modernoan, humanismoaren eredu dela. Salaberry bera humanismo horren eta herri horren apostolua da. Are, martiria! Berak hala bizitu du antza. Hemen Salaberryren autopertzepzioa ezin da zuzenean gure gaia izan, ez haren psikologia. Baina argi eman lezakeen neurrian, jakiteko berak bere ideiak eta obra nola balioesten zituen, zilegi izan genezake begiralditxo bat. «Espartin xuri, ni naiz», «Pilale, ni naiz», berak utzi du idatzita (ES, 6). Irakurtzen du, beraz, irakurleak «Zapeta Urhe eta Espartin Xuri», 1958koa, Salaberryren bila, garai hartan berak nola sentitzen zuen bere burua jakin nahirik, eta zur eta lur gelditzen da, egia esan. Obra dramatiko aski xumea da, literaturan bezala gogoeta teorikoan ohi dituen oposizio sinpleekin. Bi protagonistak dira –gaitztoa eta ona– Zapeta Urhe indiano diru eta botere gosea, bere euskal sorterriko legea baztertu duena, alde batetik, eta bestetik Espartin Xuri, hau Aita Vitoriaren berraragiztatze bat, indianoen eskubideen aldezle. Zapeta Urhe modernitatea da: «Zure agurra duk: «Jainkoa eta lege zaharra». Gure agurra: «Lege berria eta gizona». Zuek erraiten duzue «Jainkoa gizon egin dela», eta guk «Gizona egin dela Jainko». Badituk lege zaharra eta lege berria». Gertakaria Ameriketan jokutzen da, baina jokoan Euskal Herria dago: Jainkoa eta lege zaharra abandonatzen duen Euskal Herri baten eta Espartin Xuriren artean. Espartin Xuri Salaberry dela garbiago uzteko, haren izena Ixtebe da. Ixtebe indioen, hots, jende xumeen eskubideen begiralea da, gaitzulertze tragiko bategatik horiek berek hil egingo baitute. Baina hil eta gero, haren zuzentasuna ezagutuko dute, eta hura ohoratzeraz bilduko dira haren hilobian. Salaberry, euskaldun indioen apostolu eta martiri, ezezagutua bere aldian, hala ere hil ondoan garaile. Hau izan liteke, 50.eko hamarkadan Salaberryk zuen sentsazioa eta itxaropena, euskaltasunaren gogoetazko bere saiorik inportanteenak akumulatzen zituen bitartean. Euskal Herri loakartu bat, bere ba-

lioaren kontzientziarik gabea, modernotasun anbiziorik duten semeek berek abandonatua («fede berria»: Zapeta Urhe), eta basamortuan predikatzen diharduen Ixtebe Salaberry nekaezin gorbizi bat. Guztiz hamarkada garrantzitsua Salaberryren traiektoriaran. 1960ko azaroan Euskal Herriaren heriotzaren angustiak mintzen du («un peuple millénaire, qui ne veut pas mourir») eta bizi-nahiak: «Notre province représente une région sous-développée. L'industrie constitue la clé de voûte du vingtième siècle et cette industrie fait défaut à l'arrière-zone de notre pays. Nos jeunes gens sont donc forcés de quitter une patrie marâtre qui ne leur permet plus de vivre, hors de la misère et dans la décence». Hurrengo urtean (1961) «Défense des langues et cultures regionales» artikulua publikatu du, esperantza berriz orain, *Gure Herria*-n: «que le 21 décembre 1961 soit un jour faste dans la chronique des Langues Régionales».

60. urte horietantxe Euskal Herria mugitzen hasi da. Ez Euskal Herria bakarrik: Eliza, mundua bera. Salaberryren begitan-urteak geroago hala ikusten jarraituko du-, hamarkada, mugarririk handiarekin hasten da: «Gerla ondoko gertakari haundiena, ba giristinoentzat, ba munduarentzat, 1962-etarik 1965-erat, Erroman bildu Batikaneko bigarren konzilioa» (ES, 184). Politikoki, Aljeriako gerraren amaiera, internazionalki Hirugarren Munduko «Estatu neutralen» blokearen organizazioa, Kennedyren «Progresoaren Aliantza», etab., gogora daitezke, giro berriaren seinale gerra hotzaren ondoko distentsioan (68ko Udaberri eztandaraino loratuz joan den udaberritze orokor bat). Salaberryren hurbilago, Iparraldearentzat Enbataren sorrerak adierazi duenerako, X. Arbelbideren *Enbata*, historia paregabea ikus daiteke. Intelektualki garrantzitsuena, irekitasun berria da, Elizan batik bat, baina eskola eta korronte ezberdinen artean ere. Ordura arte, katolikoak, protestanteak, ortodoxoak, baita eskola filosofiko ezberdinak beren artean ere, gizartean elkarren alboan bai, baina elkar ezikusiz, edo ezinikusiz maizago, elkarren etsai sutsu, bizi izaten ziren. Marxistak, existentzialistak, estrukturalistak eta mila eratako ista guztiak, denak denen kontra taigabeko polemiketan. Eliza latinoa, bereziki, mila Argus begi, neotomista ez zen guztia derrepente liburu kondenatuen Indexean sartzeko prest. «Henri Bergson-en liburuak ezarriak ziren lerrakorren artean. Maurice Blondel eta Teilhard de Chardin-enak ezartzer», oroitzen da Sa-

laberry (ES, 184). Gaur seguruenik ez da ulertteraza, baina Salaberryren historian inportantea: ordura arte kasi klandestinoak izandako zaletasun filosofikoak (Bergson, etab.), agerian agertu ahal izango ditu orain —«gaindituak» direnean belaunaldi filosofiko berriarentzat! (ES, 150). Marxismo edo psikoanalisarekiko, zilegi izango du interes positiboagoa erakustea, kritiko jarraituz. Haren eboluzioan, ez nuke esango fase berri bat, baina libertate berri bat aurkitzen da. Ordura arteko gogoeta eta bilakabidearen sintesi handiak permititu dizkion libertatea. Alegia, Euskal Herriari buruzko: 1) bere ideario teoriko-filosofikoaren sintesia, «La Messe sur le Pays Basque» saioan (1964); eta 2) bere posizio sozio-politikoaren sintesia, «L'aliénation basque»n (1967). Bestalde, espresuki «euskal gaiak» ez diren eremuetara ere zabalduko da, «Henri Bergson» bezalako saio filosofiko teknikoagotara, adibidez.

«La Messe sur le Pays Basque»k (Teilhard de Chardin-en «La messe sur le monde»n kalkatua) izenburu arranditsu baten arriskuak erakusten ditu beharbada: saio solemnetxo bat da, Teilhard-en imitazio eta kritikazkoa, ez derrigor Teilhard-en tamainakoa. Literarioki badu esperimentu baten jitea («La prière du Pays Basque», Xuberoaren ikusketa liturgiko bat); pentsamenduaren aldetik herritasun esatekorik ez, ohiko Euskal Herriaren kontzeptuan, material edo ilustrazio (aipamen) filosofiko-kultural gehiagorekin janzten bada ere. Bakarrik, atentzioa ematen duena (Teilhard-en erreferentzian gabiltzalako hain zuzen): lurra, hemen, ia ez da agertzen; agertzen den lurra, paisaia da. Teilhard-engan belaunaldi berri batek hunkiturik irakurri zuena, lurrarekiko atxikitasuna zen, ordea. «L'aliénation basque», aldiz, laburbilduma biribila da, bere posizioak trinko eta sistematiko arazoituz. Inoiz baino gordinago formulatuak, iraultza erregionalistaren ordua, hezkuntza ofizialak daragien alienazioa, Frantziako eskualdeen barne-kolonialismoa, euskal burgesiaren antieuskalduntasuna eta euskaldunon gutxiagotasun konplexua. Oso garbi formulatua bere «euskararen filosofia», erregionalismoaren bi fronteak, kulturala eta ekonomikoa (politikoa ez da aintzat hartzen!), elizaren rol positiboa, espazio ez alienatu bakar bezala.

Salaberry sasoian dago. Itxitasun tradizionalen kikildua bizi izandu den herri-inguru batean, Eliza batean, kultura batean,

bera berria sentitzen da, modernoa – izanez ere «antzinakoa» (euskalduna). Konfiantza du bere buruan, bere ideietan, kulturaren. Atzo kondenaturiko pentsabideak nagusi gaur: berarentzat, ozartasun zena, garaipen bilakatu da. Badaki bere pentsamenduaren ordua dela. 1968 maiatzeko galerna sartu delarik (ES, 181-183), ikasleekin eta bai Bokaleko langileekin bildu da, ibili da eurekin asanbladan, manifestaldian. («Sei erakasle ginen orotar gazteen gibeletik»: esan nahi baitu, oraindik ausardia behar zela!). Eboluzio terminoetan, 68 Salaberryren garaipena bezala izan da eta, agian, Salaberryren amaiera.

70.eko hamarkada uztaren bilketarena da heldutasun intelektual betean. Salaberryk, iraganera beha, ibili duen bidea meditatzen du: «Mendeko bi zauriak», 1974ko saioan, XX. mendeko eritasunak aski ilun erreparasatuz, Marx bezalakoan egia onartzera deitzen du. Egia ez dago Elizan bakarrik. Dagoen edonon behar da bilatu eta hartu. «Eliza gizonaren eginbidea litake egiaren errespetatzea, ospatzea, nun nahi dadin agert, nork nahik dezan aurki. Ez uste ukeitea Izpiritu sainduaren haizeak haren beharri xilotik duela bide; berze xendrarik ez dezakeela idek, mundu zabaleko berzen gogoetan. Eliza gizonaren jite berezia litake nun nahi, nork nahik bildu egiaren, Jainkoari buruz ezartzea: haren bataiatzea, Akin-eko San Tomasek, Aristoten filosofia bataiatu duen bezala, Jakes Maritain-en arabera». 78an autobiografia argitaratu du, bere obra gailena: *Ene Sinestea. Iragan biziari gibeletik beha*, harrobi informatibo agortezina. 79an Eskualzaleen Biltzarra omenaldia eskaini dio Heletan. 81eko uztailean hil da. Urte horretan bertan *Beñat adiskidea agur!* publikatu da Baionan, «ahantzi ezina eta beraz aipatu, irakurtu beharra (...). Oihu bat?», P. Ainzart-en hitzetan, Salaberryren testamentu eta azken pentsamenduaren suma.

Bere pentsamendura iristeko, Salaberryk, filosofikoki bezala politikoki, borroka luze bat egin behar izan du gaztaroko unitertso guztiaren aurka, eskolan, seminarioan, irakurketetan bilduz joan dena, eta urratsez urrats gaudituz joan behar izango duena bere bizitzan. Holakoetan, ideien historia esperientzia pertsonalen historia da eta, askotan, horien kolorea bezala, horien mugak izaten ditu. «Errana deat –idatzi zuen *Beñat*-en– nahi nuela ene hil-kutxaren gibelean, elizako ehortzketetan, hiru kantoineko lorea: hosto bat euskaldun bandera, hosto bat frantses

bandera, hosto bat europano bandera. Hiruak edo bihibat ez, hiruak bat egiten baitute ene baitan». Soldaduaren leialtasun zaharra dirudi, 1981ean lekuz eta garaiz jada kanpoko beharbada: ekintza intelektualari gagozkiola bederen, azkeneko hogeit edo hogeita hamar urtetan, Europaren eta Euskal Herriaren alde izan baita haren inkarnua, aldiz Frantzia doi-doi aipatu du kritikatzeke ez bada. Hala ere, Salaberryren historia pertsonalean, soldadutza –gerra, presokanpoa– funtsezko esperientzia izango da betiko, esanahi moral zein intelektualean, esperientzia horrek ordezkatzan duen mundua gainditzen ahalegiteko izanik ere. Dena den, eboluzioari eragiten dioten esperientziak, izan litezke gerra eta presokanpoa bezalakoak –Salaberryk berak maiz aipatu ditu bere obra interpretatzeko giltza horiek–, edo esperientzia intimo askoz ezkutukoagoak izan litezke. Holakoan berri gutxi aurkitzen da bere obran *Ene Sinestea* baino lehen. Autobiografia honetan haurtzaro, familia, ikasturteetako hainbat datu argigarri ematen digu. Berez da deigarria, aitaren eta amaren zein tratamendu diferentea egiten duen. Berak gehitzen du, aita nahiko arrotza zuela (ES, 63). «Gostu hoberenean aita ari duk semea kausitu bertularia edo olerkaria ezin urkatuz», irakurtzen da *Beñat*-en. Maiz jardungo da euskal jansenismoaz eta, Euskal Herriko familiaren, erlijioaren mazaltasuna defendatzen saiatuz. Beste hainbat aldiz, zuzen edo zeharka, euskaldunaren elkorzeria, itxikeria, komunikazio falta, uzten du ikusten. «Euskal-Herriko debrua, debru ixila, mihia ixil egiten duen debrua». Zenbat bider ez du aipatu Bergougnan psikoanalistaren ateraldia! *Beñat*-en hasieran honela irakurtzen da: «Eskerrik asko hoin garbiki mintzatu bahitzait. Euskaldun gehienak barnerat itzuliak gaituk, kanporat idekiak izaiteko orde. Ari gaituk hasmoorran, gauza berak kaskoan itzul eta mitzul. Eta hori pozoina. Bergougnan baigorriar, zainak nausituen sendatzale aipatuak zioian ez balute Euskaldunek goxatzeko, ba kofesioko aitormena, ba ostatuko doiño bat xurgatu-eta haro-burrumba, frangotan bere buruaz bertze egin lezaketela». Aitaren egoskorzeria eta larderiak haurrak nola irteera gabeko dramara eraman litzakeen, «Hiru Pindarreko eratzuna»k erakusten du (1975). Eta galdera da, Pilalerekin identifikazioan, bere «izaite egjazkoaren miraila pare-gabe» omen horretan (ES, 6), ezkutuko zenbat bere drama pertsonal nahi izan ote digun adierazi, agertarazi gabe. Aitaz bakarrik ez, baino bere

libertate eta maitasunen zorigaitza nolabait eragin dioten «autoritate» familiar eta sozial guztiez. Berak isildu nahiago izan duena, ordean, isilean uztea dagokigu guri. Salaberryren eboluzioa askatasun eta maitasunezko mundu berri baten bila dabil. Mundu zahar zakarraren ihesi. Maitatzen eta pairatzen duen mundu zahar liluragarriarentzat mundu berri bila. «Ene baitan borrokan ari dituk Etienne eta Salaberry. Salaberryk lehenagoko arbasoen hatzetarik ibiltzea laket. Haren ontasuna orroitmena. Etienne ateka berri bat ezin kausituz, xifritua, xipeilia, harat-hunat dabilak. Haren ontasuna idurimena».

Sinestea, Jainkoa, gizartea

«Eri dela gure hogoigarren mendea, eta azkarki eri, hainbertzetaraino eri, nun bere indar ikaragarrian hartzen baitu noiztenka, bilintzi-balantza, eroriko ez eroriko dudamura beldurgarri batek, nola gorde?»

Nola gorde? «Angustia» existentzialismoaren hitz klabe bat zen, gizakiaren egoera gure zibilizazioan karakterisatzeko (hegoaldean «axanpa» itzuli genuen batzuek, nik uste gaizki). Salaberryk gure garai –XX. mende, Modernitate– itzaropengaldua, hil nahi lukeen Goliat bat bezala pintatzen digu, herio angustian. Baina David bat ez datorkionez hiltzera –desesperaziotik erredimitzera–, «beretzen du, orduan kexu erhoak. Eman lezake hartzekotan dela harroka bat, berak bere buruaren xahutzeko haren kontra». Fede gabe, biziak ez bakarrik ez du zentzurik, ez norakorik inora, ezpada ez du funtsik, ez ezertarako ahalik, ez bizi-poz ez gogorik, ez baliorik, ez du errealitaterik, hutsala da. «Ez existitzea» da, esanahi existentzialista estriktoan. *Ene Sinestea*-ko hitzaurre «edo has aintzineko zonbeit gogoeta», hor berak ideia bere ustean inportanteenak nabarmendu nahi ditu liburuko atarian, xokatzeraino drastikoa da puntu honetan, hurbiltzen zaiola mintzamolde existentzialista bati ere harengan ustegabekoraino, eskola horrekin zenbat sinpatizatzen zuen jakinda. «Sinesteak eta izaiteak bat egiten dute. Sinestea eta izaitea nihundik ezin behex (...). Sinestea gu; gu sineste» (ES, 7). Hainbesterainokoa da hori bien bateratasuna, fedea eta izatearena, Salaberryk uste baitu, fisikoki ere pertsona bati igarri egiten zaiola bere fisionomia eta tankeran, fededuna den ala ez. «Sinesteak sartzen du bere zigi-

loa, gogoan, bihotzean, bai eta gorputzean, guziz begitarlean» (ES, 7). Hortaz, Mendebalea sinesgabea dela esateak, esanahi du, izpiritual nahiz materialki hila edo hiltzearen dela –hotzak!–, izanik gabea dela. «Ez da dudarik: sinesteak, izanikan ere gezurkeriaz eta hisiaz zikindua, emaiten dio sinestea duenari, sineste gabeak ez duen zuta, ausarta, oldarra, eta gain-gainetik bere buruaren irriskatzeko kalipua. Ari da kantuz, sineste gabekoa ari delarik merreka. Ari da dantzan, sineste gabekoa badoalarik itzuli-mitzuli, mozkorra iduri. Horiek oro gure begietan dira bizi, Vietnam-eko gerlan ikusiak. Gerlako borrokan, sinesteduna sinestegabeari nagusituko da» (ES, 8). Gerrako eta presokanpoko bere esperientzia pertsonalak berresten dute: «Gizotasuna eta fededuntasuna bi haurride eginak lotzeko biziaren patarrari urrats berean» (S, 149).

Pasarteotan fedea ez du Jainkoagan izan beharrik; fede –nolabait esan– psikologikoa da, berdin dio zein ideiatan. Baina Salaberry fedea mintzo denean, erlijiosoa esanahi du jeneralean (esanahi hau isilpean barnebildua dabil goiko perpausetan ere). Hala, haren beste ekuazio ohiko bat hauxe izango da, azken urteetako izkribuetan maiz errepikatua, bateratasuna gizona eta fedeara Jainkoagan suposatuz: «Jainkoa hil, gizona hil, biak hobi berean etzanean, lur hilaren zilo hilean» (ES, 116). Gizona –hots, gizatasuna– berdin fedea Jainkoagan; alegia –negatiboan ifrentzikatuz–, Jainkoan federik ez, gizatasunik ez. «Jalgiko dira bortizkeria sorjesak ez-izaitearen sineste hortarik. Gizonak gizona hilen erakusteko gizon dela» (Ib.). Jainkoaren, beraz, gizatasunaren heriotzatik ondoriaraziko dira XX. mendeko nazismo, komunismo, Mundu Gerra eta sarraski guztiak. Eta Jainkoa eta gizon-emakumearen heriotz kausantetzat edukiko dira XIX eta XX. mendeetako ia filosofia guztiak –berak aintzat hartzen dituenetan–, ala berak zuzenean (Marx, Nietzsche, Sartre) ala beren ondorioengatik, Freud adibidez: «erakutsi daukigu nehork ez bezala badirela gure baitan jaidura guhaurek ez ezagutuak (...). Descartes izan dena gogo ezagutuari, Freud izan da gogo ezezagutuari» (ES, 115). Freud giza psykhearen analista bat da, ez besterik. Baina berak ez du Jainkoagan sinesten (bide batez esateko: Salaberryk «Jaungoikoa» esaten du ia beti); ongi eta gaizkiarentzat erreferentzia absoluturik ez du. «Ongia eta gaizkia ez badira gu baino gorago itzatuak, gogor egiteko orde lohikeriari, zen-

dako ez zabal-zabala idek haren uhainari gogo-bihotzeko atearak? Gure mende aberatsa, etzanik eman da lizunkeriararen ohean, Freud-en erakaspena estakuru (...) «Setsua errege», diote asko freudistek erramuak eskuetan» (ES, 115). Galderara itzuliz, bada: mendebale fedegabe hori, eta mendebale horretan gu, nola gorde? «Mendeko bi zauriak», 1974koa, gazteentzat pentsaturiko testua da, ez dakit jatorrian konferentziaren bat izan ote den talde jakin batentzat, edonola ere *Gure Herria*-n eman da argitara jendaurre zabalari. Miseria guztia erakutsi eta gero, salbazioa, amaieran, santuengandik igurikatu du Salaberryk etsita. «Sainduak derabilate mundua. Egia zaukan Leon Bloy-k: «Gauza bat baizik da deitoragarri: ez saildu izeitea...». Nondik nora ibili gara filosofian eta munduan? Hori, bigarren Mundu Gerra eta presokanpoen esperientziaren ondoren, San Tomasen gorazarrearen konklusio eta Baionako seminaristentzako gomendioa baitzen, esperantza berriz beterik, mende laurden bakarrik lehenago...

Ez bizi pertsonal, ez sozial bat zuzena eta zentzuzkoa posible dela Jainkoa gabe, filosofia edo teologiarik baino gehiago, aitor-tza pertsonal bat da Salaberryren obran. Honek ez du esan gura, tesi horren razionalizazio filosofiko aski bermatu bat berak ez zuela. Inola ere ez da fededunaren fede hutsa, Unamunoren «ikazkinaren fedea». Bakarrik, utzi duen obraren izaeragatik –bigarrentiarki soil filosofikoa–, material eskasak dauzkagu haren argumentazioa sakonetik berregin ahal izateko. Daukagu eska-sean ere, ordea, bistan dago, Jainkoa eta gizona (gizartea), filosofikoki beti gehien kezkatu duen auzia dela. Bere testuen azterketatik, inpresioa daukat, bi bide ezberdinetatik iristen dela bere tesi hori finkatzera. Bide bat, agerikoa, bere razionalismo neotomista da. Bestea, ikusi baino gehiago usnatu egiten dena bere arrazoipideetan, garai batean aski arrakasta izan zuen joera zientifiko-filosofiko izpiritualista da, hots, filosofikoki nolabait Bergson-en hurbiltasuneko zientifiko frantses batzuegandik ikasia izan litekeena (Alexis Carrel, P. Lecomte de Noüy, orain aski ezagutzen ez ditugunak), horiek Jainkoa kasik eboluzioaren eta giza-izatearen exijentzia bat bezala aurkeztu baitute. Salaberryren hizkuntzak batzuetan holako ideien oihartzuna dirudi. «Ene sinestea [beraz, hau, sineste bat soilik da], oldar bat badela gizonean, Jaungoikoak kokatua, altxatzen duena gizona goiti, Jain-

koaren ganat. Arbola badoa iguzkirat, gizona Jaungoikorat» (ES, 187). Hau dena hobeto azertu beharko litzatekeen gaia da, hartaraxe jarrita, Salaberryren irakaskuntzak, ikasleei gomendatzen zizkien irakurgaiek, etab., ea argirik bide honetatik ematen duten xeheki bilatuz. Lehen eta inportanteena, bide razionalista, errazago egiaztatzen da. «Que la moral suppose l'existence de Dieu», badakigu, sinesgabeen aurrean ja presokanpoan, mailaz maila ongi argudiatu, konbentzimendu guztiarekin defendatu duen tesia zela, horrek bere irakaskuntzako parte egiten zuen seguru-erik Seminarioan. Gizakiaren gizatasunezko harreman baterako gizakiarekin nahiz gauzeekin munduan, fundamentua eta elkarlotura, Jainkoak bakarrik eman lezake razionalki bermea. «(...) On ne passe pas plus de l'homme aux choses, qu'on ne passe de l'homme à l'homme. Dieu est partout le troisième terme indispensable. En Dieu, les êtres et les choses trouvent un dénominateur commun. Par l'intermédiaire de Dieu, l'homme pénètre dans les choses. Par la voie divine, il parvient à l'homme. La médiation s'exerce par Dieu. Il n'y a pas de communion avec les hommes, sans union avec Dieu». Salaberryk badaki, de fakto gizartean badaudela sinesgabeak moral bikainekoak, «humanistak», Camus-en *La Peste*-k (1947) Tarrou-rekin «saint sans Dieu» erakutsi nahi izan duen bezala. Baina Camus-ek inolako fundamenturik gabe utzi du espresuki moral hori. Eta Salaberryrentzat, egon badago moral humanista hori, baina «l'humanisme, qu'il fût chrétien ou païen, ne me semble jamais avoir été que le résidu d'une religion chrétienne ou païenne déjà évanouie. Un épiphénomène qui survit à un phénomène disparu». Baina ez dira gauzak nahastu behar. Hau dena eraiketa teorikolari erreferitzen zaio, ez bakoitzaren plegu eta portaerari. Esan nahi du, moral bat teoriko-razionalki oinarritu, ezin dela egin Jainkoa gabe (ez da esaten, baina barnebilki suposatzen isilik, moral absolutu bat nahi dela!). Aldiz, portaera mailan, beranduenik presokanpoan tolerante izaten ikasi du. Ongia, Jainkoagan sinestunak hala sinesgabeak berdin egin lezakete, eta haren obra berdin da Jainkoaren obra. Are, sinesgabearen humanismoan badago «jakinduria» (egia) bat, sinestunak begiraundu eta miretsi egin behar duena.

Idea hauetan ere logikoki eboluzio bat itxaron zitekeen behar bada. Ez da halakorik nabaritzen. Inongo esplizitoena *Ene Si-*

nestea-n eta *Beñat adiskide*-an azaltzen dira hain zuzen pentsamenduok. Ez dugu horietako testuak arakatzuz luzatuko. Pixka bat paradoxala irudi dakiok irakurleari, hala ere, kristau fede errebelatuari Salaberryk ezagutzen diola eboluzio bat –historia–, aldaketa (ES, 13-14), eta gizartearen eta moralaren fundamentazio razionalari nonbait ez. Baina horixe da kontua azken batean: Salaberryren arrazoimena denboragabekoa, eternala, ez historikoa da, Descartes-ena bezalaxe.

Bestalde, alabaina, Jainkoa misterioa omen da. Zalantza gabe, Garrako edo Heletako Jainkoa hala da, fedekoa. Filosofiakoak misterioa ez luke haizu izan behar. (Pentsamenduan dagoen eta egon daitekeen ideiarik «egiazkoena, argiena eta bereziarena» dela Jainkoarena, esan zuen Descartes-ek; ez da, beraz, $2+2=4$ baino misteriotsuago. Kant-entzat arrazoimen hutsaren Ideia erregulatzaileria da, eta praktikokoaren postulatu logikoa). Salaberry fedetik filosofiara eta filosofiatik federa, aitortzara, naturaltasun guztiarekin pasa ohi da, ibilbide horietan ohitugabeari arazoak sortuz jarraitzeko. Fededunarentzat bai, balio du «nolako gizon, halako Jainko» (ES, 42), h. d., nolako kultura, halako Jainkoa, Xenofanes-ek jada aspaldi ohartua. Orduan ulertzen dugu fedea historia izatea, behar izatea izan, gizonak historia badu. Hala euskaldun fededunak Jainkoa «Laborari xaharra» izenda dezake, «auzo balu bezala» (ES, 82) (ez «urrun baino urrunagoa»). Eta Salaberryk hemen, bere buruaz mintzatzea Jainkoaz mintzatzea dela, aitortzen du; Jainkoaz mintzo denean, bere buruaz mintzo dela. Izan ere, bera fedearen produktu bat da →Ene sinestea xurgatu dut Uhaldeberriko Dominika amañoren esnearekin» (ik. ES, 42 eta hurr.)–, txiki-txikitatik bere nortasun osoa fedearekin oratua. Jaio eta bizi denez gero, berari denak fedea barneratu dio, naturalki «euskaldun fededun» da (ES, 68-69, 71-72). Hala sortetxeak: «burasoen, ahiden, auzoen bihotz azkar zabaletik sartu da sinestea ene bihotz ahul ttipitorat. Murrak ere bataiatuak dira giristinoen etxetan» (ES, 72); mintzatzen ikasteak: ordu berean sortu da «elerat eta federat» (Ib.); inguruko gauzek eta jendeek: «orobat, batere ohartu gabe, ixil-ixila Jaungoikoak betetzen ditu haurren gogo-bihotzak, herriko jendeak eta gauzak ararteko» (Ib.). Bere haurtzaroaren gozotasun guztia Jainkoaren gozotasuna da: «Aita-ametari nuen sinestea banuen Jainkoa baitan, ikasia ukaitea gatik zela Aita guziz amultsua. Bertzeen solasari beharria ema-

nez, gira gure buruari sortzen» (Ib.). Bere gizontasuneko elorriean: «Gerlak finkatu dauzkit Heletan katiximan ikasiak. Sineste bera, ez hitzez, bainan gertakariez, xixela batez bezala, barnatu» (ES, 169). Sumarioki: Salaberryren gizon egitea eta fededun egitea bat izan da. Gero, bere gizon izatea, fededun izatea. Bera bere sinestea da; eta «ene sinestea, Euskal-Herri giristinoak urri-rik eman dautan sinestea» (ES, 42-43). Salaberry hauraren esperientzi mundu gutzia –ez abstraktuki: baizik etxea, herria, herriko jendea, Iturralde mendi kaskoa, Muane gaina, Baigurako bizkarr– Jainkoarekin lotua dago (ik. ES, 72). Bere munduko gauzak, jendeak, Jainkoaz mintzo zaizkio. Beti. «Ez dut dudarik ukan, ez Jaungoikoa baitan; ez Jesus Jauna, ez Izpiritu saindua baitan, ez Birjina saindua baitan», aitor dezake bere oroitzapenetan (ES, 188). Hobeto ulertzen dugu horrela –esperientziaren espresio eta fedezko aitortza gisa– Jainkoa izatea gizon-emakumearen elkarloturaren zimendua gizon-emakumeekin nahiz gauzekin.

Laket zaio Salaberryri «Laborari xaharra»rena errepikatzea. Baina zein da egiaz euskaldunen –Salaberryren– Jainkoa?

«Haurrean beti eri izan naiz. Ez dakite osagarria dutenek haur eri ahularen zorigaitza. Bertzeak pleka, eta hura so. Bertzeak balonean, eta hura eleka (...). Bortz urte nuzkeen, nunbeit-han, eritasunak ezarri ninduelarik, biziko dea? hilen dea? bilintzi-balantzan» (ES, 58-59). Amak haur gaixoarekin zer ardua izango zuen, haurrak zer kuriak, zertako aipatu. Jaungoikoa, ikasi du, «Aita guziz amultsua» zuela (ES, 72), bere aita ez bezala... Uste dut, atentzioa ematen baitu, euskaldunen fedez diharduela, Salaberryk maizena ateratzen duen arazoa, jansenismoarena dela, ia beti salaketa horretatik babesten saiatzen bada ere. Berdin, Elizaz eta fedez diharduela, teo ala antropozentrismoaren arazoa du ia beti galdera fundamentalak, hau berau Saint-Cyran eta Loiolarekin asoziatu ohi baitu berak. Esango litzateke, bere buruarekin borrokan bezala ari dela, euskal fedearen jansenismoa aitortu nahi ez eta ukatu ezin.

Salaberry, bere esanean, haur introbertitu bat izan da, «barnerat itzulia» (ES, 61), amestia (Ib.), «burua beti nunbeit alhan» (ES, 30), baina «denetan usnaka eta gogoetaka ibiltzeko zakur ihiztorra» (ES, 34). Hezkuntza deboziozkoa izan du, seguruenik garai batean ohiko estua. Zahartzaroraino gogoratuko ditu egunoroko

errezoak etxean. Osasun handi gabekoa txikitari, gero estudiantetan ere, makal ibili da beti soldaduskara arte (ES, 60, 94). Mutiko gaixo horren berezko fantasia eta jakin-mina, entzundako istorioak, haren irudipenak eta beldurrak, suposatu beharko ditugu tartean nahasiak, berak kontatzen duen txikitako ikuspen estraino bat esplikatzeko. «Zer nukkeen? Bederatzi urteko hori. Ametsetan banoa Garrako zipuaren ondotik eta ziputik jalgitzen da gizon begitarte itsusi bat, arpegia irri maltzur batez gainerat eta bazterrerat zabaldua. Jalgitzen da jauzian, gerriraino altxatzen, eta berdin urerat itzultzen jauzian» (ES, 62). Satiroaren bat-bateko agerpenak Garrako osinean harritzen bagaitu, ez gutxiago Salaberryren azalpenak. Haurraren izu-irudipena (haren errealitateaz dudatzeko arrazoirik batere ez daukagu noski), ez ikusi edo entzundako ezeren, baina etorkizunaren «agerpen» bat bezala eta zentzu moralean interpretatzen digu berak, Jung-en psikologia analitikoaren eta arketipoen laguntzarekin antza, Ongiaren eta Gaizkiaren itxurekin: «zerautan jaidura onekin, nahasiak daudela jaidura gaixtoak, hur garbiarekin lohia» (Ib.). Garra inguruak, Jainkoari lotuak ziren bezala sentimenduan, Ongia eta Gaizkiaren eskenategiak haurraren fantasian.

1950ean, euskal karakterraren ezaugarri bat bezala erlijiositate sendoa aipatzen da: «Il aime à s'entendre rappeler les vérités foncières qui dessinent les points cardinaux de notre géographie morale. Il aime les entendre répéter avec une vigueur que les prophètes n'eussent pas désavoué. Peut-être, sa religion renferme-t-elle quelques résonances de l'austérité biblique, mais ne l'accusez pas de jansénisme» Modan jartzen ari den sentimentalismo belaxkari kontrajarriz, «sa spiritualité demeure encore une spiritualité de l'énergie», baieztatzen du. 1956an herrietako misioak gogoratzen ditu: «après les fatigues du jour, dans les ténèbres de la nuit, présentent à chacun, le tableau pathétique de la destinée humaine. Le Basque aime à tressaillir, au su et au vu des ravages terribles du mal dans le monde. A son âme forte, il faut une vérité forte». Jansenismoaren kritika edo karakterizazioetik berriro defendatzen du espresuki. 1964an, Kontzilioarekin kristautasuna liberalagoa izaten hasia da, Teilhard-ekin enplegatzen da bera, ez da urruti euskal fedean jansenismoaren onarpen batetik. Agian argigarria da aitortza hau Garrako zipuan ikuskari bat izan duen mutikoarentzat ere: «Pour tout Basque, l'expé-

rience du péché est l'expérience première à partir de laquelle il s'ouvre à l'expérience de la grâce». Honela derizkio orain euskaldunari buruz, existentzialismoaren ez maitaleak: «Un existentialisme informulé vibre dans son esprit». Beti ere gaitzeskor darrari Duvergier de Haurraania d'Etabheverryrekin, baina onartzen zaio, «(il) avait puisé, dans la gravité euskarienne, le sens du péché qui devait pourrir chez lui en noir pessimisme». Aita Pierre Lhande –jansenismoaren kritikaren abiatzailea– gaitzesten da, hala ere («il céda un jour à la mauvaise humeur»). 1978an, azkenik, ez zaio arrazoi eman nahi Lhanderi, baina ezagutzen da: «Orai arte, aitor dezagun Euskaldunak bizi izan girela hurbilago Duvergier de Hauranne aitasotik ezin-ez eta Iñaki Loiola arbasotik. Duvergier de Haurannek ditu aizkorastatu gure aurpegia kanporat, gure sinestea barnerat» (ES, 82).

Salaberryk berak, pertsonalki, ez dirudi deus jansenista. Festak, esango genuke bere argudio batekin, inportantzia gehiegi du haren bizitza eta fedean. Euskaldun-fededun sortu gisa barne barnagoan zerbait jansenista izan bada apika, bere eboluzioan jansenismoaren ihesi ibili da. Eta zerbait sanfrantziskotarra du –behin baino gehiagotan aipatu izan du «Anaia Eguzkiaren kanta»– bere Jainkoa eta natura bateratuaren ikusmoldeak. Honela ikusi du bere Meza Berri egunez Heletan mundua: «Agorri-laren [abuztua] erdia, udaren betea, alegrantziaren osoa! Jaungoikoaren aintzinean, auresku dantzan ari arbolak, auresku dantzan ari mendiak, auresku dantzan ari ibaiak, zero urdin kasakoan auresku dantzan ari iguzkia. Eta bere xilo kafiratik auresku dantzari beha iturri-mikoak» (ES, 102).

Gizon-emakumea

Salaberry –bidaiatu ere gustura egin dena– hagitx interesatu izan da beti jendeaz, usadioez, jendearen bizimoduaz, patuaz. *Omenaldia*-n, J. B. Dirassar-ek «jendetasunaz duzun arrangura guziz handia» nabarmendu du harengan. «Jendetasunaren grina hori hazten duzu, nahi baituzu gizonari beti Zu errana izan zaion. Gizona ikusten duzu beti ahal bezen gora, eta ez duzu nahi apaldua izan dadin. Gizona ikusten duzu beti xutik, eta ez herrestan». Liburuxka horretan bertan irakur genezake horren egiaztapena, galdeketa bati Salaberryren erantzunetan: «Gizon hi-

tzak badu euskaraz indar bat haundia, bertze asko hizkuntzetan ez duen indarra. Gizona ez da zerbeit, bainan norbeit. Gizon dena ez da emaiten belauniko mundu huntako jauneriaren oinetan. Ez da haren aintzinean emaiten buru-has. Ez du kentzen xapela Jainkoaren aintzinean baizik».

Descartes eta kartesiarren batzuk aparte bederen, filosofia frantsesa ez da izan espekulazio metafisikoen zalea. Montaignez gero, ordea, filosofia frantsesaren iker eta gogoetagai nagusia gizakia da, Ernazimentuari segida emanez (Descartes eten bat da Ernazimentuarekin). Moderniaren hastapenean «la vraie science et le vrai étude de l'homme c'est l'homme» sententziatu du Charron-ek (1601). Gizakia ez da noski filosofia frantsesarentzat bakarrik gai nagusia. Berdin esango du XVIII. mendean Pope ilustratu ingelesak: «the proper study of mankind is man». Eta Lessing ilustratu alemanak: «gizakiaren jardunkizun nobleena gizakia da» («die edelste Beschäftigung des Menschen ist der Mensch»). Filosofia guztia antropologian laburbiltzen zuen Königsberg-eko Maisua aipatuz jarraitu ahal izango genuke. Edo Goethe-ren *Hautuzko kidesunetan* (II, 7) Otilie-ren egunkariko azken hitzok, maiz aipatuak: «Gizadiaren zinezko estudioa gizakia da» («... das eigentliche Studium der Menschheit ist der Mensch»). Sokrates ez dugu aipatuko, maiz aipatu duena Salaberryk berak. Baina badago gizakiaren estudioko tradizio frantses nahiko espezifikoa bat, moralista handietan mamitu dena, bai pentsamendu bezala eta bai estilo –kasik genero– literario bezala: Montaigne, La Rochefoucauld, Vauvenargues, La Bruyère, Chamfort, Rivarol (hau hizkuntza frantsesaren apologista olinpikoa orobat), Montignac-eko Joubert, Maine de Biran Bergerac-ekoa, Alain XX. mendean. Salaberry hauen tradizioan dago, nik uste, eta hauetako batzuen estilo aforistikoa imitatzen duela ere, esango nuke, esaerak moztuz eta bihurrituz, sententzia modura estutuz, pentsamendua trinkotzeko adina korapilatzeke balio duena batzuetan.

«Ihateriaz bezala, maska eskoil bat dauka gizonak begitar-tean. Ken maska» (ES, 117). Zer da andre-gizona? Galdera hau zentrala da Salaberryren gogoeta guztian. Zuzenean planteatua ez dagoenean ere, bere ikusmoldeen ardatza hori du; horrek erabakitzen ditu filosofoen bere balioespenak (Marx-ena, Sartre-na, etab.). Gizakia ez da zerbait, norbait da. Helburu bat da, eginki-

zun bat. Erronka bat. Andre-gizon konkretua historiaren, garaia-
ren, herriaren, etxearen, erlijioaren sintesi eta produktua da. Mis-
terioa. «(...) Ohartu naiz, aldi guziz, gizonaren bizia dela antzerki
bat, askotan lazgarria, askotan irringarria, askotan goxagarria,
beti miresgarria» (ES, 42). Azken batean andre-gizonaren Sala-
berryren kontzeptua, haren fedea da, Jainkoarena bezalaxe. Gi-
zakia, Jainkoaren haurra, sakratua da. Gerrako eta Stalageko es-
perientziak berretsi eta finkatu duten fedea.

«Gerlak finkatu dauzkit Heletan katiximan ikasiak. Si-
neste bera, ez hitzez, bainan gertakariez, xixela batez
bezala, barnatu.

Urriki izan behar dela gosea jasaiten duen jendeaz, ala
Frantzian, ala Alemanian, ala Afrikan, ala Asian. Go-
seak desegiten duela gizona. Gizonetik egiten hatsdun
itzal bat.

Ez dela behar baliatu bertzeaz, xurgatu haren izerdia,
ez balitz bezala gizona, bainan indartsu laneko besoa.
Eta hori nun-nahikoa izan dadin langilea. Izan dadin
xuria ala beltza.

Bi bekatu horiek haundi. Bada bat haundiagoa. Gizo-
naren akulatzea hil dezan gizona. Hisiaren kitzikatzea»
(ES, 169-170).

Presokanpoak lezio bera irakatsi dio: «Nortasuna, Askatasuna,
Adixkidetasuna, hiru hitz horiekin eginga da, gizonak gizonen
daukan fidantzia. Nortasuna, hura gabe deus ez baita sortzen.
Askatasuna, hura gabe deus ez baita bizitzen. Adixkidetasuna,
hura gabe deus ez baita zohitzen» (ES, 151-152). Aforismo hau
Omenaldia-n, Salaberryren pentsamendu funtsean teologikoare-
kin adosago, beste aldaki honetan aipatzen da: «Jainkotasuna,
Askatasuna, Nortasuna, hiru pilar hoién gainean dago jarririk
Jendetasuna».

Salaberryk nola ikusten duen, zer den gizon-emakumea, hona
hemen bost ohar, hurbilketa gisa:

1. Jendea, pertsona, denborak egiten du: tradizioak, historiak.
Gizakiaren berezitasuna da -zerki materialen eta abereen al-
dean- denborazkotasuna. Iragana gure orainaren parte da.

Hala, Beñat euskaldun gazteak 5019 urte ditu: bere-bereak hemeretzi eta euskaldunarenak 5000. Iraganari izana zor zaio eta esker ona zor zaio. «Gizon eskualdunak badu zerbeit onik. Ezagutzen du, dituen guziak zor dituela, denbora nasaiari; denbora izan dela, haren ohako bazterrean, emaintzat estali duen aingerua. Bera izendatzen da Eskualduna, edo solas eskuaraz orhatu gizona. Bera baino gorago ezartzen du denborak ekarri Eskuara. Ukan ontasuna ez du arnegatzen. Ukana, harentzat ohore. Ukana, harentzat, izena». Iragana egitekoa ere bihurtzen da: «Arbasoetatik ukana, iker-zak, hiretzeko, hiretzat zabaltzeko, zabal-zak aintzintzeko», aipatzen du behin (autorea izendatu gabe eta ohi duen libertatez adaptaturik) Goethe-ren esaldia, beste leku batean Pindaro eta Nietzsche aipatu dituen bezala (ES, 173). «Denborak, bere harat-hunatean, errebelatzen du gizonaren gogo».

2. Bere garaiak egiten du andre-gizona, Irulegiko ardoaren kerua bezala (ES, 5). «Eremuan bezain barna erroztatua da gizona bere denboran eta bere aretan, edo hobeki, bere denborako aretan. Bi zango baditu gizonak, bat atxikitzeko tente eremuan, bertzea begiratzeko tente denboran. Ez ditake ibil, ez ditake xutik egon, zango bat baizik ez badu, atxik dezan sarturik ala eremuan, ala denboran, ala eremuko, ala denborako aretan» (ES, 5).
3. Bere herriak egiten du andre-gizona. Andre-gizonek herria bezala, herriak andre-gizonak: «Ezen gizonek oratzen badute herria, herriak, bere aldetik, oratzen du gizona. Gizonak egiten duela herria, egia haundia. Herriak egiten duela gizona, egia: bi egietarik haundiena» (ES, 43). «Bera ohartu gabe, hazten du haurraren gorputza esneak; bera ohartu gabe, hazten ditu haurraren gogo-bihotzak kantuarak, eta kantuari esker, herriak» (ES, 73). Salaberryk maiz gogoratu eta azpimarratu duena da hori. «Herriak egiten du gizona. Gizonak begiratuko du betikotz bere izaitean, sor-tokiaren eta sort-urtearen hatza. Sor-tokiaren eta sort-urtearen leihotik sartzen da herria gizonaren izaite barnerat» (Ib., 74). Gerrak bere fedean gizon-emakumeagan nola sendotu zuen, gogoratzen duelarik, fede honetan maisurik hoberena herria izan duela, aitortzen du: «Ez nuen katiximarat joaiterik, katiximak erakutsi, gerlak barnatu erakaspenaren ikasteko. Aski nuen beharri emaita, gazteek herri bateta

rat heltzearekin eman jendetasunezko kantuari. Garbitzen du bihotza razizmotik, aiherkundetik, erdeinutik, bertzeen apaltze eta zapaltzetik... *Agur Jaunak, jaunak agur;/ Agur t'erdi.../ Jaungoikoak eginak gire;/ Zuek eta bai gu ere*» (ES, 171).

4. Etxeak egiten du gizon-emakumea. «Gizonak egiten du etxea, bainan etxeak egiten du gizona. Etxeak emaiten dio gizonari, gizon izaiteko behar duen axola, arrangura, laneko karra. Nolako xori, halako ohantze eta nolako ohantze, halako xori» (ES, 32).
5. Etxeak, herriak ematen diote andre-gizonari fedea. «Herria, haur ttipiari altzotara bat bihi ekarriko dion ama bihotzduna. Bihien artean, fedearen hazia» (ES, 45). Eta fedea egiten du gizakia.

Bere testu goiztiarretako batean, Salaberryk gizon-emakumeari buruzko filosofia batzuk erreparatzen ditu, kristautasuna dela, konkluditzeko, haren balio gorena aitortzen eta gizartean ziurtatzen duena:

«Chrétien, vous devez vous souvenir que l'amour est vie de Dieu, et vie des hommes et que celui qui se fige, implacable et buté, sort de la vie humaine et divine. La haine est païenne; elle est le châtement de ceux qui ont renié Dieu; le nôtre, chaque fois que prenant conseil de notre passion, nous nous détachons de notre Père miséricordieux. Alors, joyeux de débrider nos instincts, nous répétons peut-être: Enfin, je suis libre!, «l'homme est un dieu pour l'homme» (Feuerbach). Mais il nous suffit de très peu de temps pour nous apercevoir que dans cette tempête de désirs affolés, selon un mot également illustre: «l'homme est un loup pour l'homme» (Hobbes), et que ces deux formules qui semblaient opposées, en réalité solidaires, se succèdent, se remplacent, se substituent et forment sans doute l'équation de l'orgueil humain, mais aussi l'équation sanglante de nos douleurs et de notre malédiction.

Tous enfants d'un même Dieu, nous devons vivre dans le pardon et la paix, opposant à ces cruelles maximes,

la devise du sage antique: «L'homme est un ami de l'homme» (Aristote); un chrétien corrigera: «L'homme est un frère de l'homme».

Kristautasuna –Jainkoa– galdurik, gizatasuna galtzen da berehala, Salaberryren esanean. Hau haren gizakiaren gogoetan konstante bat da. 1950ean honela zioen, filosofia modernoarekin kritikoa: «Le mythe de l'homme contient le ferment de sa propre destruction. Cet humanisme rogné s'est révélé le plus pernicieux des attentats contre l'homme. Un crime et qui tue. «Dieu est mort», hurlait de joie Zarathoustra. Non, Dieu est toujours vivant, mais l'homme, comme sur les toiles de Picasso, gît dispersé en tous sens, pitoyable victime. Il n'est plus un sujet; il n'est plus qu'un objet. C'est lui qui est désarticulé, c'est lui qui est cassé». Eta 1981ean «gure Jaungoikoaren alderako fedea baita kordokatu, gure gizonaren alderako sinestea zaikiguk malapartatu», idatzi dio Beñati.

Gizon-emakumeaz Salaberry ez da filosofiko-teologikoki bakarrik interesatu. Soziologikoki, antropologikoki, interesatu da orobat. Psikologikoki. Herriez eta historiaz interesatu da. Egunoroko andre-gizonaren bizitzaz interesatu da, haren heriotzaz. Eta izan du zaletasun bitxi bat ere, bitxia baino arriskutsuagoa agian: fisionomiaren bidetik jendearen barneratzekoa alegia, andre-gizonak beren sekretuenean ezagutu ahal zituelako ustean bere zolitasunarekin. Salaberryk ez du nahi jendearen irudi edo itxuran gelditu. Jendea barrutik ezagutu nahi du. «Ez dut gordeko idatzi du berak–, telebixtan agertzen delarik politika gizon zonbeit, egoiten nitzaiola haren begitarte zabalduari hurbiletik beha eta beha, begiak akituak, uste baitut, lehen aldian, lehen bizpahiru minutetan, edozoinak uzten duela jalgitzerat barneko xedea, eta hori begitarteko tindu eta ele jukutria guzien artetik» (ES, 7).

Dena den, gizakia, bere fisionomiak erakusten duena baino, gehiago da. Gizakia zer den zinez barnatzeko, hiru mailatan hartu eta gogoetatu behar da hura. «Hiru irakurtze egin ditzake gizonaren jiteaz. Hiru mailen arabera irakur ditake gizonaren jitea. Ixtorio egileak irakurtzen ditu kanpoko obrak, gerlak, auziak, haundi-maundien zalapartak eta aberekeriak. Pzikologia egileak irakurtzen ditu barneko xedeak, ikusten borroka ari

ongia eta gaizkia, erakusten gerlari basa bezperan egona dela haur eriaren ohe-aitzinean, gau guzia, egiazko aita. Teologia egi-leak irakurtzen du Jaungoikoaren amodioa dela gizonaren erroa (...). Hiru irakurtze, hiru mail, hiru begi. Eta hargatik hiru solas (...). Ez dute batek bertzea ordaintzen bainan batek bertzea lauzkatzen» (ES, 117-118).

Euskalduna, Euskal Herria

Frantziako Iraultzaren printzipio ezberdinen gainean azentuak modu ezberdinetan bana zitezkeen, eta berdintasuna azentuatzen zuten intelektualen artean, herriaren kultu «antiburges» bat garatu da XIX. mendean (burgesia handia, geroz eta gehiago, noblezia uzkailliaren berdina ari da bilakatzen). Joera burgestxiki edo intelektual honen gailurrak dira Michelet-en *Le Peuple* (1846) eta V. Hugo-ren *Les Misérables* (1842-1845 artean jada lehen erre-dakzio bat omen zeukana, 1862an argitara den arren). Herri mitiko bat da, herriaren ideia platoniko bat, hor deskubritzen dena, ez hor edo hemengo jendeagan aurki daitekeen herria. Michelet-ek soberan zekien hori berak: «Le peuple, en sa plus haute idée, se trouve difficilement dans le peuple (...). Il n'est dans sa vérité, à sa plus haute puissance, que dans l'homme de génie. En lui réside la grande âme». Gero, Herder, Grimm eta influentzia alemanaren pean, herriaren jeinu edo arima hori folklorean, herri kantetan, ahozko literaturan bilatuko da. Lerro berean, Salaberryren euskal herria ideal samarra irudi dakiguke, selektibo samarra gutxienez: herriaren jeinua bertsolarietan ageri da; dantzan, pilotan, irrirtzian, hots, espresio artistikoetan nolabait, espontaneoetan. Ez ditu ahaztuko, haatik, herriaren fedea, moralak. Herri zoragarri bat agertuko da beti, nolana ere.

Bestalde, Lehen Mundu Gerraren ostean, halako triskantza irrazionalera ekarri duen arrazoimenari zaputz eginez, uko handia zabaldu da Frantzian arrazoimen harekin identifikatzen zen positibismoari, zientismoari, liberalismoari berari, aldi bereko psikoanaliaren goraldi bortitz batekin, surrealismoa eta Maurras¹⁵ bezalako muturrak lotzen zituena, Bergson-en «élan vital»a, herrien psikologia (Le Bon), gure baitan adimena baino barnago mintzo den arbasoen mintzoa (Barrès-en «instintoa»), denak inkontzientearen aurkikuntzak mila moldetan. Salaberryk euskal

psikologian, ariman, hizkuntzan, antzinatean zulatu (nahi)ko du: zer garen, bila, indibidualki garena baino barnago, euskal nortasunaren erro ilunetan ikertuz. Aldi berean, Euskal Herria, «Chailot-eko eroa»ren gisan, gizarte moderno galdua salba lezakeen «eroa» bezalatsu –txiro, marginatu, eta bera hala ere salbatzaile–preziatuko da. Ez Teilhard de Chardin, edo Teilhard-en gizona, Euskal Herria da eredu bat eta esperantza bat munduarentzat¹⁶.

Izan ere, mendebale dekadentean uharte bat bezala, Euskal Herria bere antzinateko jatoriasunean kontserbatzen da base-rrian. Hiriak desgizatu egiten du (presokanpoek bezala!)¹⁷. Salaberryk interpretatzen du, udatiarrak naturaltasun bila etortzen direla Euskal Herrira. «Sitôt l'été venu, d'innombrables touristes y dirigent leurs pas. Saturés de décors artificiels usés par des cadences mécanisées, ils n'échappent à l'épuisement que par la quête de sites où la vie a gardé sa spontanéité»¹⁸. Modernitate beti partzialaren aldean, euskal jeinuak¹⁹, euskal Weltanschauung edo bizi-filosofiak, hori dago usadio, kanta eta atsotizetan hedatua²⁰, eta festan ez azkenik²¹, humanismo oso bat aurkezten du. Salaberryk behin baino gehiagotan humanismoaren sintesi bikainena bezala aipatzen duen honen karakteristikak, fedea, lurrarekiko atxikitasun eta taldearen zentzua (fami-liarena partikularki)²², eta festaren izpiritua dira (kanta²³, dantza²⁴, pilota²⁵, irrintzia²⁶ aipatu ohi ditu). Ideia hauek xehekiena «L'Homme basque» saioan jorratu ditu, euskal nortasuna eta mentalitatea hiru atxikimendu edo eraspenetan laburbilduz: «rattachement de l'homme à sa terre»²⁷, «rattachement de l'homme à sa famille»²⁸, «rattachement à Dieu». Euskal Herria lehen-lehentiariki ez da jendetza, arraza, edo lurraldea, erakunde sozial eta politikoko batzuk, hizkuntza bera ere, izpiritu hori baizik, humanismo edo moral bat. Hori gabe Euskal Herririk ez²⁹. «La définition du Pays-Basque ne se trouve pas dans une géographie; elle se trouve dans une idéographie. Ses contours ne sont pas d'ordre physique; ils sont d'ordre métaphysique. Son âme est constitué par la foi en Dieu, condition de la foi dans l'homme. La fête la pourvoit de jovialité et le travail quotidien de sérieux»³⁰. Lurraldetxo eredu bat, hitz batean. Europa berriarentzat «le Pays Basque a des idées à vendre, pour que sur l'univers triomphe l'an 2000»³¹.

Politikoki, Euskal Herria bakezale eredu da: «Etrange peuple, en somme, que le peuple basque! Il ne se réunit point, comme d'autres, à l'anniversaire de grandioses et sanglantes victoires pour exalter le souvenir de ses morts. Il se rassemble autour de ses *dantzari*, autour de ses *pelotari*, autour de ses *bertsulari*, autour de ses *kantari*, autour de qui es vibrant et vivant...»³². Egiatzko batasunaren eredu da, diferentzien begirunetsuarena, «Zazpiak bat» goiburuz: «Zazpiak bat» dio euskaldun oihuak. Bat, bainan zazpi. Zazpi, bainan bat. Frantziak bere buruz dio: «Bat eta ezin behexia». Euskal-Herriak: «Andana eta bat». Lehen hitza atzoko munduaren gakoa. Bigarren hitza biharko munduaren giltza. Lehenetik jalgitzen zapaltzea; bigarrenetik laguntzea. Lehenarentzat askatasuna ainitzi kendu behar, bati emaiteko; bigarrenarentzat askatasuna orori eman behar, bihi bati ez kentzeko» (ES, 175)³³. Berdintasun eta anaitasunaren eredu, «Agur, Jaunak» diosal kantak adierazten duen bezala: «Denak Jainkoak eginak gire» (andre-gizon denok berdinak gara, denok haurrideak, Aita baten haurrak)³⁴, hori «Eskual-Herriak munduari eskaintzen dion gakho urhea» baita³⁵. «Aussi l'égalité est-elle de toutes les règles celle que le Basque estime la plus nécessaire dans les rapports interindividuels (...). L'égalité est le corollaire de la primauté de l'homme»³⁶. Euskalduna berez da demokrata: «En France, on bavarde beaucoup sur la démocratie, mais on n'est pas démocrate (...). A Pays basque le démocratie va dans le sens de la race. En France, et peut-être dans toutes les nations filles de la Rome impériale, ce n'est pas la démocratie, mais l'autocratie qui constitue le centre de gravité de la nation. Au contraire le Basque, né égalitaire, est naturellement démocrate»³⁷.

Individualki, herriak egiten baitu andre-gizona, bistan da, euskalduna ezingo dela ereduazkoa baino izan, ondorioz. Euskalduna, oroz gain, «gizona» da. «La place centrale faite à l'homme par notre civilisation transparait jusque dans le langage», gorago ohartu izan den bezala³⁸. «Gizona», être un homme, être tout en homme, voilà le maître-mot de l'éloge dans la civilisation basque (...). On peut être pauvre, ignorant, démuné de pouvoir et cependant être appelé «gizon», du seul titre de noblesse que a cours au Pays basque»³⁹. «Gizon» izateak libre, noble, jaun izatea barnebiltzen du. Bere buruaren jabe eta nagusi, irrintziak espre-

satzen duenez: «De cette terre, les petits êtres que marchent, sont les maîtres absolus»⁴⁰. «(...) L'homme basque, l'homme tout court, doit rester *Jauna*, ce qui veut dire, en prenant ce terme au pied de la lettre, *un monsieur*»⁴¹. «Selon la voix unanime, le Basque se rattacherait au principe d'autorité. Et chacun de mettre l'accent sur le prestige de l'homme, de l'Etabheko jaun, dans sa maison; du curé, sorte d'Etabheko jaun religieux, dans son église. L'un et l'autre sont des maîtres: *nagusiak*»⁴². «La Messe», Teilhard zuzendu/osatu nahi duen saioan, Jainkoa bera jaun da: «Dieu est appelé *Jaungoikoa*, le Maître d'En Haut (...). Dieu est le Très-Haut. Mais il demeure en même temps l'Etabheko-Jaun de la maison de l'univers, le Maître, le «Nagusia», du domaine qu'il a créé»⁴³. Jainkoa, apezka, aita familiakoa: autoritatearen ordena zuzena zeru goitik sukaldeko mahairaino.

Eta emakumea? «De même, nulle part l'épouse n'est davantage respectée, davantage écoutée. L'intérieur de la maison est un fief dont le maître, sous peine de disqualification, ne s'occupe pas. A elle le *bersulari* adresse sa première strophe, afin de la féliciter de l'excellence du repas»⁴⁴. Ikusmolde soziologista onean, etxeko andrearen beste lekuetan ez omen ohiko autoritateari, baserriko ekonomia landerlean bilatzen dio behin arrazoia⁴⁵. Baina egiazkoagoa iruditzen bide zaio antzina-antzinadaniko matriarkatuaren arrazoia, hizkuntzan bertan islatua begitantzen zaiona, euskarak ez baitu maskulino eta femeninoa bereizten: «Euskarak hitz lagun bera emaiten diote, ba gizonaren, ba emaztearen izenari. Euskarak bere solasetan ez ditu behexten arra eta emea. Biak ezartzen ditu mail berean. – Emaztearen apaltzea edo altxatzea bertze ozka batetaraino, bi iduripen, biak berdin okerrak. Aitak eta amak, elgarrekin hartzen dute hola edo hala jokatzekeo xedea» (ES, 52).

Bere aiurriari dagokiola, euskalduna borondateko andre-gizona da: «énergie du caractère», «force de volonté», «générosité»⁴⁶ nabarmentzen ditu Salaberryk haren ezaugarrien artean. Razionala da, ordea, are razionalista: «Il est né logicien; il y a en lui un cartésien qui s'ignore»⁴⁷. Autoritate eta ordenaren maitale, larderiaren etsai, esaneko, eskueraz, baina gorbizi: «car le Basque demeure rebelle à tout excès de pouvoir. Il est docile, il est malaisément discipliné», «il demeure un animal fier et qui facilement

se cabre»⁴⁸. Euskaldunaren aiurria kontrarioen sintesi bat da. Oso komunitatekoa, alde batetik, indibidualista amorratua da, bestetik, anarkiaraino. Indibidualismoa «volonté d'indépendance»-bere bizitegiaren moduan bertan suma daiteke: «une maison bien seule, avec quatre chênes qui veillent, tels quatre garçons robustes (...). La personnalité du basque a besoin d'une carapace de silence, qui en assure l'autonomie (...). De ces maisons éparées, il sort un grand cri de liberté qui facilement deviendrait une clameur d'anarchie»⁴⁹. Aldi berean, lagunarte eta festazale paregabea duzu, kanta, joko eta dantzazale⁵⁰, Salaberryk euskalduna «un animal qui chante et qui danse» bezala definitzeraino Voltaire-kin⁵¹. Euskal aiurriaren prototipoak San Inazio Loiolakoa («ce représentant privilégié de la race basque»)⁵² eta Frantzisko Xabierkoa dira⁵³. Ekintzako andre-gizona beti⁵⁴, bere ekimenarentzat espazio zabalagoen bila emigratzen du euskal ibar estuetatik Ameriketara⁵⁵.

Paradoxa ez ikustezina zera da: halako perfekzioak eta ederrak dituen herria, auzo jende eskas batzuen zangopean dagoela. Esplikazio bat galdatzen du, hain bikaina izanik, zergatik dagoen, dagoen bezala, ahul eta eroria, auzoek zapaldua. Izan ere, beste herriak gora joan diren bitartean eta indartu, «il demeure un peuple sans nation, une nation sans frontière, une frontière sans état, un état sans chef»⁵⁶. Bestetik, zapalketa guztiak milaka urtetan ez dute lortu herritxo hau itzalaraztea... Salaberryren erantzuna ebanjelioetan ikasia bakarrik izan liteke: «Peut-être la vocation du Pays-Basque est-elle d'enseigner à un monde durci par la méfiance, ces règles de solidarité organique par lesquelles il se maintient et de les pousser jusqu'à l'anormal, afin de les mettre en relief. Car le peuple basque est une oeuvre de Dieu, comme les autres, mais pourrait-on dire une oeuvre de jeunesse, tant les virtualités premières y demeurent confondues»⁵⁷...

Errealitateak problema zailagoak erakusten zituen, zalantza gabe, ideiek baino, Salaberry hain positibo batentzat ere. Ez du errealitatea ukatu. Emigrazioaren arloan, adibidez, ohartuko da –Garran ohartu ez dena ttipitan– «ezin bizia joka ari zela asko etxetan» (ES, 53), gosea etxean lagun gaiztoa dela (ES, 141). Ohartuko da hainbat etxe argi gabe, ur gabe, konfort gabe, haur guztiendako ez lan eta ez jan dagoela, miseria gorrian «oraiko

zorigaitzaren zorigaitza, lurrak ez aski emaita» (ES, 33)–, beste irtenbiderik gabe emigratzea baino⁵⁸. Matriarkatua gorabehera, ohartuko da berdin-berdinak ez direla etxeko jauna eta etxeko andrea: «Cependat, en dernière analyse, c'est l'homme qui tranche, c'est lui qui signifie la décision»⁵⁹. Ez, errealitatea ez zen ideiak bezain polita. Berdin berdintasunarekin. «Euskal-herria klasako mugarik ez duen herria», gozartu da behin. «Pilotarien artean ez duk larririk eta xeherik, ez duk ikasirik eta ez ikasirik, aberatsik eta behardunik»⁶⁰. Baina nagusi eta maizterrak bai, kaltetar eta baserritarrak, ugazaba eta jornalekoak, apez moltsadunak autoarekin eta astorik ere ez duten apezak, ikusi nahi dituenak erraz ikusteko diferentziak, badaude nahikoa. Gutxienez kale eta baserriaren diferentzia soziala (linguistikoa ere badena), berak egin du esperientzia Belokeko internatu eskolan, baserritarkumeentzat hiriko haurrak «les aristos» (ES, 84) zirenean, gero Seminarioan. Seguruenik Seminarioan ez zegoena, klase borroka baitzen, klaseak berak bai eta baita haur apalen klase konplexuak ere. Emile Larre haren ikasle ohiak honela gogoratzen du: «Jiten zinen zenbait aldiz gu ginen haur txarrari buruz: «Errak, hi baigorriarra hiz? Zer ari tuk hire aitamak, laborari? Euskaldunak? Ehizala beste horien beldur izan. Hoik bezenbat bahiz gero!» (...). Senditzen ginuen zure begia xehatzen eta ezitzen zela gu bezalako euskal etxetako, euskal lurrari hurbilenak ginen euskal lurraren umeer buruz»⁶¹. Eta Mixel Itzainak: «Nahiz «paysan» eta «basque» gu izan, eta beharbada hortako, gurekin zinauden goxoki solasean, mediku eta abokat semeekin bezein segur. Ez dakizu zer sokorria izan ziren, gu Euskaldun laborari seme ahulentzat, hiritar frantsesa errege zen erresuma ttipi hartan. Eta zu ideien gizona, zu gizarte guziaren anaitasunaren predikaria eskola salan, orroit zirea deskantsa lekuan, nola hiritar horietaz zuri pleñitu ondoan, atera daukuzun askotan: «Emakok, emakozute zanpaldi bat, eman ordaina!»⁶². Praktika hauetan, bere idatzi lerroetan adina ageri baita, Salaberryren egiazko pentsamendua euskaldunaz eta Euskal Herriaz.

Salaberry ez da eta ez du izan nahi neutrala. Idatzi duena, euskaldunak –burlatuak, gutxiagotasun konplexuak joak– adoretzeko idatzi du: Euskal Herria jasotzera, aurrenik, Europa egitera, tenore berean.

Europa

Mendez mende hainbeste gatazka eta azken mende erdian bi Mundu Gerra beldurgarriren ondoren Estatu europarren artean, Frantzia eta Alemania artean bereziki (Lehen Mundu Gerran 8,5 milioi soldadu hil zen, 2 milioi inguru zibilak; bigarreanean 27 milioi soldadu, 25 milioitik gora zibilak), Europako politika Batasunerantz abiatu denean 50. urteetan urratsez urrats mendeetako bulka nazionalistaren alderantzira, demokristauen biraketa historiko honek, Salaberry soldadu frantses eta alemanen preso ohiaren fabore sutsuena aurkitu duela lehen orenetik, ezaguna da. Haren europeismoa nabaria zen, bide hori Frantzian (eta Ipar Euskal Herrian) oraindik mesfida handiz ikusia zegoenean. Gai hau, artikulua handietakoa (aldizkari eta liburuetakoa) baino gehiago, egia da, kazetariaren lumakoa izan dela, eta beste lankideek arakatuko dute hobeto; alabaina, hemen ere aipatu gabe guztiz uzterik ez daukagu, nahiz laburki, kezka politiko nagusietako bat haren pentsamenduan horixe izan baita, eta Euskal Herriaren haren ideiarekin ezinbesteko osagarria.

Europako Batasuna, Salaberryrentzat, a) Europak behar du, b) Frantziak behar du, eta c) Euskal Herriak behar du. Estatu gabeko nazioen esperantza bakarria Europa da; euskaldunena bezala, noski, bretoi, kortsikar, eta abarrena. Frantziak behar du: eta ez koloniak «salbatzeko» bakarrik, momenturen batean arrazoi hori kasik nagusia bezala agertu badu ere (50. urteetan)⁶³. Nazio txikiek (Euskal Herria, etab.) ez daukate zereginik independente egonez; baina gaur Frantzia ere nazio txiki bat da, ezin da egon bere gisa independente, aparte⁶⁴. Batzuentzat hala besteentzat etorkizuna Europa Batua bakarrik izan liteke⁶⁵.

Salaberryk –beti koherente bere jarrera oinarrizkoarekin– arrazoi politikoak eta arrazoi erlijiosoak ematen ditu Europako Batasunaren alde.

Arrazoi politiko zenbaki bata eta funtsezkoa, atzo arteko europar Estatuaren txikitasuna da aro teknikoan: Estatuok oinez eta zaldiz zebilenaren neurrikoak dira; hegazkinaren aroan gaindituak daude⁶⁶. «Entre les frontières techniques et les frontières politiques, il existe une contradiction»⁶⁷. Teknikaren exijentzia da Estatu txikerrok gainditzea. Horrekin batera, errealismo politiko-

aren agindua da orobat, munduan altxatu diren Estatu handi-
goen alboan biziraun ahal izateko. Beharkizun geografiko edo
demografiko⁶⁸, beharkizun militarra⁶⁹. «Europaren azken xantza
Europar da. – Edo herriak bilduko dira, Europa bakar baten al-
txatzeko, nun ospe berekoak, ontasun bertsulakoak izanen bai-
tura jende guziak, Ekozakoak, Angleterrakoak, Bretainiakoak,
Euskadikoak, Alemaniakoak, Frantziakoak, Espeiniakoak... Edo
Rusiaren uhainek estaliko dute Europa bihar, Xinaren ibaiek
etzi»⁷⁰. «Zer da, herritarrak etsaietik zaint ez dezakeen herria?...
Badu herriaren izena. Badua othe herriaren izana?»⁷¹. Salaberryk
batasunaren abantaila ekonomikoak gutxiago aipatu baditu –era-
bat ahazteke⁷²–, bere ikusmolde gehienbat politiko-kulturalen is-
pilu da hori, zalantza gabe. Aldiz, Iparraldearen etorkizun eko-
nomikoarentzat ikusten du ahalik lasterren ezinbestekoa Euskal
Herriko batasuna, Europa batua beraz⁷³.

Arrazoi erlijiosoa elkar maitasunaren agindu kristauan labur-
biltzen da. «Ahalgegarriaren ahalgegarria! Bi aldiz [Europa] girix-
tinoak edo bederen girixtino izanak, sua sakatu dio munduari,
gerlako suak erre zezan. Eta suak egin su lan, bere aho leizean
iretsi, mila bederatzi ehun eta hamalaukoan, hamar miliun jende;
mila bederatzi ehun eta hogoi eta hemeretzikotan, berrogoi eta
hamar miliun»⁷⁴. Gerra eta gorroto historia «pagano»⁷⁵ hori betiko
amaitu beharra dago. Eta, hori amaitzeko, ezabatu beharra dago
nazionalismoa⁷⁶, muga nazionalak, interes komunitate europar
bakarra bilakatzeko. «Herrien arteko mugek, hisia dute pezoin-
aska, zolarik gabea. Josteta da, josteta zikina, herriaren amodio
sainduan indar hartuz, jenden eta bereziki gazten, auzo herriari
huiatzea»⁷⁷. Zio erlijiosoak esanahi politikoa du, hortaz: «Zollve-
rein» edo errenterien bateratze soiletik haratago, Europako herri
guztien bakea, solidaritatea; elkartasuna eta anaitasuna alema-
nen, frantsesen, ingelesen artean. Ordea –gerraondoko aiherrak eta
herra sentimenduak bizi-bizi daude oraindik, ez da falta suari
egur gehiago botatzen ari zaionik ere– frantsesak alemana mai-
tatzeko edo viceversa, zuzenbide politikoa ez da nahikoa,
kristautasuna behar da. Maitasun naziozaindikoa ez da senti-
mentu naturala, erdietsia izan behar du, «ikasia» (Bergson).
Kristautasunak bakarrik irakas diezaguke gorroto eta errebantxa
gosea –naturalak!– gainditzeko. «Europako mugak, dezazke baka-

rrik desegin karitateak⁷⁸. Kristautasunak, haatik, batasunaren eragile bezala, batasunaren jomuga behar du izan: Europa kristau bat da, batua eraiki behar dena⁷⁹. Europako batasunak «la révolution chrétienne» izan behar du⁸⁰.

R. Schuman Frantzian, Adenauer Alemanian, De Gasperi Italian, kristau-demokratak izan dira, gerraondoko Europa batasun bidean sartu dutenak. Kontrarioak dira alde batetik gaullistak (nazionalistak), bestetik internazionalistak (sozialistak eta komunistak, Mounier-en⁸¹ tankerako ezkertiar kristauak, Sartre⁸² bezalako existentzialista kritikoak): Salaberryk denak atzoari lotu nazionalistatzat jotzen ditu, atzoko borroketan tematuak, atzoko planteamenduei atxikiak, bihar berriari buruz zabaldu nahi ez dutenak. Bereziki gogorra kritika hauetan sozialistekin ageri da. «De tous les anti-Européens, les socialistes se montrent à l'heure actuelle les plus virulents. Ils sont les plus timorés. Avec une telle rapidité, un homme du peuple devient «petit bourgeois» prude... Une «peau de lapin!» (1951)⁸³. Sozialismoa, dio, Frantzian bereziki, estatalista bilakatua dago, itsua, beraz jakobinoa, fanatikoa eta absolutista, nihilista. «Le nihilisme est devenu français. Car le nationalisme est d'invention jacobine.⁸⁴ Baina atxikitasun hau Estatu nazionalari, sozialista europar guztiena da. «L'un des phénomènes les plus étranges de notre siècle, un événement qui par son ampleur prend le caractère d'une loi, est que le parti socialiste est devenu en tout pays, contre sa définition essentielle, le parti du nationalisme intégral. Il était internationaliste au 19e siècle, lorsque le temps d'un super-état n'était pas encore arrivé. Il cessa de l'être au 20e, lorsque la Constitution d'une Europe-Unie est devenue d'une urgence, qu'aucun homme qui pense, ne saurait nier. Il est également rétrograde, également buté, en France, en Allemagne, en Russie ou en Angleterre.⁸⁵ Printzipio kapital baten arnegu honen esplikazio ekonomiko jite marxistako bat ere aipatzen du -Estatu sozialista, produkzio ondasun guztien jabe, nazionalista gisa manifestatzen da gainegituran-, berak ezaskitzat eduki arren, arrazoi horretan arrazoi puska bat bada-goelakoan apika⁸⁶.

Salaberryk, ideiak eta arrazoiak, bere esperientzia pertsonalekin jantzi ohi ditu, hala bere Europazaletasuna ere. Esperientzia positiboak eta negatiboak. Presokanpokoak, beti bezala, espe-

rientzia pribilegiatuak dira. Berak han bizitu du, nola frantses, ingeles, italiano, jugoslaviar, italiano, espainol, amerikanoak (ES, 152 eta hur.), berdin erlijio ezberdinetako jendeak, katoliko, protestante, ortodoxo, fedegabeak (ES, 155), eremu berean elkarbizitzen ziren problemarik gabe. Frantsesak berak, etxean bata bestea ezin jasanda ibiltzen zirenak, han besteak ez bezala ados eta lagun (ES, 152). Ikusi du frantsesak guztiz naturalki eskualdeka biltzen zirela: hala hiru B-ak (Basques, Béarn, Bigorre), «elgarren adixkide» (Ib.). Zergatik ez ditu Estatuak, Europak, eskualde naturalok errespetatuko federazio batean? Zergatik ez elkarretaratu Europa batean egungo Estatu txikitar guztiak? Ikasi du, alemanak ez direla errudun eta gerra axatzaile bakarrak, gaizto bakarrak; beste edozein bezain jende dira⁸⁷. Alderantziz, Frantziagatik preso Alemanian egon eta gero, etxera itzuli eta, desilusio totala: ez ongi etorri eta musika, hotza eta desairea baikizik. Jendeak ez du preso ohien axolarik, bakoitza bere buruari dago beha. Preso ohiek enbarazo egiten dute. Inork ez ditu nahi. Gainera, gehienak Petainen aldekoak ziren, gobernamendu berriak ez ditu maite. «Ohartzen gira soberakin girela. Soberakin dela gure egiazko izena. Familiatik kanpo, nehorik gure gutiziarik ez duela. Gure tokiak hartuak dira. Gure herria zen Alemania. Gure hiria Stalag IV B. Zendako itzul gure hiritik, gure herritik (...). Mamuxka batzu ginen Frantsesentzat eginak»⁸⁸. Presokanpoan idealizatu aberria, betiko alderdi eta txikikerien gerraurreko Frantzia bera da. Zergatik ez gaintitu hori eta Europa berri bat egin, guztiena, guztientzat, bare karakoil bat bezala bere baita txikian bilduta ez dagoena?

Lan egiten duen eta sufritzen duen herriak Europa nahi du. Politikoak ikusten ditu Salaberryk Europa egiteko fidakaitz. «Seul le peuple comprend qu'il n'a rien à perdre dans l'Europe-Unie. Mais qu'il a le bien-être à y gagner. Le pain à conquérir. Le chemin de l'Europe passe par la générosité populaire»⁸⁹.

Hezkuntza eta lana: erregionalismoa, federalismoa

Iraultza aurretik irakaskuntza (Frantzian) Elizaren esku egon da ia erabat, eta gehien-gehienbat kongregazio erlijiosoen eskutan. 1793ko Konstituzioak deklaratu du, ordea: «L'instruction est le besoin de tous. La société doit (...) mettre l'instruction à la

portée de tous les citoyens» (22. art.). Alabaina Estatu berriak ez du bitartekorik, agintzen duena betetzeko. Ez lokalik, ez irakasle izateko pertsonal laiko prestaturik dago herrietan. Napoleonek, irakasleak prestatuz joateko neurri funtsezkoenak ezarri batera, irakaskuntzako kongregazio debekatuak berriro legezkotu behar izan ditu (1810), Unibertsitatea Estatuarentzat erreserbatuz. Elizak beretzat errebindikatzen jarraituko du, Erregimen Zaharrean bereganatua zuen irakaskuntzako espazioa; Estatuak espazio hori beretzat erreklamatuko du, Eliza pertsegitzeraino iritsiz. Frantziako barne-arazo larrienetako izan da mendebete eta gehiagoan, Estatu eta Elizaren arteko harremana saminkienik zaildu duena zalantza gabe, Eskola laikoaren arazoa, h. d., «eskola libre» eta «eskola publiko»⁹⁰ arteko oposizioaren borroka sumina, horrek XIX. mende osoa zamaten du. Salaberryk historia hau guztia bere familiako historiarekin batera gogoratzen du, Estatu liberala burgesiarekin identifikatuz eta burgesia Voltairekin⁹¹. Frantzian lehen mailako irakaskuntza arautu bat finko samar jeneralizatzea 1830-1850 artean lortu da hein batean, teilepe eta irakasleria iraunkorrekin eta Estatuaren ikuskatzaileekin: kongregazio erlijiosoen partizipazio handiari eskerrak ordea oraindik. Urte beretan, Unibertsitatearen monopolio estatala hautsi eta Elizarentzat irakaskuntza unibertsitarioan leku bat berrirabaztea, katoliko progresistenen («neokatoliko») xede nagusietako bat alferrik izan da⁹². Estatuaren ahaleginak gorabehera, 1880an –Iraultza egin eta ehun urtera– eskolak erdibanatsu banatzen dira, erdia libreak eta beste erdia publikoak. Hirugarren Errepublikarekin Frantzia «deskristautuaren» eraso berrasi da sutsu Elizari fronte guztietan, prentsan, literaturan, politikan. Estatu eta Elizaren arteko borroka ere eskolaren inguruan osoki pozoitu da. Prusiarekin lehiatu beharrez, 1881-1882ko «Ferry legeak» eskola hamairu urte arte doan guztientzat obligaziozkoa ezarri duenean («lehen mailako irakaskuntza»), Gobernuaren begietan maisuak Nazioaren eta frantsesaren apostoluak dira (Frantzia eroria jasotzeko: Daudet-en *La Dernière classe*-k, 1872, islatu duen izpirituan)⁹³ eta ideologia «patriotiko» laikoaren soldaduak. Waldeck-Rousseau-k hasi (1901) eta Combes, Clemenceau erradikalek Eliz eskolak itxi eta erlijiosoak definitiboki eskolatik kanporatu, Kongregazioak desegin, milaka fraide eta serora erbesteratu, eta Eliza eta Estatu banatuko dute (1905). Lehen Mundu

Gerrara arte iraungo dute katramilok⁹⁴. Salaberryk izeba mojak oroituz idatzi du: «Bere jendetasunaren arradoaren arradoaz hanturik dagon Frantziak, serora xumeak, emazteki ahal gabeak kanporatu zituen, jenderia ustel eta usteltzaile baten gisa. Pauline, Françoise eta Helenak ihes egin beharko dute Espainiarat, Combes minixtroa haizatzale» (ES, 31). Ministro horren jokabidea Frantzian, Stalin-en kristauen pertsegizioekin Errusian eta Hitler-en juduen suntsiketarekin Alemanian konparatzen du (Ib.)⁹⁵. Salaberry ulertzeko (eta bere garaia Euskal Herri katolikoan), aurrehistoria hau dena gogoan eduki beharko da⁹⁶. «Egizak nahi dukana –esan bide dio aitak mutil gaztea zela, zer izan nahi zue-nari begira-. Lagunduko hut. Haatik hobe huke ez gobernuko mutil sartzea, ez baita xuxentasunik gobernamentuan, eta giris-tino denak asko zuzen gabe baititu hartarik pairatzen» (ES, 85).

Estatuaren eskola

Irakaskuntzaren kapituluan Salaberryk Estatuarekiko tradizio kritiko bat heredatu du. Horrela ulertzen da haren tonu kasik marxista Estatuaren eta burgesiaren kritika batzuetan. Bere saio handietan lehenetako bat «Le Pédagogue et le Commissaire» da (1951), salaketa zorrotz bat, Estuak eskola nola erabili duen, ez pedagogo bezala, baizik herriaren kontrol eta dominaziorako tresna bezala, komisario bezala alegia. Gogor kritikatzan du, azkeneko ehun urteetan Frantzia kasik aginte absolutuarekin bidatu duen Alderdi erradikalaren irakaskuntz politika jakobinoa. «De 1830 à 1930, la domination de la bourgeoisie radicale aura été sans partage et sans nuances. D'une euphorie imperméable au doute méthodique. On reste effrayé de l'appareil de vassalisation des consciences que trouverait dans son arsenal une équipe homogène de commandement (...). Aussi, sans les réserves d'une hypocrisie désormais inutile, le point de vue du commissaire se substitue au point de vue du pédagogue. Le point de vue de celui que Dostoïevsky appelait le Grand Inquisiteur. Grattez les proclamations de désintéressement culturel, et vous trouverez la volonté de puissance d'une classe et de sa caste»⁹⁷. Salaberryk Goebbels-ekin parekatzen du eskola politika hori, argudiatuz, Estatu den Eliza berriaren politika arrunta dela hori. Barne ministerioarekin, Estuaren kontrol sistema osatzen du: «Education

nationale, ministère de l'Intérieur: la ligature de ces deux termes en un seul couple, montre jusqu'à quel point ont triomphé les conceptions napoléoniennes de la société. Par accélération de ce mouvement, Police et Propagande tendent à devenir les deux poutres maîtresses des nations modernes»⁹⁸. Napoleon izan da «fondateur des nations modernes», eskola beren-beregi Estatuaren justifikatzailetarako garatu duena, botere materialak beti botere izpiritual baten bermea bilatzen baitu: «Le trône autrefois s'attachait à l'autel. Aujourd'hui, nos maîtres, en tous pays, nouent leur fauteuil à l'école»⁹⁹. Maisuen armada Napoleonek, Estatuaren zerbitzuan beste soldaduak bezalaxe diziplinatua nahi zuen. Haien zeregina Estatu berriaren eraikuntza eta defentsa ideologiko-morala izango da¹⁰⁰. «Des encyclopédistes, Napoléon avait retenu qu'il fallait une religion pour le peuple»¹⁰¹. Erlijio berria, Estatuaren erlijioa, eskolak irakasten du. Horrela, eskolaren laikotasuna ez da Estatuaren sakratutasun absolutu eta eskusiboa ziurtatzeko baliabidea baizik¹⁰², eta «l'irréligion d'État est la forme la plus efficace de l'exploitation de l'homme par l'État»¹⁰³. Napoleonek oraindik ez zeuzkan bitartekoak, izan ere, egungo Estatuak badauzka. «La domestication des consciences à laquelle pensait avec nostalgie Napoléon, devient réalisable»¹⁰⁴.

Eskola, <nazio> berriaren egile, hots, herri-nazioaren desegile, Estatu-nazioaren asmatzaile: «Les programmes demeurent immuables, du Sud au Nord, de l'Est à l'Ouest, de la Normandie verdoyante au désert du Sahara. Et non pas semblables, mais identiques. Dans une image d'Epinal a été résumée la prétention absurde d'une école qui ignore ses élèves: le petit noir, se dandinant sur ses minces jambes d'ébène, tandis qu'il marmone: «Nos ancêtres les Gaulois avaient la tête ronde...» On n'imagine pas plus parfait dédain de ces données scientifiques que sont, le peuple, la religion, le métier, le paysage. Pédagogie du mépris. L'école a été une grande machine à déraciner»¹⁰⁵. Komisarioaren pedagogia honen ondorioa, frantziar ezfrantsesen alienazioa: «L'aliénation basque, comme l'aliénation bretonne, ou flamande, ou occitane ou hindoue, a été d'abord une aliénation culturelle. Elle a consisté dans un rapt de la personnalité morale. La basquitude a été battue en brèche, à la fois par l'hispanité et par la francité»¹⁰⁶. Estatu gabeko naziotarrok, Estatuaren komisario mai-

suek, ez bakarrik ez dituzte behar bezala eskolatu, baizik eta mutilatu egin dituzte izpiritualki, enuldu, norgaldu, bere buruaren lotsaizun bihurtu. «Le plus grand mal qu'ait provoqué une culture orientée vers l'Etat, est peut-être d'avoir infusé au peuple, un complexe d'infériorité, un manque de confiance en sa vitalité créatrice; on n'éduque pas impunément un peuple à quemander chacune de ses pensées, à la munificende de je ne sais quel maître lointain, majestueux et décoré. Cette attitude humiliée se réfracte en un défaut d'estime de soi»¹⁰⁷. Hau da herritik gora sortu, herritik urrundu, eta behin goian bere jatorri herritarra gorrotatuz eta jazartuz bukatu duen burgesiaren obra: nortasunik gabeko jendeen probintzietako desertu frantziarra. «Que de fois j'ai songé avec colère à cette bourgeoisie radicale qui pour satisfaire une volonté de puissance dévorante, enseigne à tout un peuple la rancoeur contre ses ancêtres, contre sa terre, et parce qu'il était le Vivant immortel, contre son Dieu. D'une race drue et forte, au bel orgueil susceptible, elle fit dans bien des centres une masse amorphe, revendicatrice en paroles, consentante en fait, et atrocement docile, hélas!»¹⁰⁸. Euskal burgesiak bere jatorria, hizkuntza, euskalduntasuna ukatzen duela, maiz deitoratu/salatu du Salaberryk. «Le Basque enrichi se désidentifie de son peuple»¹⁰⁹. Herri xumea ahalketua geratzen da, noraezean, arrotzen zaizkion klase gidariei beha.

Deseuskalduntzeko eskola

Orain hasi dira gure artean batzuk esaten, euskararen jazarpenik ez dela egon (J. Juaristi –erregeak hala esan baitu!), beste batzuek baieztatu izan duten bezala, juduen esterminazio nazirik ez zela egon (baina European horiek auzitegira eramaten dituzte!); edo euskararen galeraren kausa printzipala ez omen dela jazarpena izan, bai «beste arrazoi batzuk» (A. Arteta) –beste hauek euskararen galeraren kausa «naturalak» izan direla, iradokiz, ez euskaltzaleek beti argudiatzen dituzten kausa politiko-sozial errepresiboak. Euskararen atzerapenaren kausa, bera da beti. (Noiz ez da galtzailea erruduna bera izan? Irabazle erruduna oraindik ez da inbentatu). Honezkero ez baitago, bere trakestatsun intrinseko esentzialagatik dela (à la Unamuno), zientifiko itxura batekin baieztatzerik, hizkuntzalarien protestak altxatu

gabe, kausalitate intrin/estrinseko histu bat muntatzen da: hizkuntzak ez bide ditu klase batzuen edo zeregin batzuen premia sozialak ase ahal, etab., hiztunen beren hizkuntzaren abandono «librea» da ondorioa! Kontua da errepresioari inportantzia gutxitzea. Galde-ikertzen jarraitu beharrik ez dago nonbait, hizkuntza bera zein prozesuk dakarren ezintasun de fakto egiazko horretara (oroit aspaldiko gure Axular – euskal idazleak daki inork baino gehiago, zer den «hizkuntza landugabearen» esperientzia mingarria), gizartea nola etortzen den, aurrena klase gidariak (berak ere gidatuak, interes eta indar jakin batzuek), gero herri xumea, bere hizkuntza gutxiestera. Boterearen eta hizkuntzaren identifikazioak –legearena bezain efikaza prestigioaren inposizioa gertatzen da– klase goien hizkuntza harekiko identifikazioa nola dakarren, bestela hizkuntzaren kapituluari jaramon handirik egiten ez badio ere (eta Frantziako historian gutxien-gutxiena!), printzipioz oso ongi adierazten du A.-M. Thiesse-k identitate nazional modernoan kreazioaren bere estudioan: oraindik beren Estaturik gabe –esaten du–, errumaniarrak, estoniarrak, finlandiarrak, ez dira kontsideratzen nazioak, herriak, ez hizkuntzak ere, «mais une population définie par son statut social. Roumain, finnois, estonien sont en fait synonymes de «paysan». Et il serait aussi incongru pour les maîtres des domaines de parler le langage de leur paysans que de labourer les terres ou de garder les bestiaux»¹¹⁰. «Tout bourgeois veut bâtir comme les grands seigneurs», aspaldi esan zuen ja La Fontainek, ikerketa sakon handirik behar gabe jakintza horretarako¹¹¹. Euskal Herriko burges eta jauntxoentzat –eta kulturalki haien kopia txarrak baino izan ez diren proletario progre eta intelektual askorentzat– euskarak gorrotz usaina du, ez da mintzaira noblea (edo modernoa, etab.), hots, ez da Gortekoa, lotsari da. Boterearen abokatuei laket ez bazaie ere, hori dena historia sozial eta politiko –barnekolonialista, inperialista– batean etzandua dagoela, Salaberryk aspaldi ohartu eta salatu du:

Impérialisme culturel. Conférence d'Alger. Une définition prise dans un sociologue américain et reprise par un sociologue français fait l'unanimité. L'impérialisme est la «manière dont la couche dirigeante est amenée par la fascination, la pression, la force ou la corruption à modeler les institutions sociales [hizkuntza instituzio

bat da] pour qu'elles correspondent aux valeurs et aux structures du centre dominant du système». Pour les Français, l'impérialisme coupable est celui des Etats-Unis. Pour les Algériens l'impérialisme oppressif est celui de la France. Pour les Basques impérialisme doit s'écrire au pluriel: l'un opère à partir de Madrid, l'autre à partir de Paris.

L'impérialisme culturel américain a la légèreté de la plume par rapport à l'impérialisme culturel, lourd comme du plomb, auquel sont abandonnés, sans défense, le Pays Basque, la Bretagne, l'Occitanie, la Corse. Le français est une langue de classe: la langue de la bourgeoisie, la langue des riches. Il opère par séduction, «par fascination». Mais il opère aussi «par pollution informative», par «la pression, la force, la corruption». Le terrorisme des structures n'est pas moins cruel que le terrorisme des terroristes. «Nos ancêtres les Gaulois» supposés proches est plus aliénant pour les Basques que «Nos ancêtres les Yankees» demeurés lointains. Pleinement juste est le verdict: «Un peuple privé de sa culture, de sa langue, est un peuple colonisé»¹¹².

Estatu moderno burgesa –Iraultzatik sortu eta Napoleonek egituratua– jakobinoa da naturaz, herri xumearen irenslea da, «il est brutal de nature»¹¹³, hori berdin da Frantziar zein Espainiar eta edonon. Eskola ez da horren kontrol eta dominazio tresna bakarra, baina inportanteenetakoa bai, hizkuntza bat eta historia bat kontzientzien barneneraino sarraraziz ez hizkuntza eta ez historia horretakoak ziren hurrei. «Frantziak ez zautan moztu mihia, bainakien euskara, bainan iretsi euskaldun gogoa, euskaldungoa. Eni bezala bertze ainitzi, Frantziak. Eni bezala bertze frangori Espainiak. Frantziak balus mehez esku kanpoa. Espainiak larru lodiz esku kanpoa. Baina biek berdin gogor nagusi xedea. Biek berdin idor burdinezko eskua. Biek bi solas, baina biek nahi bera. Bietarik berdin zaindu behar gure burua» (ES, 174)¹¹⁴. Salaberryk maiz salatu du, txiki-txikitatik¹¹⁵ berak jaso duen hezkuntza nazionalista frantsesa (ik. ES, 90, 92), are xenofobo eta errebantxista (ES, 93), ondoriozko bere «nazionalismo

frantsesa» gaztetan aitortuz (ES, 179). Hizkuntzaren jazarpena salatuko du bereziki: «La langue basque a été arrachée aux lèvres des Basques. La persécution linguistique a commencé à l'école»¹¹⁶. «Erakuts-etxeetan, ala euskara, ala bretoina, ala okzitana, ala korza, ala ipar-Afrikan araba ez erakutsiz, Frantzia [da] agertu Euskal-Herriaren, Bretaniaren, Okzitaniaren, Korzaren, Maroka-Aljeria-Tuniziaren etsai» (ES, 89). Hegoaldean «eratzunaren metodoa» deritzon astapedagogia, berak pertsonalki ezagutu bide du eskolan: «Baginuen, haundienek, bertze lan bat, ez pollita. Eskolarat orduko, erakasleak emaiten zaukigun «bchette» deitu, erhiaren heineko abar-pixka. Gure egitekoa, barrandan egoitea. Nork ere jalgitzen baitzuen hitz bat euskaraz, eta hari zura saka, ixil-ixila, nehor ohartu gabe. Eta orduz geroztik hura euskaldun hitzen zakur usnakor, alegia-eta basurde zikin zitazken solas euskaldunak. Askatasunaren, Berdintasunaren eta Anaitasunaren herrian altxatuak ginen izaiteko, trebe barrandari, trebe salatari, Judasen semeak ginela iduri. Hola zen Euskal-Herriko ikas-etxe guzietako ohidura. Azkenik «bchetta» zuena, zen gaztigatua» (ES, 67)¹¹⁷. «Il n'est pas bon que les langues et cultures régionales soient humiliées devant la langue et la culture nationale. Il n'est pas bon qu'elles soient accablées de mépris»¹¹⁸.

Mintzaira bezala, eta aldi berean, historia herritarra, jendearen egiazko historia, ezabatzen du eskola estatal hiritar guztien uniformatzaileak, erregeen eta jeneralen historia arrotz batekin hura ordezkatur. Euskal Herriak eskolan utzi egiten dio historian existitzeari. «Frantzian ikasi diuk Frantziako ixtorioa, Parisetik irakurtu ixtorioa. Espainian ikasi die Espainiako ixtorioa, Madriletik ikusi ixtorioa. Itze batek kanporatu dik bertze itzea. Gelditu gaituk gure ixtoriotik umexurtx. Gelditu gure erroak ezin jauts behera gure arbasoen izaiteraino, herri osoaren orroitzapen oso leize ziloko ilunbeaz kukutua»¹¹⁹. Juduen bederatzi biltzarrek R. Faurisson, Lyongo profesorea, auzitegi zibilera deitu dute, esan izateagatik «hitleriano korraletan ez dela gaza-gelarik izan, ez eta ere Judu leinuaren endurtzeko xederik», horrekin «judu populua bere orroitzapenetatik hustu baitu; bere ixtorioa judu populuari ebatsi»¹²⁰. (Ezagunkia, euskara ez da inoiz pertsegitu, Nafarroa ez da konkistatua izan, etab.). Baina «holako zerbeit jalgi dezakete Bretoinek, Kortziatarrek, Euskaldunek» ere¹²¹, beren historia

ebasten dien eskolaz. Frantziak ezkututzen du Euskal Herriko historia, nola jasan behar izan duen hainbat zigor eta zampaketa¹²²; bere historia loriatsua ikasazten die haurrei, bere historia beltza ezkutatu egiten du¹²³. Ondorioa, euskaldun zozo, historian sineste gabekoa izanen da. «Nahi duzuia jendetze bat atxiki belauna lepo gibelean emana? Ebats-akozu aspaldiko arbasoen orroitzapena, ebats bere izena. Aspaldikoak eta gerokoak elgarri josirik egoiteko eginak litazke, aspaldikoak emaiten duelarik gerokoari oldar, gerokoak idekitzen duelarik aspaldikoari bide berri (...). Aspaldikoa daukatenak hitsa, ez aski ezagutzea gatik, usu dagotzi geroari buruz uzkur eta herabe. Heien eritasuna, ahultasuna. Hola eri Frantzian Bretania, Okzitania, Korza, Euskal Herria» (ES, 39).

Haur euskalduna, bere mintzaira ukatua eta mintzairarekin bera, ukatua bere historia eta bera historiarekin, ezdeusaren konplexuz haziko da – «guti izaitearen koropiloaz», esaten du Salaberrik (ES, 63-67). Haur ingelesak, frantsesak, gehiagotasunaren harrokeriarekin hazten dira, loriatsu beren historiarekin. «Parisen, Londresen, haurrak ikusi ditut jostetan ari, etsaieri hartu kanoiak astotto. Ukanen dute aski edo sobera nortasun...» (ES, 64)¹²⁴. «Euskaldunak atxikitzen du ahoan haur helderra, haren mintzaira, haren gogoaren hazkurria, gutietsia izaitea gatik. Gure mintzaira, urde kurrinka, aker merreka, oilo kolokaren koloka balitz bezala, trufatua eta baztertua da, ba Spainian, ba Frantzian. Zaurtzen bide ditu Espainiako eta Frantziako jaunttoen beharri minberak. «Mintzaira esne, eta mintzaira pozoinatua». Alienazioneak ez ditu gorputzak estekatzen; gogoak ditu sokatzen. Alienazionea osoa da, ez badu gorputzak sokatzerik, gogoa tinki estekatua delakotz. Herriaren deslotzeko, mintzairak behar du deslotu» (ES, 64). Euskalduna, bere gutxiagotasun konplexuarekin, bere buruaren erdeinu gaindiezinez betea, autogorrotoz, bere buruaren etsai bihurtzen da. «Il y a une anti-basquitude des Basques. –Le complexe d'infériorité du Basque actuel est un complexe triste»¹²⁵.

Gutako zein dago gutxiagotasun konplexu horretatik egiaz libre, salatzen dugunon artean ere? Beharbada horren aurkako gure planteamenduak, horrexen biktimak dira berak askotan. Burgessiak Estatu modernoa, bere eskuetan, lurralde guztia zentru

baten inguruan kolonia bihurtuz eratu du¹²⁶. «Il existe un colonialisme à usage interne qui écrase sous son rouleau compresseur les cultures régionales. Les fruits qu'il mûrit ne sont pas moins redoutables que ceux qui surgirent du colonialisme d'outre-mer»¹²⁷. Salaberry arrazoiz asaldatu da, barne-kolonialismoa deitzen duen horren kontra. Hala ere, bere asalduran bertan, kolonialismo arbuatuaren berrespen hondar bat ezkututzen da beharbada kuku-tua. Ez, dagoen Frantzia beti minkor kritikatu, egon ahal izango edo beharko lukeen Frantzia bati erlijiosoki bihotzetik atxiki-atxikia jarraitzen duelako bakarrik (erregionalismoa bera Frantzia horren hoherako pentsatua izaki), ezpada, euskararen bere ideiak eta egitasmoak berak, esate baterako, kolonialismo horrexek joa dirudielako azken batean. «Ama euskarari» eutsi egin behar zaio, ezin da hiltzen utzi. «Holako itsuskeriarik ez dezake gizonak gizonari galda. Holako tzarkeria, amaren hiltzerat uztea, haren heia-goraz axolarik gabe elkor izaita. Holako aberekeria, ezin barkatuzko hutsa!»¹²⁸. Baina zer da euskara, eta zer da euskarari euste-arren ahalegitea? Inoiz ez –bigarren puntuarekin hasteko– nazio-gintza edo holakorik, eginkizun politikoa zentzu hobere-nean, komunitate baten ardaztailea. Salaberryren arrazoiak euskararen alde, apez batentzat edo antzinazale batentzat onak ez-pairik gabe (ironiarik gabe esanda), errukizkoak edo tradizionalistak dira soil. «Bortz mila urtez Euskaldunek gizalditik gizaldirat eman gar urre pindartsua uzten baginu lurrerat...»¹²⁹, etab. Oroz gain, pobre eta xumeen aldeko ekintza da, kasik ebanjelikoa. (Aitortu behar dut hemen, Arantzazutik pasa den asko eta askoren euskaltzaletasunaren hastapena, neu barne, horixe izan dela). «Le riche (...) possède sa fortune. Il peut se consoler. Mais le pauvre, pour trésor, n'a reçu que son âme. Entre toutes les formes de la culture, celle du peuple mérite de constituer notre préoccupation majeure: d'être notre souci numéro 1». Hortik segitzen da: «L'Éducation populaire par la langue populaire»¹³⁰. Izan ere, hala izan da historikoki: euskaraz arduratu direnak, apezak eta filologoak izan dira, ez burgesia.

Kolonizatuaren ispiluan

Zer da, baina, euskara, eta zein mailatakoa da Salaberryren interesa euskararentzat? Salaberryk bere planteamenduetan ga-

ratu behar izan du –esan dezagun– «euskararen filosofia» edo hizkuntzaren filosofia bat, euskarari zergatik eutsi behar zaion arrazoitzeke, hor bere jarrera politiko fundamentaleko kontraesanak islatzen baitira, nik uste (jarrera batean kontraesanak seinalatzea ez dela kritika bat, abisatuko dut badaezpada). «Arbasoetarik mailez-mail»¹³¹ datorkigun ondasuna izateak, ez du tradizioa soil esan nahi, kultura esan nahi du; gizatasunaren forma bat esan nahi du¹³². «L'Aliénation basque» saioan, «Défense et illustration de la langue basque» atalean, gogoeta berri bat garatzen da: hizkuntza musika bat da, algebra bat da, psikologia fosildu bat da, laburbil daiteke hori¹³³. Euskarari, beraz, gizatasunaren zeruan, arbasoekiko leialtasunagatik eutsi behar zaio, etab., eta ekologia kosmiko moduko bategatik: «Desegitea jendetze baten gogoa lurrean, ala izar baten hiltzea zeruan, mail bereko bi gaixakeria, biak berdin ilunak»¹³⁴. Hori dena euskararen alde.

Baina Salaberry baitan paralerroki badago kulturaren beste kontzeptu bat eta hizkuntzaren beste ikusbide bat ere. Kultura goiak, unibertsalak, eta kultura behere apalak, etxeokak edo, berezten dira. Salaberryk berezkuntza hau, lehenengoan (1951), seguru asko bere inguru dominatzailetik, kultura goi horren kritika eginez hartu du.

«Le prodigieux développement des sciences, aussi bien que de la littérature, a constitué, au sommet de chaque civilisation un capital énorme de chefs-d'oeuvres auxquels leur perfection même confère un caractère hermétique, qui les soustrait, sans recours possible, à l'atteinte des non-initiés. Le projet pythagoricien s'est trouvé réalisé par le fait sinon par la malice des hommes. Et ce n'est pas encore assez dire. Le caractère d'abstraction savante des études minutieuses, s'est communiqué à la langue elle-même, qui, après avoir engendré les ouvrages, a gardé en elle, comme une matrice, leur caractère de rationalité et de concision quasi-excessive. Cette langue était celle des artistes et des savants. Elle n'était plus celle du peuple. Elle ne pouvait pas être celle de tout le monde.

Sortis du peuple, les mots s'étaient éloignés de lui, jusqu'à se retourner finalement contre lui. A l'homme de la terre il faut des catégories simples, au ras du sol, où les démarches de la pensée s'inscrivent avec autant de sécurité que ses pas à travers les sentiers creusés par les générations. Il vit dans l'enceinte d'une espèce de positivisme méthodique.

Dans l'actuelle civilisation, il s'est trouvé au contraire, en face d'un univers reconstruit par la pensée, aux orientations imprécises à force d'être vastes, irréelles à force d'être élevées. Le monde du concept, qui est le monde normal de l'intellectuel, est un monde déroutant pour le manuel: un monde anormal. Lui <qui pensait avec ses mains>, s'est senti émigré à l'intérieur de sa langue. Etranger à l'intérieur de ses formes. Exclu de la cité. Refoulé à sa lisière, à sa zone lépreuse. L'aliénation a été psychologique, avant que d'être économique. Cette langue d'apparat qu'il ne revêtait que dans les circonstances officielles, lui était aussi gênante que son costume de noces. <Les langues commencent par être une musique, et finissent par être une algèbre>. Il s'est senti condamné à l'algèbre comme à l'impôt.

A cette sorte de brimade diffuse, devait correspondre automatiquement, de la part du peuple, une riposte où ses instincts agressifs rabaisseraient le langage à son niveau propre et même au dessous. Chaque langue eut désormais son double. Chaque langue fut accompagnée de cette ombre malsaine qui se nomme l'argot¹³⁵.

Hizkuntz komunitatea erdibituta gelditzen da: goian elite ikasia, mintzaira abstraktu baten jabe, behean gehien-gehiengo xume landugabea, eskolan ikasi hizkera ezertarako ez duela, «sous-prolétariat linguistique, si l'on peut dire, qui le pousse vers une condition sous-prolétarienne du sentiment», handik hara «la majorité des hommes respire dans le climat malsain d'une langue grossière: corrompue et corruptrice»; izan ere, «les maladies du langage deviennent rapidement les maladies de la pensée»¹³⁶. Gizartearen lauki ilun hau mendebaleko zibilizazio dekadentzia-

ren toposarekin asoziatzen da: «Une pensée hésitante, qui s'exprime dans une langue ambiguë; une langue sans grandeur qui pervertit une pensée sans force: tel est le cycle infernal de l'agonie des civilisations»¹³⁷.

Ez halakorik euskararekin. Euskal Herria ez da gizarte moderno dekadente horietako bat. Euskal Herrian ez dago klase diferentziarik. Euskara bat eta berdina da guztiena(mailaz), herri noble baten mintzaira. «L'homme privilégié est celui qui ne connaissant pas d'argot, possède un langage franc qui lui révèle son haut lignage. Qui parle, paysan ou tâcheron, une langue de seigneurs, et y puise son style de vie»¹³⁸. Bat-batean frantsesezko diskurtsoa eten eta, euskaraz eta etzanean, «*Erdara bertzendako, Euskara guretako*» tartekatzen du, berriro frantsesez jarraituz: «Une langue internationale nous ouvre vers les autres. Mais notre langue nous reploie sur nous-même et sur la fierté de notre race»¹³⁹. Euskararen apologia dotore bat oparitzen digu ondoren: ikus dezagun, bada, gero deus balioko ez badigu ere. Kontu izan, euskarak kontzeptu abstraktuak adierazteko omen daukan ezgaitasuna, haren gutxiagotasunaren frogatzat aurkeztu izan dela (Unamuno, Ortega y Gasset, etab.). Salaberryk arrazoa alderantzikatzen du, euskararen konkretutasuna bere abantaila bihurtuz: abantaila soziala eta, are, intelektuala ere bai.

«Nous les basques, comprendrons-nous la chance inouïe que nous avons de posséder une belle et noble langue populaire où se reflète la haute dignité de nos ancêtres? Elle est restée une langue concrète. Ceci, n'est pas selon moi une tare, mais un hommage rendu à un type devenu inhabituel. Elle est la langue de culture d'un peuple, et à nous tous, elle nous rappelle invinciblement que nous sommes de ce peuple... Un de ce peuple... L'un de cette masse. Différents, mais non pas supérieurs... La langue basque nous a empêchés de devenir ces caciques de l'intelligence qu'un peu de science a éloignés de leur peuple, sans qu'un supplément de savoir les ait rapprochés de leur race, et dont l'action sur le pays fut presque continuellement délétère pour n'avoir pu être, dans sa suffisance orgueilleuse, que destructrice.

Les prêtres basques ne savent pas quel est leur bonheur d'être forcés de s'exprimer en des mots où sont intraduisibles les distinctions souvent périmées, toujours trop subtiles, de systèmes construits très loin de la mentalité populaire (...).

Si parfois la langue française permettrait à l'orateur d'en dire plus, qu'il n'oublie pas les circonstances nombreuses, où elle l'inclinerait à dire moins, peut-être à ne rien dire, ou à dire des riens. A parler comme un démagogue électoral (...).

Le prédicateur qui s'exprime en français court l'immense risque, sous prétexte de doctrine profonde, de glisser vers des lieux communs aussi élimés que superficiels que lui suggère une langue trop fluide. D'illustres docteurs n'échappent que rarement à cette houle de généralités qui est à la pensée, ce que la rêverie est au sentiment: un état de moindre tension. Le malheur c'est qu'ils s'imaginent faire de la philosophie. Ils sont incurables. Ils mourront ainsi. Une telle facilité demeure interdite au prêtre basque»¹⁴⁰.

Gorazarre pozoiduna hauxe: izango da euskara nahi den mi-resgarria, bere konkretutasun, intimitasun, jatortasun primitibo eta nahi diren pitxitasun guztiekin, baina beste hizkuntza «uni-bertsal» baten beharra baldin badago «besteengana irekitzeko», hura esentzialki ezaskia da hizkuntza bezala, beste hau, aldiz, bere artifizialkeria eta nahi diren koska guztiekin, beharrezkoa bera da erremedio gabe mundu modernoan. Salaberry bera dakusgu horrela, euskarari rol kuttun, baina azkenean subordinatu bat aitortzen (bere erregionalismoak erregioari egingo dion bezalaxe «aberri handia»rekiko: euskara «la langue concrète (...), la langue du sentiment» da; frantsesa, aldiz, hizkuntza abstraktu kritikagarri hori, bera da ipar-euskaldunarentzat kulturako, zientziako, pentsamenduko hizkuntza, «la langue de l'esprit». (Eta berdin, «la région, patrie du coeur, la nation, patrie de la science») ¹⁴¹. Ebidentetzat ematen da, euskaldunak frantsesaren edo espainolaren bidez «zibilizatu» behar zuela, eta espainola eta frantsesa inposatu izana bera, berez, Euskal Herriaren «zibilizatz» naturaltzat ematen da. Arazo guztia, Estatu hizkuntza horien

ezarpena euskararen bazterketa oso eta hutsarekin obratu izatean datza nonbait; moduan, ez printzipioan, hots, printzipiozko bazterketa sozio-kultural eta politikoan, euskarari espazio subordinatu bat maila sozial apaletan ametituz, esate baterako, frantsesari erreserbatuz esfera publiko, kultural, akademiko nagusiak, Inperio austro-hungariarrean txekierarekin eta gertatzen zen bezala adibidez¹⁴². Elebitasunaren arazoa horrela problema pedagogiko soiletara murrizturik, haur euskaldunen hezkuntzaren helburua ezin izan daiteke (iragan mende batzuetako oihartzunak birrentzuten ditugula, ematen du) frantsesa ongi menderatzera iristea baizik, eta helburu haren zerbitzuan egonen da euskararen irakaskuntza eskolan: «par l'intermédiaire de la culture orale basque, nous introduire à l'intérieur de la culture écrite française; accéder par échelons de la culture concrète à la culture abstraite; parvenir à la culture rationnelle, en passant par la culture affective, sans renoncer à l'une ni à l'autre, en les fécondant l'une par l'autre»¹⁴³. XX. mendean eta abertzale batek idatzi du hori! Salaberryk salatu barne-kolonialismoaren ondorioek Salaberry baitan bertan berrespen gehiago behar bazuten, «L'Aliénation» saioan Sedar Senghor aipatuz berak jartzen du susmoaren arrastoan irakurlea: «Le problème du bilinguisme est l'un des problèmes majeurs posés par le monde unifié et divers, créé par la technique. La langue ethnique, langue du coeur, doit être doublée d'une langue à audience internationale, d'une langue de la raison. «Les langues africains ont besoin de la langue française comme d'un pollen», déclare Léopold Senghor, l'apôtre de la francophonie. Le français et l'espagnol sont tombés sur la langue basque, non pas comme le grain de pollen qui féconde, mais comme la poussière de silex qui déchire. Où l'on attendait une main secourable est venue la guillotine»¹⁴⁴. *Ene Sinestea*-n korapilo hori askatu ezinda ageri da oraindik: «Frantziak eta Espainiak egin daukute ongi ederra, ekarriz gure arterat beren kultura aipagarria. Bainan Frantziak eta Espainiak egin daukute gaizki gaitza, ez utziz zabaltzerat gure kultura berezia» (ES, 174). Ez da ikusten nonbait oraindik, euskaldunek frantsesa eta espainola jakitea oso positiboa bada ere, horiek jakiteko printzipioz ez dagoela Espainiak eta Frantziak «emanak» izateko batere premiarik (Herbeheretan mundu guztiak daki ingelesa, eta ez da Ingalaterrak «emana»), beharbada «emanak» izatea dela, hain zuzen, his-

toria horretan dagoen negatiboena. Eta ez da ikusten, hizkuntzen erabilerako eremuen partiketa sozial bat egotekotan, egon beharrik ez dagoela justu horixe, bat kulturakoa, bestea sentimendukoa, mekanikoki finko, edonolako beste bariabile razionalagoak baino¹⁴⁵. Beharbada *Beñat adiskidea*-n bakarrik heldu da Salaberry hizkuntza guztiei kulturazkotasun berdina aitortzera: «Mendeak jin, mendeak joan, Euskaldun jendeak zamatu ditik beste jende zernahik bezain zuhurtzia azau. Ez gutiago. Ez gehiago. Hein berean. – Frantziak, Espainiak, Ingalaterrak, Xinak zor ditie mundu zabalari bere zuhurtziaren uztak. Berdin Britainiak, Kortziak, Euskal-Herriak. Hartzaille gaituk, eta emaile, har-emankakok mus partida ezin bururatuan»¹⁴⁶.

Gogora ditzagun berriro Unamuno eta konpainia, eta euskaltzaleen (Lizardi, Orixe) haiekiko polemika. Belaunaldi baten lehian pentsa eta jarrera berriak erdiesteko, Salaberry buruzagi ageri zaigu, heredatu dituen kontzeptu eta eskemekin borrokan, horiek eztabaidatzen, iraultzen, gaingitzen edo abandonatzen. Eta horiek pairatzen. Heredatu dugun historia garaileek idatzia den bezala, garaileen mundu ikuskera heredatu dugu –eskemak eta kontzeptuak, balioespenak, euskarari berari buruz, adibidez–, horietatik askatzeko borroka izango baita, kontraesan ezinbesteko eta korapilo guztiekin, borrokaren hasiera. Salaberry baitan eredugarriki sumatzen dira, Iparraldean belaunaldi batek aurretik askatu behar izan dituen korapiloak, gaingitu behar izan dituen oztopoak, gero izpiritu menpegabeagoek egungo aber-tzaletasuna lorarazi ahal izateko.

Iraultza erregionalista

Argumentazio teorikoan problema eta korapilo guztiekin ere, politikoki Salaberryren jarrera garbia izan da beti: erregionalismoen ordua da. «Barne kolonien erreboltan» –batzuetan iraultza ere esango du– ikusi du Salaberryk bere burua, bere ordua¹⁴⁷. «Le temps de la différenciation dans l'intégration est venu (...)». Chaque peuple a droit à une place dans l'univers. A la place qui est la sienne.¹⁴⁸ Tesi zuzenki politikoak gure autugaiak ez direnez, labor mintzatuko gara. Zein da herri bakoitzaren lekua, eta noiz hasi da ordu berria? Herri bakoitzaren bere leku hori ez dago independentzian (ez Euskal Herriarentzat, baina ezta Fran-

tziarentzat ere, independentziak ez du jada zentzurik egungo munduan)¹⁴⁹, baina federazioan (bai Frantzian, bai Europan): «(...) le mouvement qui doit déboucher dans l'internationalisme doit s'enraciner dans les profondeurs du régionalisme. Et le remède aux calamités qui nous menacent s'appelle le fédéralisme. En dehors du fédéralisme, aboutissement du régionalisme, il n'y a pas de salut»¹⁵⁰. Noiz hasi da erregionalismo/federalismoaren ordu hau? *Ene Sinestea*-n XX. mendea aipatzen da, beste zehaztasunik gabe¹⁵¹, *Beñat adiskidea*-n berdin¹⁵². Inoiz Joanes XXIII.aren *Pacem in terris* entziklikaren esanahi substantziala gogoratu izan du mugimendu honetan (ES, 98)¹⁵³. «L'Aliénation» saioan Gandhi eta iraultza hindua seinatzen ditu askapen iraultzen jarraipen eta mugarri bezala: «Trois révolutions ont scandé les deux derniers siècles. La Révolution française de 1789, ou l'affirmation de la personnalité contre le despotisme politique; la révolution russe de 1917, ou l'affirmation de la personnalité contre le despotisme économique; la Révolution indienne de 1947, ou l'affirmation de la personnalité contre le despotisme culturel (...). Et cependant nous sommes les fils des trois Révolutions réunies»¹⁵⁴.

«La défense d'un peuple entraîne un combat sur deux fronts: le front culturel, mais aussi le front économique»¹⁵⁵. Borrokako fronte ezberdinen mintzamolde hori beste nonbaitetik zen orduan oso ezaguna. Zergatik ez da aintzat hartzen fronte politikoa? (Testu hori 1967koa baita). Salaberry eta Enbataren arteko auziak Davant-en autugaia dira hemen. Politika utzi egingo dugu, hortaz¹⁵⁶. Bortxa denaz bezainbatean, esan beharrik ez, ez duela onirizten¹⁵⁷.

Zentralismo ekonomiko frantses (paristarr)aren¹⁵⁸ eta Ipar Euskal Herriaren odolustutze demografikoaren salaketak¹⁵⁹ ugarriak dira Salaberryren luman. Ez da nekatuko eskatzen Ipar Euskal Herrian lantegiak, Pirinioetako eskualde ekonomikoak¹⁶⁰, etab. Horren pare eta horrekin bat, fronte kulturala indartu behar da. Fronte kulturalak euskara esanahi du, batik bat, baina ez euskara bakarrik (Salaberryk ez duela euskararen esanahiaren bere gogoeta egin gabe utzi, azpimarratu behar da, hala ere)¹⁶¹. Berdin, eskola onak gazteentzat, tekniko onak, etab.¹⁶². «Jakitatea

gauzetarik beharrena, ez bakarrik izpirituko ilunben haizatzeko, bainan oraino eskuko indarren emandatzeko; ez bakarrik munduko koropiloen desegiteko, bainan oraino munduaren hezteko, orrazteko, eta nolazpeit gizontzeko, Jaungoikoak utzi baitio gizonari mundua bere ontasun» (ES, 37). Inportantzia partikularra memoria historikoaren birreskurapenak ditu: «Jalgiko da Euskadi herioaren lauzapetik, orroitzearekin eta ohartzearekin bere seme izan dituela Loiolako Iñaki, Xabierreko Frantxes, Baionako Duviergi de Hauranne, Ibarreko Mikel, Bilbaoko Unamuno, eta Elcano, eta Bolivar, eta Ravel, eta bertze. Jakintzak du geroaren atea idekitzen politikari, eta politikak ekonomiari. Ikasi duelarik bere nortasuna, Afrikako gizonak bildu du bere askatasuna. Nortasunetik askatasuna, eta ez askatasunetik nortasuna. Hila izanzen zen, aspaldi, Euskal-Herria, ez balitu ukan goreslari plekaria, dantzaria, kantaria, bertsularia» (ES, 40). Baina Salaberryrentzat kulturalki indartzeak euskal jendea bere balioetan indartzea ere esanahi du, deskolonizazio linguistikoa bezalaxe deskolonizazio morala («gauden gu!»)¹⁶³, telebistatik datorren erasoaren aurrean¹⁶⁴.

Labur: euskal iraultza erregionalistaren zutabeak hezkuntza eta lana izan behar dute¹⁶⁵. Salaberryk badu horretan bere arbasoen arteko Garra de Salagoity, XVIII. mendean Donibane Lohizunen Hidrografiako Eskola bat itsasturien irakasteko sortu zuen ilustratuaren eite¹⁶⁶.

Filosofia

Arrotza bezala eta –izan ere agian bazen– nolabaiteko agresioa bezala sentitzen zen fedegabekoa, itxura dizunez, Salaberryren egunetako Euskal Herrian, azken urteetara arte behintzat¹⁶⁷. Gizarteko fedearren eta bere propioaren ziurtasunetik naturalki abiatu ahal izan du Salaberryk filosofian ere, «crede ut intelligas» maxima agustindarraren arabera alegia¹⁶⁸. Munduaren eta geure buruaren aurrean, ezjakinak gaude eta, edo sinestuz hasten gara ulertzen, handik ulertze razionalera iristeko (San Agustin), edo razionalki ulertuz hasi eta sinestera heldu (Abe-lardo). Salaberryrentzat aurrenekoa fedea da, fedea laguntzen digu ulertzen. Hala ere, apezten artean, filosofotzat dauka batez

ere bere burua¹⁶⁹. Ainzia-ek oso egoki berriro: «Filosofia zer da Salaberryrentzat? Hastetik gauzak garbiki erraiteko, fedearen lagun leial kartsua. Ez ditu sekula bereiziko bere sinestea eta diskurtso filosofikoa, hau haren zerbitzuko baita»¹⁷⁰. Lerro batzuk geroxeago: «Ez ditu bereizten Salaberryk filosofia eta zuhurtziaren adiskidantza, berak dioen bezala. Ez du teoria filosofiko bat eraiki, ene iduriko, baizik errepikatu harentzat ideia lehenak ziren printzipioak»¹⁷¹. «Pour le chrétien dont le regard devient lucide sous la foi», idatzi du Salaberryk ja oso goiz (1937)¹⁷². 1950ean «Saint Thomas qui s'en fut de la science à la sainteté et de la sainteté à la science» konferentzia dizu, izenburuak nahikoa baitio. Hemen hartaraino ere badoa, bat egiteraino fededunaren pentsamendua, Elizaren pentsamendua eta San Tomasen pentsamendua¹⁷³. Hau ez da errepikatuko berriz haren obran. Baina, agian, ez doktrina aldatu delako, jarrera baizik.

1950ean jada filosofia, zientzia, santutasunerako bide eta laguntza kontsideratzen da. Zientzia praktikoa da, beraz (ez eza gutza teoriko edo kontenplatibo soila, «librearen gozamina» Aristotelesen arabera). Bere oroitzenetan Salaberryk gerra, eten erradikal bat bezala agertzen du bere bizitza intelektualean oro har¹⁷⁴. Filosofiari dagokiona, doiago, irakasle gaztearen interes teoriko abstraktuetatik praktikoetara itzulera bat bezala. «Gerla aintzinean, bertze nunbeit ene gogoa. Zer ziren «esthétique», «logique», edertasungoa, zuzentasungoa? Zer zabilan Bergson gure mendeko San Agustin paregabeak, zoin ziren jakitatearen eta sinestearen lokarriak?» (ES, 174). «Gogoko gogoetek zuten ordu arte ene arta berezia. Gogoko gogoeta mailetik jautsiko da orduz geroz ene gogoeta egun guzietako aharra-mailerat: euskaldun ekonomia, euskaldun geroa, euskaldun fedea, ene bihotzeko kezka» (ES, 177). Aipatu dugu, nolabait bere intelektualismoak krisi bokazional bat ere probokatu ziola. «J'ai cru, presque immodérément, à la grandeur de l'intelligence lucide» (ES, 105), aitortu du, gerrara abiatzeko bezperan disposatu azken nahian.

Jakina, teoriko/praktiko oposizioa askotariko esanahitsua izan liteke. Norbaitek esango luke, Salaberryren jarrera filosofian, hasieratik bertatik praktikoa izan dela, hura teologiaren zerbitzuan enplegatu baitu. Horregatik, errigortsuki, gerrak gogoeta teorikoetatik praktikoetara eraginiko irauliaren esanahia, gehiago

da zalantza gabe, logika edo estetika hutseko auzi eskolakoetatik, esaterako, (Euskal Herriko) arazo konkretuetara, Seminario-tik kanpora bere lan kazetaritzazko eta konpromiso egunoro zabalagoek agintzen ere zioten bezala¹⁷⁵. Idatzi, de fakto, ez du *de ente et essentia* idatziko, eta bai euskal alienazioaz. Baina zer irakatsi du? Jakingarria bailitzateke ikasle ohiren batek hori biltzea/gogoratzea.

Filosofa kazetari eta saiolaria

Idazkietan hamaika aztarna badago, Salaberryk filosofia azke-nera arte zeregin erlijioso-teologiko, apostolikotzat, eta moral-tzat, eduki duela, ondorioztatzeko. Asmo horretan egin da, egin ere, apez irakasle, momentuan Elizak behar zuenena, defentsa intelektuala zelakoan¹⁷⁶. Horregatik askotan sinonimo bezala erabiliko ditu filosofia eta zuhurtzia berbak. Baina, kasu!, praktikan ez dut uste Marx, Nietzsche edo Sartre-ren filosofiari erreferitzeko, Descartes-i ere eta beste hainbat «gogolari»ri, sekula erabili duenik zuhurtzia berba. (Azterketa terminologiko xehe bat beharko litzateke, beste puntu askotan bezala). Zuhurtzia bere filosofiari deritzo inondik ere. Eta «herri filosofiari» edo antzinakolari (baina Demokrito bat bai ote, esaterako?): «Hunkigarri Greziako zahar argitu, zuhurtziaz beteak. Hunkigarri Euskal-Herriko zahar, laborari edo artzain xehe, zuhurtziaz argituak» (ES, 117). Hala ulertzen du bere lana: «Filosofiaren edo zuhurtziaren erakasleak ez dik bere eginbidea betetzen, badu bakarrik filosofia edo zuhurtzia erakusten, ez badu, tenore berean, filosofo edo zuhur ozkarat ikaslea altxatzen, izan dadin bere buruaren jabe, bere buruaz hobendun»¹⁷⁷.

Bere filosofiaren (edo filosofiaren kontzeptuaren) eboluzio bat baino gehiago, interes filosofikoaren zentzu eta, batez ere, eremuen alde berrietara irristatze, hedatze bat dagoela, esango nuke. Filosofia, apologetika erlijioso bat izanez hasi da; gerra ostean Euskal Herriaren gogoeta eta apologetika bilakatu da: euskal karakterologiaren, soziologia, ekonomiaren, «euskal egia»ren iker eta gogoeta (ES, 177, 179). Presokanpoan akordatu da gizon-emakumea, klasearena edo kategoria abstraktuena baino lehen, herrikideena dela lagun hurkoa (ES, 152). Cohen judu ezkutuan kristauak, tragediaren orduan bere herriaren madarika-

zioari atxikiak, egiazko zuhurtzia norbere herriarekin egotean datzala, irakatsiko dio¹⁷⁸. «Ez da bere jendetik behexi behar, zorionean, ahal bada; zorigaitzean, nihola» (ES, 156). Stalag-etik etxera etorri eta, filosofiako irakasleak praxi berri bati ekingo dio, Euskal Herriarekin eskuz-esku, filosofia utzi gabe. Lehen teologiaren bezala, orain Euskal Herriaren zerbitzuan jarriko du filosofia.

Filosofiako profesore batentzat erraz bilaka daiteke filosofia bera helburu. Salaberry hezia izan den tradizioan («ancilla theologiae»), orain ekingo dion bide sozial-kritikoan bezala, filosofia ez da bera helburu, tresna bat da gizartearen zerbitzuan.

Horrela harturik, filosofia eta filosofoaren zeregina (bere kasuan, h. d., Euskal Herrian), egin nahi duena eta bere ustean egin beharra duena, definitzeko, Salaberryk lau kontzeptu/errealitate elkarlotzen ditu: bertsolaria, apezka, olerkaria, filosofoa. Denak euskaltasunaren bilbe izpirituala osatzen bezala. Euskal Herria antzinako herri bat da, antzinako gizon-emakumearen dohainak –intuizioa, zuhurtzia– galdu ez dituen¹⁷⁹. «Baduk olerkari bat gordea Euskaldun guzien bihotzean»¹⁸⁰. «Olerkariak bertzek ikusten ez dituzkenak ikusten ditik, bertzek aditzen ez dituztenak aditzen. Olerkaria duk iragan gizaldien oihartzuna, jin behar gizaldien aharrosia, mintzorik ez dutenen mintzoa»¹⁸¹. Olerkari-tasuna intuizioa da, begi zolitasuna, argikuspena, barne pindarra, sormena bere eta besteren barnetik, giza ahalmen elemental bat: «izpi bat olerkari ez dena ez duk izanen nihoiz ikertzale, jakintsun, laborari, artzain, idazle, erakasle ala saindu»¹⁸², alegia, olerkaritasun gabe antzua geratzen da pertsona. Olerkariaren euskal forma espezifikoa bertsolaria da, eta euskal populuaren apezka laiko antzeko zerbait da berau. «Ukan duk –idazten dio Beñati-bertsulari-olerkari dohaina, apezak ukan duen bezala apez tirria. Biak zirezte egiaren, ongiaren, ederraren lekuko [gora Platon!, biba lezake irakurleak], erran nahi diat, Jainkoaren eta jendearen zerbitzuko»¹⁸³. Azkenik, olerkari bertsolariak azalera ematen duen barne bizia, bere filosofia da: «bizia eta filosofiak bat die egiten (...). Gure urratsek idazten die kanpoan, barnean dauka-gun filosofia»¹⁸⁴.

Honelako testuak, heideggerianoak ez dira, eta beharbada ez dira, diruditen bezain inofentsibo eta neutroak ere. Ezten pole-

miko bat zenbait kritikoren aurka eta autodefentsa bat ezkutuzten dute seguruenik. «Apez lagun batek jalgi zaitaian, gure gizona kontzetarik jalgia: «Kasu egizak, eman beharri. Aditua diat bazterretan diotela ez haizala gogolari, bainan bai olerkari». – Eta nik ene baitan: «Agian egia dukeie hola mintzo diren gizagai-zoek. Banintz bertsurik gabeko olerkaria, orduan nintakek, orduan, egiazko gogolaria»¹⁸⁵. Ironia ozpin hau probokatu duena, filosofoa eta olerkaria elkarri kontrajartzen dituen ikusmolde, zenbait filosofo modurena da, Salaberryen inguruan ez hain zuzen positibistak edo analitikoak, ezpada soil neotomista/neoaristotelikoak suposatu beharko ditugunak, bere inguru eliztarrekoak ausaz. (Aita Villasantek -arras neotomista bera-, Salvatore Mitxelena desenkusatzeko bezala esaten zuen, hura poeta zela¹⁸⁶. Poetak, badakizu, ez dira izaten jende serioa, oso razionala!). Aztertzailearentzat zantzu interesgarria da, Salaberryk problemak izandu izatea bere ingurumenean filosofo bezala ezagutza aurkitzeko. Izan ere, seguruenik ez du adierazi nahi olerkiak argitara zituela bakarrik (eta olerkiak argitaratzea filosofoarentzat lotsagarri juzgatzen zuela bere inguruan zenbaitetek), baina hola juzgatzen zutenena baino berak bestelako filosofia bat zeukala ere, olerkari bati dagokion (ez)filosofia hain zuzen. Harrigarria da, Salaberry neotomismoan hazia eta eskolatua izan da, baina bere izkribuetan ia inoiz ez du aipatzen San Tomas, Aristoteles apenas gehiago, Elizako filosofia ofizialaren bi pilareak (edo bat bakarra, biekin bat eginez). Susmoa beharbada haizu da, hortaz –hurbilagotik ezagutu dutenek, argitu beharko lukete–, Salaberry, bere aldetik, (pseudo)razionalismo ofizial horretatik aski goiz aldaratu eta bere kuasi-sistema batera¹⁸⁷ etorri dela, San Agustinen ildoanago¹⁸⁸, barnetasunaren bideanago (krezioaren kontenplazio razionalarenean baino)¹⁸⁹, Bergson eta besteren batzuegan inspiraturik, beharbada pentsamendu eskolastikoaren egitamu orokorra guztiz abandonatu gabe (berak egiten duen zenbait filosofoen irakurketak hori pentsarazten baitu), elementu berriekin nolabait antzaldatu. Bere Kant eta Bergsonen kontrastapenak, adibidez, intuizioari («asmua») aitortzen dion balioak, eta hori San Agustinen «bihotzaren begiekin» identifikatzeak¹⁹⁰, holako zerbait ondorioarazten du¹⁹¹. Logikoki, filosofiaren kontzeptu honekin, olerkaria ez bakarrik ez da filosofoaren ukazioa, haren oinarria eta gailurra baizik. Poetiko-teo-

logikoki bezain legitimoa izango da filosofiko-razionalki Salaberryren azken xedea: «Ahal badugu behar diuk izan saïndu, ahal badugu, ahal bezenbat izan olerkari»¹⁹².

Arazo konplexua izan bide da hori Salaberryren buru-bihotzetan, gatazka artean erdietsia baitu bere postura filosofiko hori. Harentzat ere filosofia, poesia, teologia, giza bizitzaren oro har jomuga den egia, tradizio platoniko-agustindarrean, 1) absolutua da, historiaz gaidikoa, eta 2) Ongiarekin bat. Bia: gauzak diren bezala ikusteko, behar da bihotza garbi, dio Salaberryk. «Behar da itzuli Ongiaren biderat, nahi bada heldu Egiaren bururat (...). Ongia ongi esku emaiten duelarik Egiari. Egia egi, esku emaiten duelarik Ongiari. Ez dira elgarri bizkarrez egoiteko eginak, Egia eta Ongia...», teoria eta praktika alegia (ES, 10). Eta bat: «Egia osoa nor-beraz gorago kokaturik dago. Egia, E haundiarekin, betidanik, bera da. Ezin aldatuzkoa (...). Gizonaren izaria Egia, eta ez Egiaren izaria gizona. Egia osoa Jaungoikoa» (ES, 11)¹⁹³. Erlatibismoa («bakotxari bere egia») errotik arbuatzen da: berak dirudi orain Mussolini, Hitler, Franco, Stalin, XX. mendeko tirania gaiztoenen arrazoia (ES, 10-11), «nazizmorat itzul-arazteko pozoina»¹⁹⁴. Behin, egia absolutuaren lekuan alderdiarena, nazioarena, etab., ezarri izana, zibilizazioaren hondamendiaren kausa bezala salatzen du (ES, 90). Egiaren berbaitakotasuna eta absolututasuna (tokia eta denboraren gainetik, ES 11) beti printzipio ukiezin bezala proklamaten da. Hori dogma da, bera hazi eta hezi izan den eskolan. Ez du ikusten –filosofian berak heredatu zituen kontzeptuetan, Egiaren eta Jainkoaren identitateak naturalki agintzen baitu–, dogma hori nola hastan lezakeen filosofo bezala, sinestedun bezala huts egin gabe. Handik askatu nahitã ibili bai, nahikoa ibili zena, pasarte polit batean berak erakusten digu, baina ezin izan zuen; alde batetik ihes egin eta, San Agustinen Jainkoak berriro biltzen baitzuen bestetik. «Luzaz xoraturik ezartzen nindian Lessing aleman gogolariaren aitormenak: «Jaungoikoak eskaintzen balaut esku batean Egia, eta bertze eskuan Egiaren bilatzea, erran niezoke: Jauna, atxik-azu Egia eta utz-nezazu Egiaren bilatzea!» Ahanzten nian Egiaren bilatzeko gutizia dugula [hori San Agustin da!] Jaungoiko osoki Egiak gure ariman utzi erhi hatza»¹⁹⁵. Bere kontzeptuek harrapatua, ezin Egia absolutuaren dogmatismoarekin etsi, erlatibismoa ere aitortu ezin (bere ondorio erlijioso eta moralengatik), soluzio bat baino

gehiago bere borrokaren ispilu den perspektibismoan, aurkitu usteko du Salaberryk irtenbidea, beste askoren antzera: «Behazazu Baigura mendiari. Mendi bat da. Halere Heletatik, Irisarritik, Orzaizetik, Bidarraitik, Luhosotik bortz itxura badituzu, bortz mendi balire bezala, mendi bakar batean josiak. Bortz behatzai-
lek bortz mendi ikusten, bat delarik mendia» (ES, 11-12)¹⁹⁶. Egia bat da, baina (pertsona, garai) bakoitzak bere maneran atzema-
ten du. «Ez bada mugitzen Jaungoikoaren izaitea zeruan, higitzen
da gizonak Jaungoikoaren izaiteaz duen ezagutza lurrean» (ES,
15)¹⁹⁷.

Perspektibismoak ate bat zabaltzen diola, ematen du, izpiritu irekitasunerako. Pentsamendu –filosofia, erlijio– ezberdinek, ba-
koitzak egia osoaren alde bat islatzen du, denek islatzen dute
egia, denek dute Egian parte. Salaberryren –originala izan nahi
ez duen– errezetan: «Toute vérité est nécessairement chré-
tienne»¹⁹⁸. Baina hori, filosofian bederen, aitorten teoriko hutse-
tatik apenas pasa ahalko da aurrerago, «egiak» kontrarioak dire-
nean batik bat, eztabaidatu eta razionalki ebatzi beharra egongo
baita, zein den baten eta bestearen egia. Salaberryren egiaren
kontzeptuak, –ez mailak eta ez eremuak inoiz berezten ditu,
hots, egia razionala, fedekoa, zientziako ala filosofiakoa, estetika,
moral edo usadioetakoa¹⁹⁹, egia informazioan, politikan, etab.²⁰⁰–,
harentzat azkenean dena bera baita, praktikan, bere egiatik kan-
pora oso egia gutxi aurkitzen du. Bi kapitulu diferentzia deza-
kegu bere antierlatibismo praktikoan: estriktoki filosofikoa eta
politiko-morala. Bigarren hau da, maizena Salaberryk buruan izat-
en duena, erlatibismoaz badihardu. Orduan, erlatiboa harentzat
berdin alderdikoia, berdín gezurra da (eta gezurra berdín mo-
ralki zuzengabea) (ik. ES, 10 eta hurr.). Erlatibismo honen etsen-
plutzat, Camus-ek, arrazoa frantsesek ala aljeriarrek zuten gal-
detua izanik, behin emandako erantzun sonatua har daiteke:
«egiaren eta ene amaren artean, hautatzen dut ene ama»²⁰¹. Edo
Sartre-ren ateraldi berdín famatua: «Ez da Billancourt desesperatu
behar»²⁰². Salaberryrentzat hori, kasu bietan, zuzengabeki egia-
ren gordetzea da, eta «egiaren gordetzea duk gizonaren guties-
tea, ez-gizon gisa ekartzea»²⁰³. Intelektualak egia hutsa eta egia
osoa esan behar du beti. Gainerakoa (ez da erlatiboa, partziala)
gezurra da. Hemen ez da perspektibarik edo egiaren ezinbesteko

zatzikotasunik aintzat hartzen. «(...) Huna gogolariaren gogozko lehen eginbidea: egiaren, behatz karramaska bat eman gabe, den bezala, hala-hala jalgitzea. – Munduko izurriteak heldu dituk oro gezurretik. Gezurraren aita, debrua»²⁰⁴. Baina antierlatibismo praktiko arruntena ageri da –nahiago bada, itxikeria– bere «*philosophia perennis*» hori ez den beste filosofia moderno guztiarekiko bere jarrera, funtsean interes gabeko edo superfizialean (salbuespen bakanak aparte aipatuko dira).

Filosofiaren erabilera literario bat

Izan ere filosofia «akademikoa» ez zaio jada interesatzen, bere esku arteko arazoan tratamendurako lagungarri gisa ez bada. Kultura filosofikoa badu franko, hots, irakurketak. Soziologian, antropologian. Psikoziientziak bereziki interesatu zaizkiola, ematen du: Freud (ES, 62, 115, 117)²⁰⁵, Jung, (ES, 60, 62), Adler (ES, 63, 64)), etab. Teilhard landu eta jorratu du, harekin kritikoa da eta haren kritiko zenbaitekin are kontrakritikoago²⁰⁶. Sintomatikoa izan daiteke, bere formazioaren ondare zalantza gabe, filosofia klasikotik gehien aipatu ohi dituenak, XVII. mendeko metafisikoak direla, horiek keru negatiborik gabe jeneralean: Descartes, Spinoza, Leibniz; baina horiek ere zuhur hitz edo aiputxoren batekin, ia beti topikoa, edo iragaitzeko erreferentzia soil bezala. Zori hobegoxea, orri erdi bateko azalpen Salaberryrentzat salbuesgarriki luzea, Kant-i bakarrik tokatu zaio: ez, ordea, bidenabar sofistika gogoratu gabe, eta Bergson-ek hura nola gainditu eta atzera utzi duen erakusteko kariatz²⁰⁷. Kant-en azalpentxo hau berau nahiko topikoa da, ez dago inola ere kontzeptu kantiarretan espresatua (zorrotz hartuta, azalpenak huts larriak dituela, esan ahal izango genuke)²⁰⁸. Inpresioa egiten du, Kant ez haren testuan, baizik Bergson-en orrietan irakurri duela, eta (Bergson-i buruzko artikuluan idatzi baitu) Bergson-en terminoetan mintzo dela haren filosofiaz²⁰⁹.

Salaberry ez da oso eskrupulutsua izaten autoreen aipuak egitean, nahiko libre eman ohi ditu haien esanak, burura etorri ahala edo bere asmoetara egokituak. Hala ere *Arrazoimen praktikokoaren kritika* amaierako esakune famatuaren bertsio honek pixka bat deseroso sentiarazten gaitu nahitaez: «Izarrestatu ze-

ruak gure buru gainean, eta *ongirako lehiak* [nire azpim.], gure zola-zolan, hara zerk betetzen gaituen mireste beti erreberri-tuaz»²¹⁰. Errigortsuki, gizakiaren zolan ongirako lehia natural bat balego, ez legoke moralik batere Kant-en zentzuan. Beste batean, enetzat kriptikoa da, egiten duen Kant-en erabilera. Salaberry gaixo dago, lo egin ezinda. Sendagailuak loarazi egin nahi, gaitzak ez uzten lo hartzen, borroka hori tabu eta transgresioa-rekin berdintzen da²¹¹. Ezusteko honi ezustekoagoak jarraitzen dio: «Kant-en arabera, baldintza gabeko manamenduak dio gizonari, aldaratuz baldintzako edo hautuko manamenduak: «gizak ongia; baztertzak gaizkia» [!]. Trufatu dute Kant: «Solas horrek iduri dik Prusiako kaporalaren oihua, harek ez baitu argitasun pilik ematen». Ni nago Kant ez zenez ohartua badirela ordu nahasiak, nun ez baita eman behar xehetasunik, xehetasun bati bertze xehetasun bat itzul baititake, nun mintzatu behar baitu laburzki eta idorki tabu barnetik jalgiak. Berdin zorrozki mintzo da Jaungoikoaren manamendu tabu bilakatua. Berdin garrazki mintzo zaio eriarri sendatzailea» (ES, 181). Eta segidan, bukatzeko, honekin logikoki zer ikusi behar duen, igarri ezin diogula: «Kant-ek zerasan: «Mugatu dut jakitatea, toki egiteko sinesteari» (Ib.). Azkeneko hau aipu kantiar ezagunaren aldaera zuzen samarra baldin bada ere²¹², aparte utzirik ere ez dagokiola arrazoimen praktikoari, baina arrazoimen hutsaren mugatzeari, ezin du haatik aho bete hortz edozein ez utzi, Salaberryk egiten duen inperatibo kategorikoaren irakurketa psikologizante, hain zuzen arras baldintzatuak («ordu nahasietan»!). Honek denak Kant-en erabilera librea baino beste zerbait ematen baitu²¹³.

Ohar inportante bat, beraz. Salaberry eta filosofiaz esaten ari garena zuzen ulertzeko, haren testuen izaerari behar da beti kontu egin, h. d., hark a) zeinentzat, b) non, eta batez ere, d) zein gaiez jardunez, barreiatu zituen, orain sistematikoki biltzen eta puzzle batean elkar-josten dizkiogun testuak (berez elkarrekin zerikusirik ez zuten irizpenak, testuinguru arras ezberdinetan emanak, askotan urteek banatzen dituztenak bata bestetik). Salaberryk globalki Marx-ez, existentzialismoaz, zer pentsatzen zueñ, zuzenean eta sistematikoki berak ez du idatziz inon azaldu, eta izkribuetatik gaur ez daukagu haren egiazko pentsamendua birregiterik, horietan aurkitzen diren erreferentzia filosofikoak, guztiz zirkunstanzialak baitira, kultura filosofikoaren

erabilera gehienbat literarioa, ez esateko erretolikoa, askotan behintzat. Filosofiako irakasleak idatzi inon ez du filosofiako ikasleentzat, edo publiko filosofiko batentzat, edo zuzenki autugai filosofikoko testu batean bere iritzi horiek idatzi. Irakurketa kritiko batean gu orain egiten ari garenak, hortaz, berak egin zuena deformatu egiten duela, eduki beharko du gogoan lerro hauen irakurleak.

Askotan filosofo bat edo bestea –goiko Kant hori, adibidez– gaztetxoen irakaskuntzarako, ezpai gabe, berak eginak zeuzkan sinplifikazioen maneran aipatzen ditu. Izan ere, ez da Kant esplikatzeko ari, beste zerbait esplikatzeko Kant-ez baliatzen baizik. Bere artikuluetan –eta horiek soziopolitikoak edo dira– filosofia-ren historiaren erabilera eruditu eta, esango nuke, anekdotiko edo ilustratiboa egiten da gehienbat. Ez dira falta, ohi dizunez, Tales eta neskato traziarraren barrea²¹⁴, Heraklitoren negarra²¹⁵, Platonen akademiako platanoa eta solas filosofikoak arbolapeko itzalean (ES, 149), Newton-en baratzean beti une-unean erortzen den sagarra²¹⁶, Leibniz edo Pascal-en zuhur-hitz oportunoak. Autore gaiztoak berak, apologetikarako balio badute, onak dira. Voltaire-k ezingo du isildu, «nola sinets erloi hori ibil ditakela, erloikinik izan gabe?»²¹⁷. Newton-ek ezingo du ez esan: «Jakitate gutik erreligionetik urruntzen gaitu, ainitzek hurbiltzen»²¹⁸. Sartre bera, moral burges laiko edo Jainko gabekoaren funts gabezia salatzen, aliatu egokia da²¹⁹. Eta Camus, behin fartzuntzia²²⁰, gizatasun sendoaren profeta bihurtzen da, euskaldunon patuaren Sisifo-harria aipatu behar den orduko²²¹. Hegel-i beti bil dakizkioke aipaldi polit batzuk²²². Bakarrik, Heidegger-i justu aipaldi hauxe hartzeak: «Begira-zak gain-gainetik bihotza, handik jalgitzen baitzaizkik biziaren iturriak» (ES, 72), ustekabean harrapatzen gaitu. Eta ez, hori berez oso Heidegger-en pentsamendua ez delako, ezpada biziaren iturri horiek Salaberryren testuinguruan sinestearen iturriak bihurtzen direlako. Jarrai liteke, baina ez litzateke gizalegezkoa gure aldetik, eskolako moduan ez, baina dibulgatiboan idatzi dena, errigortsuki modu hartan juzgatu nahi izatea, eta ez dut jarraituko.

Polemika artean

Existenzialismoa Salaberryren egunetako, esan dezagun, moda filosofikoa izan da – Sartre, Simone de Beauvoir, Camus. Filosofia egun haietan beretan Hegoaldean eragintsu honekiko Salaberryren jarrera oro har negatiboa da. Agian gehiago tonuan, hala ere, mamian baino. Haiei buruzko bere juzgu zakar askok pentsarazten duena baino konplexuagoa batez ere. Idazle existenzialistak berak moral eskaseko jendetzat dauzka. Komunisten bidelagunak, ezkertiar manikeoak, egia eta ongia alderdi batean bakarrik ikusten dutenak, haren alde egia sakrifikatzen dutenak. «(...) Spectacle dérisoire et lamentable que celui de Sartre et de Simone de Beauvoir, enfants de la culture française, confondant la sainteté avec l'implantation à gauche, le péché avec l'enracinement à droite, l'homme de droite pourrissant selon le terme abominable de Sartre «en un salaud»²²³. Alderdikatzeko politikoak alde batera, Salaberryk andre-gizonaren kontzeptu existenzialista –«selon le mot sinistre de Sartre, «un paquet d'entrailles»²²⁴–, ez bide du laketa, testu batzuek adierazten dutenez. Are ez lake-tago, absurduaren doktrina eta andre-gizonaren jainkotzea bere buruaren egile gisa. Existenzialistek «bizia iduri zaiote dela bururik ez buztanik ez duen zer okiloa. Begitartea daukate ilhun, mintzoa zorrotz, hats-behera luze. Bainan begitartea ilhun, mintzoa zorrotz, hats-behera luze jarri orduko, begitartea xuhailtzen zaiote, mintzoa goaitzen, hats-behera jabaltzen. Ohartu dira denbora funts-gabearen erdian, dagotzila xut-xuta funts gabe. «Oro funts gabe dira, beraz funts gabe naiz» dezakete oihu egin. – Bere jabe egoitea, bere bertasunaz bere bermolderat jokatzeko, hori zaiote gizentasunaren froga. Gizentasunarena, edo hobeki jainkotasunarena, Jaungoikoa egoitea gatik bere izeiteaz osoki jabe. «Egiten dut nahi dutana, nahi dutana, dut egiten», dio Jean Paul Sartre-ek.²²⁵ Funtsgabetasuna eta absurduaren doktrina, eta askatasuna eta bere buruaren egiletasuna ez da esplikatzen, nola lotzen diren, eta paradoxala gelditzen da. Hain zuzen hementxe, ordea, existenzialisten eta Bergson-en artean hurbiltasun bat nabaria da, honen «preexistenzialismoa» ez baita noizbait arrazoirik gabe aipatu izan. Bergson-en arabera, materiatik bizitza bezala, naturatik jaiki eta goitituz doa andre-gizona izpirituaren eremu berrietara, heroismora, santutasunera, berak egiten dituen, bera eginen duten espazio moral berrietan barrena. Horre-

tan datza gizon-emakumearen askatasuna, autokreatibitatea. Diferentziak diferentzia, hori oso kristaua ere bai baita, Salaberryk ezin du Sartre-ren humanismo errotiko hau gutxietsi –«askatasuna baita harentzat gizonaren mami samurra» (ES, 81)–, gizatasunaren haren balioespen gorena, Salaberryk Jainkoarekin egiten duen bezalakoxea, hark Jainkoa gabe. Humanismoak, esan dugun bezala, erlijioaren hondarrak dira. Eta hondarrak diren heinean, erlijioaren gordailuak nolabait, Salaberryk berak erreparatzen duenez: «Behar zen aspaldidanik giristino izan holako fidantziaren ukaiteko gizonen. Erraiteko gizonari: «Haia, jeiki, akula, jo, zanpa. Ez duk hala beharra hire jabe. Hi haiz hala beharraren itzain eta nagusi» (ES, 115-116). Beraz, Salaberry Sartre-ren andre-gizonaren aski hurbil dago; haren testua askotan tindu existentzialista batez koloreztatzen da. Baina gauza gehiegi dira, aldi berean –ez jainkogabetasuna bakarrik– existentzialismotik hurbil dagoenean ere, harengandik urruntzen dutenak, eta hemen humanismo horren indibidualismoa izango da. Andre-gizon bere buruaren egile hori, nahitaez, norbanako itxi, bekaiztia da, hurko ni bere buruaren egilearen ezabatzailea. Bera subjektu izanez bestea objektu bihurtzen duena. Gogoeta hau berez ontologiko-existentziala da (nortasunaren «objektibatu» ezintasuna, alegia, beti nor eta ez zer, izatea, Salaberryren berbetan). Baina Salaberryk adiera moral edo psikologiko gaizto batean hartzen du. «Jean Paul Sartre-n arabera, bertzen soa beti herra dariola, beti hiltzale soa, egin nahi bailezake norbeitetik zerbeit, bizidun batetik, gauza bat»²²⁶. Ni beti hiren etsai. Kristauak, euskaldunak, osteratzen du Salaberryk, ez dute hola ulertzen bere nitasuna²²⁷. Hauen niak hia barnebiltzen du. Hala, orain hurbil, gero urrun, esango nuke Salaberryren borroka existentzialismoarekin, borroka etengabe bat bere buruarekin eta bere kontzeptuekin izan dela, azkeneraino. Eboluzioaren bi periodo garbi baino korapilotsuagoa nolana ere, nahiz bere pasarte batek horrelaxe azaltzen duen. Kasik dibertigarria da (argigarria ere badelako, zein interes pertsonalekin bera doktrina filosofikoetara hurbildu ohi zen ikasteko ere) ondoko aitorten hau memorietako «Berriz sortze» kapituluaren hasierakoa dela. Salaberry gaztea, estudiante eta filosofiazale, euskalduntasunaz ahazturik ibili da garai batean –bere buru indibidualaren egile!–, gerrak eta presokanpoak bere euskalduntasunaz oroitarazi duten arte. Hona

hemen testua, interesgarria baita, esperientzia pertsonal hori zein terminotan espresatzen den: «Hire burutik egiten dukana, hura izanen haiz», derasa Jean Paul Sartre frantsesak. Askok Euskaldun, bazterturik euskaldungoa, egiten dira, beren nahitarat, Frantses edo Español, Paristar edo Madriletar. «Hizan hura bilaka hadi», dio, Pindare Greziako bertsulariaren ondotik, Nietzsche alemanak. Askok Euskaldun, beren hauturat itzultzen dira baztertua zuten euskaldungorat. Gerla aintzinean, ene tirria, Jean Paul Sartre-n alderat. Gerla ondoan, ene deia Pindare eta Nietzschen alderat» (ES, 173). Testu paradigmaticoa da Salaberryk existentzialismoarekin daraman borroka korapilotsu irabaztezinarentzat. Euskaltzaletasunera itzultzea «berriz sortzea» da (bere buruaren egintza: beraz, Sartre); baina paradoxalki «bere ahanzi jite berezirat» itzultzea da sortzea, lehendiko natura batera hortaz (eta, hala, norbere burua egitea Pindaro da). Berdin nahaski jarraitzen du. Natura hartatik behiala aldaratu zutenak, hezkuntza, askatasuna, indibidualismoa, dira, Sartre-k inkarnatzen duen alderdia (autokreatibitatearena); orain «sortze berri» batez nora itzultzen den hori, natura da, kolektibotasun edo herritasuna, jatorrizko izana («haizena» – bilaka hadi). Joan-etorri guztiari «berriz sortzea biziak makurtu bere biderat» derizkio (Ib.). Paradoxala, baina, zera da berriro: biziaren jatorrizko bidetik okertu, «nahitarat» egiten dela, bidera -naturara- itzuli orobat «hauturat» egiten dela. Ez Pindaro (agian Nietzsche bai), hemengo protagonista bakarra istorio guztian hautespena da, Sartre hortaz, helduaroan ukatu egin omen dena. XX. mendeko xori Salaberryren existentzialismoa hain da errotikoa, haren ukoan bertan bera nagusitzen baita²²⁸. Eta, hala ere, beharbada ez genuke existentzialismoa esan behar, eta bai existentzialismoarekin kointzidentzia sakon sakon bat, nahiezta ere. Salaberry oso markatua dago San Inazio Loiolakoaren boluntarismoaz. Boluntarista da, ez natur determinista. Munduan bandera bi dago: «Guri hautatzea. Hautu horrek egiten du gizona» (ES, 62). Bakarrik, Salaberryrentzat oinarritzko San Inazioaren aldarri hori, Sartre-rena dela halaber. Loiolaren eta Sartre-ren elkarretaratze hau, beste abagune batean Salaberryk berak eginga da, bestalde (ES, 81)²²⁹.

Gizon-emakumea zer den, teorizatzen duenean, Salaberry soziologo gisa mintzo da: etxeak egiten du, herriak egiten du, etab. Baina, gero, bere diskurtso guztian, berak egiten duela bere

burua, suposatzen da beti inplizitoki, egitera deitzen zaio: kristautasunak eta –puntu honetan berdin– existentzialismoak postulatzan duten bezala.

Alderantziz, hasieratik positiboak dira Karl Marx-i erreferentziak, 50 eta 60. urteetatik jada ugariak. «Le Pédagogue et le Commissaire» en bakarrik (1951) bospasei aldiz gutxienez aipatzen da, izendatuki ala inplizitu, beti baieskorki. Karakterologiako saioan (1950), marxismoaren tankerakotzat jotzen da euskal aiurri ekintzailea²³⁰. Orohar positiboki aipatzen da Marx-en dialektika historikoa urteotan²³¹. Marxismoa analisi metodo egokitzat aldarrikatzen da, euskal izaera soziala arakatzeko bezainbat²³², Estatuaren eta hezkuntzako Estatu aparatuaaren azterketa eta transformaziorako²³³. Existenzialistak ez bezala, Marx oso tonu abegikorrean aipatzen da beti. Uste dut, ez dagoela Marx-i erreferentzia kritiko bat bakarra 1964 aurretik²³⁴. Aldi berean, komunistekin oso kritikoa ageri da²³⁵. Baina hain zuzen horiek marxista faltsutzat emanez behin eta berriro, «cryptomarxistes» itsutu fanatikoak²³⁶, «marxistes hargneux» deserrotuak²³⁷, edo marxismoaren arrunt ezjakinak, propagandak buruberotuak²³⁸, Marxek holakoengatik esan behar izan zuela, errepikatuz, «ni ez naiz marxista». Marxismoa justiziaren filosofia bat da. Salaberryk Marx-en erro familiar erlijiosoetan insistitzen du²³⁹, eta Marx behar bezala ulertzeko ezinbestekotzat dauka erro erlijioso horiei jaramon egitea²⁴⁰. Berdin, «le socialisme, à son origine, a été un corollaire du christianisme»²⁴¹. Baina erlijioa baztertuz, andregizon Jainkoaren haurra baztertu da hein batean²⁴², eta unibertsaltasuna ere perbertitu, nazionalismo zaharraren ezkutaleku eta gaztelu sozialismo/komunismoa, estatalismoa, bilakatu baita azken denboran, Salaberryren esanean²⁴³, eta politikoki existentzialismoa horiekin aliatu da, filosofikoki ismo biak uztarrezinak diren arren. «Comme en France, le socialisme est partout en train de se radicaliser. Il arrive au stade jacobin d'un radicalisme encore musclé. Sa mystique s'est distendue en démagogie (...). Sartre provoque, insulte, et au fond supplie un communisme qui le repousse avec hauteur. Il demeure insolent et envoûté... Mais ce qui le fascine dans le camp adverse, bien plus que le communisme, c'est le nationalisme que le communisme prétend avoir monopolisé. Le nationalisme demeure la dernière tentation. La

dernière illusion»²⁴⁴. Salaberry Teilhard de Chardin-en optimismoa auzikatzen hasi denean, aurkitzen dira Marx-en beraren aurreneko ohar kritikoak, eta jakingarriak dira benetan, nolabait modernitatearen kritika bat barnebiltzen baitute. «Comme le marxisme, le teilhardisme a hérité de la candeur d'un XIXe siècle où se prolonge l'idée-force du XVIIIe sur la victoire nécessaire du progrès. Ils portent tous deux le poinçon de leur temps. Ils sont du XIXe siècle. Les désordres des révolutions et des guerres sont, à leurs yeux, des avatars épidermiques. Ils s'éclipsent devant les prouesses que réalise, malgré eux, ou à travers eux, l'homo sapiens incarné dans son pionnier l'homme blanc à la culture scientifique. Mais depuis...– Nous appartenons à la génération des villes scientifiquement brûlées au phosphore, des camps de concentration méthodiquement édifiés autour du crématoire, l'autel du Dieu-Etat, le Baal des temps modernes (...). Le Prométhée humain, annoncé à sons de trompe, est né. Nous le connaissons. Il est armé de bombes thermo-nucléaires»²⁴⁵. Ez dago lekurik XIX. mendeko optimismo handietarako. Progresoaren fedeak, arrazoimenaren fedeak, porrot egin du. Andre-gizonak eta herriak, XIX. mendeko arrazoimenak aurreikusitako baina beste modu batzuetara ari dira egiten historia²⁴⁶. Eta hemen ohartzen du: «Marx s'est trompé. Ses statues se trouvent dans la Russie qu'il méprisait. Elles ne sont pas dans l'Allemagne qu'il admirait»²⁴⁷. Ez du, beraz, ongi ikusi historiaren dialektika (1964). 1968ko maiatzerako Marx-en inguruan zalantzak gehiago jeneralditu dira jada: «Karl Marx-en arabera, erreboluzioaren aita, langilea. Franz Fanon-en arabera, laboraria. Herbert Marcuse-en arabera, ikaslea» (ES, 181). Laster, beti ildo beretik, Marx-en determinismo historikoaren kritika fundamentala egingo du, giza askatasunaren ukoarena historian²⁴⁸. Horra korapiloa: marxismoa askatasunaren filosofia bat da, askatasuna ukatu egiten duena. honezkero, azken urteetan, guztiz ez da ahaztuko, Marx zuzentasunaren borrokaria izan dela²⁴⁹, edo fededunen epelkeriagatik fedetik urrundu (omen) dela²⁵⁰, baina batez ere bi salaketa ikaragarri egotziko dira haren gainean, biak elkarrekin lotuak: 1) ateismoa, harekin gizatasunaren balioa oinarrigabetuz, eta ondorioz, 2) «faxismo gorriaren» edo diktatura komunisten errua, Errusiatik Txina eta Kanbodiara²⁵¹. *Beñat adiskidea*-n Marx-en irudi bereziki beltza margotu digu: berak ematen du,

Nietzsche-rekin batera, XX. mendeko kalamitate guztien aita. Nietzsche-k, «Zaratustra-ren ebanjelioaren kontrako ebanjelioa»rekin, «faxismo beltza» fundatu du; Marx-ek, *Das Kapital* «ebanjelio kontrako bigarren ebanjelioa»rekin, «faxismo gorria»²⁵², batak eta besteak metatu dituzten milioika gorpuekin²⁵³. Diktatura eta krimen guztion aurrean gizon-emakumearen balioaren ahaztura dago; et ahaztura honen aurrean Jainkoaren ukoa²⁵⁴. «Lur ekeia badu mami bakar gizonak, Marx-ek derasan bezala, zer dute balio gizonak, eta ez bada indartsuaren ozkatik, Nietzsche-n arabera, zer du balio gizon mendreak? (...). Jaungoikorik ez, gizonik ez»²⁵⁵. Hau, beste esplikaziorik gabe, salaketa paradoxala gertatu behar zaio, orri bat lehenago irakurri dion irakurleari, «bientzat Jaungoikoa hila duk. Bientzat gizona Jaungoikoak hustu elizan Jaungoiko gisa jarririk dagok»²⁵⁶. Hala, bada, gizon-emakumea Jainkoaren lekuraino jaso eta jainkotzea, berdin hura deusezte! Salaberryk ez digu paradoxa argitzen. Eta ez argitzengago jarraitzen du: «Jaungoikorik ez, gizonik ez. Orroit hadi Blaise Pascal-en erran nezakek irrintzinaz: «Gizona da kanabera bat, munduko ahulena, bainan gogodun kanabera!»²⁵⁷. Alafede, baditu Pascal-ek bestelako esanak ere, baina horko Pascal horren esanean hain zuzen, gizon-emakumea, Marx-ek nahi bezala, gogodun izateak handitzen baitu, ez Jainkodun izateak, Salaberryk nahi bezala, zer logika dugu hau azkenean? Baina Salaberry bere polemikan ari da, ez du merezi haren polemikarekin polemizatzerazartzea gu. Bai, ordea, Salaberryk filosofiaren historiarekin eta autore filosofikoekin maiz egin ohi duen zerbaiti ohartzeari. Deshistorizatzea, alegia. Salaberryk autoreak ez ditu beren testuinguruan hartzen, baizik berak darabilen arazoaren testuinguruan –hain zuzen berak maiz aipatu duen Prokrustoren ohean– estekatzen.

Alegia, Salaberryk tesi bat dauka buruan, eta hori jantzeko eta bermatzeko erabiltzen du filosofiaren historia. Denborak ez du kontatzen. Esate baterako, adibide konkretu batean ikusteko, ebanjelioaren kontrako bi ebanjelio dago: lehenengoa Nietzsche-rena da, bigarrena Marx-ena, dio Salaberryk. Historikoki, lehena Marx dator (1818-1883), gero Nietzsche (1844-1900). Filosofikoki ere, Nietzsche-k Marx bere aurretik suposatzen du. Are, historiko nahiz filosofikoki, Nietzsche-ren kontraebanjelioa Marx-en kon-

traebanjelioa da, kristautasunarena bezalaxe. Zergatik dator, orduan, Nietzsche beti Marx-en aurretik azalpen guztian? Salaberryren buruko eskeman, bi filosofiak kristauen bekatuetatik sortuak direlako, eta –haren logika teologikoan– Nietzsche-ren bekatua «lehenagoa» delako (Jainkoa), Marx-ena baino (justizia edo karitatea). «Nietzsche ohartua duk fededunak askotan ahul eta beratz girela Jaunaren alderat», «Marx-ek ikusi ditik fededunak gibelka eta ezazol ginaudela frangotan behardunen alderat»²⁵⁸. Buruko bere eskema ezkutu horrek permititzen dio, Marx eta Nietzsche bezalako filosofo ezin diferenteagoak, estreina elkartzea, gero azken finean berdintzea, bestela edozein eskandalizatu lukeen pasarte batean: «Iker-zkik Nietzsche eta Marx berdenboran, bi begiak huni, bi begiak hari. Batez dena lilluratua, izan ditakek bertzeaz xoratua (...). Egoiten nuk askotan gogoe-tan: «Hitler-ek irabazi balu gerla, zenbat oraiko gorri ez ziren ateratuko beltzean beltz?» Arturo Koestler-ek erakutsi dik «kurutze gabeko kurutzada» elaberrian zoin aise den talde batetik bertzerat lerratzea»²⁵⁹. Komunismotik faxismora jende asko pasa dela garai batean, ezaguna da. Zergatik ulertzen da hori filosofia batetik bestera pasatzea bezala? Zinez, Marx eta Nietzsche artean filosofikoki distantzia neurtezinezkoak daude, egon. Bi mundu dira, bi unibertso. Baina politikoki faxismo gorria eta beltza berdindu badira, filosofikoki haien «iturriak» (iturriak berak eskematikoki erreduzitu eta gero) erraza da berdintzea, bion Jainkoga-bezian –haien bien filosofian ezaugarri horrek berak arras pisu ezberdina duen arren, inportantea Nietzsche-rengan, bigarrentia-rra Marx-engan.

Historiaren gainean Salaberryk eskema global handiak domeinu absolutuarekin erabiltzen ditu (garai bateko saioan ohikoa zen bezala: Ortega, etab.), baina beren balioak funtzionala, pedagogikoa izan nahi duela esango nuke. Batzuetan beharbada ez dira jolas batzuk besterik. Horregatik, ez dira iraunkorrak ere: *Beñat adiskidea*-ko Marx eta Nietzsche-ren bi kontraebanjelioak (1981), Marx eta Gobineau-renak dira *Omenaldia*-n (1979)²⁶⁰. Edo ez beti erraz ulergarriak, hitz joko sugestiboen azpian: hala, antz-antzekoak omen dira XIII. mendearen erdialdea («Il découvert avec fièvre la dimension temporelle de l'univers»), Summa eskolastiko handiena, eta XX. mendearena («Les hommes découvrent la dimension spatiale de la planète»)²⁶¹, posmoderni-

tatean apurturikoa. Edo irakurle gaixoarentzat jauzi fantastikoen jauzarazgarriak: Teilhard de Chardin ez omen da jesuita (bere pentsaeran); izan ere, jesuitak Ernazimentuko produktua dira (XVI), Ernazimentua antropozentrikoa da, Teilhard geozentrikoa; beraz, Teilhard, XX. mendeko paleontologo eboluzionista, tomista da (XIII. mendekoa) eta domingotarra. «Le plus grand des Dominicains est un Jésuite»²⁶². Baina tomista XIII. mendetar honek unibertsoan interes gehiago baitu gizon-emakumean baino, «pour Teilhard de Chardin Socrate n'a pas existé. Teilhard de Chardin appartient aux pré-socratiques»²⁶³, Jesukristo baino bospasei mende lehenagora jauzi eginez. Baina -XVII. menderainoko beste jauzi txiki batekin orain- gure presokratiko bitxiak hautesmen libreaki buruz ba bide ditu iritziren batzuk, hori biziki modernoa baita, eta «avec Blaise Pascal, partisan du déterminisme dans l'ordre du salut, Teilhard de Chardin se sépare des Jésuites qui mettent l'accent sur la liberté de l'homme»²⁶⁴. Pascaldarra bihurtu zaigu orain presokratikoa. Alabaina Pascal antijesuitarentzat natura korrupitua da, eta Teilhard ezjesuita naturaren optimista bat (ernazimentutarrak bezalaxe -hau ez du Salaberryk esaten). Beraz, beste jauzi batekin presokratikoenganaino: «Les Grecs disaient: «Héraclite pleure toujours» ou au contraire: «Démocrite rit toujours». En leur empruntant un vocabulaire schématique on avancerait que Pascal est à Héraclite, ce que Teilhard de Chardin est à Démocrite»²⁶⁵. Azkenean, zer demonio da Teilhard? Dantza gehiegitxo, bi orri soilen barruan egiteko (eta soil-soil ez esatearren, Teilhard bere eskema eskolastikoetan ezin atzeman dela)²⁶⁶.

Seminarioetako filosofia neoeskolastiko itxian -internatuko filosofia zen- eztabaida inportanteak izaten ziren, zer da domingotarra (tomista), zer da jesuita (Suareztarra, Molinotarra), zer frantziskotarra (Eskotista). Historikoki eskolak eta orain -neoeskolastikan- nolabait eskema prefabrikatuak. Salaberryk asko jokatzen du tipologia denboragabeko unibertsalekin eta horien -berak asmatzen dituen- jolas dialektikoekin²⁶⁷. Horietako bat, kutunenetakoa, Heraklito eta Parmenideren alternatibarena dizu: dena da, ala dena doa²⁶⁸. Mendebaleko filosofia guzti-guztiak bihur omen litezke bi horietako batera (alegia, historiarik beneran ez dago, dena errepikatu egiten da). Filosofiak ez-ezik, teoria zientifikoak nahiz jarrera pertsonal espontanoak bizitzaren aurrean, eta errealitate sozio-politiko arruntenak berak, eskema

denboragabeko metafisiko horretara bihurtzen dizkizu Salaberryk: eboluzionista izan ala fixista animalia espezieen teorian, Europako batasunaren alde ala kontra egon, Kontzilioan fidatu ala kontrarioa izan, kontserbakoia ala progresista, Parmenidetarra ala Heraklitotarra zara²⁶⁹. Badirudi dena makurraraz litekeela eskema horretara (ondorioz, askatasunik ez dago historian: funtsean predeterminaturik dago, dena zer izan litekeen): ala denak beti geldian dirau, ezer berririk ez dago; ala dena beti berrituz ari da, ezerk ez dirau²⁷⁰.

Beste eredu bat, Salaberryk berdin maitea, aroak nahiz sistemak baldintzapen historiko guztien gaintik eskema unibertsal simple batera erreduzitzeko, teo –ala antropozentrismoaren alternatiba da, gorago aipatu bezala. Arazo hau, lehenik, teologikoa da («kenka hortan da oraiko auzia», Vatikanoko Kontzilio inguruan) (ES, 186). Historiari gagozkiola, tradizio batean nahiko topikoa da baiestea, Ernazimentu aurretik mendebaleko pentsamendua teozentrikoa omen zela, Ernazimentuaz gero antropozentrikoa²⁷¹. Baina hori Salaberryrentzat, gertakaria historikoa baino gehiago –hala dela esan eta gero–, pentsamendu orenen alternatiba unibertsala da, ikusten dugunez. Horregatik, bietatik dago antzinatean eta bietatik modernian edo Erdi Aroan. «Beti danik izan, eta izanen dira beti [beti, alegia!] gogolariak maila batean, eta maila bertzean. Lehen mailako Platon eta San Agustín; bigarren mailako Aristote eta San Tomas; lehen mailako Spinoza, bigarren mailako Descartes²⁷². (Antropozentrikoa orain San Tomas? Lehen jesuitak ziren hori). Filosofiako autoreetan, egia esan, ez da oso arrunta, pentsamenduaren historia osoa ardatz horren inguruan biraka esplikatzea. Baina Salaberryk auzi erlijioso edo teologiko bat filosofia orenen funtsezko irizpide bihurtzen duela, hasieran gure susmoa besterik ez bada, berak aitortzen digu laster: «Badira bi arraza, fededunen artean. Arraza bat, ohartzen baita gain gaintik Jaungoikoaren haundiaren haundiari. Iduri zaio iresten duela gizon eskasa Jaungoikoaren izaitzak. Izartzen du ongi Jaungoikoaren haundia. Ikusten gaizki gizonaren askatasuna. Arraza hortarik da oraiko gizaldi berriaren hastean Duvergier de Hauranne edo Haurrareneko Duvergier Baïónesa. «Sabel beroko Euskalduna» zuen izendatu Richelieu kardinalak. Bertze arraza bat ohartzen da gain-gaintik gizonaren askatasunaren askatasunari. Izartzen du ongi gizonaren askatasuna. Ikusten du gaizki Jaungoikoaren oso haundia. Arraza

hortarik da, oraiko mende berriaren hastean, Gipuzkoako Iñaki Loiolakoa» (ES, 81). Eta jarraitzen du, inolako zalantzarik ez uzteko: «Gogolariak, fededunak, fede gabeak berdin, biltzen dira edo Duvergier de Haurannek edo Iñaki Loiolakoak eraiki gaztelurat. Ez dira bi gaztelu baizik Haurrarenia eta Loiolaenia. Lehena Spinoza-ren egoitza (...), Bigarrena, Descartes-en egoitza» (Ib.). Jainko honekin ez dela Jainkoa bakarrik adierazi nahi, are guxtiago fedeko Jainkoa (pertsionala), baina gizon-emakume ororen sentitzeko eta pentsatzeko molde fundamental bat, jarraiko bukaerak erakusten du: «Lehena Marx-en bil-tokia, zozietatea baita harentzat Jaungoiko nagusi zorrotza. Bigarrena Sartre-ren bil-tegia, askatasuna baita harentzat gizonaren mami samurra» (Ib.). Beraz, Jainkoa ukatzen denean ere, Jainkoa pentsatzen da, eta ea zernola filosofatu, halakoxe Jainkoarekin nahitaez. Logika honekin, Marx ateista teozentrikoa da! Eta Jainkoa, pentsatzearen forma oinarrizkoa da, fedearen objektua baino sakonago²⁷³. Horrela, bi euskaldunen debozio molde basikotatik (Loiola eta Saint-Cyran), filosofia ororen eta pentsamendu ororen bi molde basikoak jalgiazi dira. Salaberryren zaletasunarekin ideiak eta arazoiketak psikologizatzeko, tentatuak gaude pentsatzera, filosofiaren bi molde oinarrizkoetan, ez ote ditugun azkenean bi temperamentu ikusi behar. Harago ere badoala, ematen du, eta halako batean -Unamunorekin- bi horiek «euskal arrazaren bi hegoak» edo euskal karakterraren bi ezaugarri direla, aipatuko du²⁷⁴. Pixka bat sakatuz, euskal izaerak gizadiaren unibertso kultural osoa esplikatzeke balio lezake. Heletak mundua bezalatsu.

Oinarrizko kezka pertsonalak, oinarrizko bere filosofia

Jakina, hauek baliabide pragmatikoak dira, eskolan erabiltzeko edo pedagogiarako baliagarriak. Filosofiako irakaslearen jolas gutxi-asko eskolastiko edo umorezkoak filosofiaren gainean alde batera -eta, Salaberry benetan ala jostetan dabilen, beti ez da erraza antzematea-, eskematismo hauetan ezin ikus genitzake marrazki intelektual dibertigarri edo pedagogiko hutsak, denboraren gainteko asoziazio edo kontrasteak trazatuz. Bere ikasle-bizitza intelektualeko gatatzak, aurkikuntzak, bizipenak izan direla, gogoratzen digu behin Salaberryk. Horrela argitxo bat erdiesten du, zer filosofia modu estudiatu duen, oso gutxi edo deus ez dakigunak, eta zeintzu izan diren Salaberryren arazo filosofiko fundamental batzuk. Nola bururatu Jainkoa/mundua edo Jainkoa/gizakia erlazioa? Hona hemen estudiantetako pasa-

dizo bat bere hitzetan: «Tolosako azken izariketan eman zauzki-
gun Devolvé erakasleak²⁷⁵ bi solas, bat Spinoza-rena, bertzea
Kant-ena, biak izaiteaz elgarri hurbiltzeko. Ohartu nintzan, Spi-
nozak kukuluan emanez Jaungoikoa, ezeztatzen duela gizona,
Kant-ek kukuluan emanez gizona, ezeztatzen duela Jaungoikoa.
Gelan sartu orduko hasi dantzan, ezin zapatuz atsegina» (ES,
186)²⁷⁶. Zein da zehatz-mehatz arazoa? Korapilo psikologiko gisa
ez da zaila agian ulertzea, jendeak Jainkoa asko behatuz gizakia
ahaztea edo alderantziz²⁷⁷, baina horrek apenas dirudi filosofia-
ren problema. Planteamendu teoriko gisa, orduan, paradoxala
egiten zaigu, Jainkoa gizatasun eta izatasun ororen oinarri de-
klaratu eta gero, goian egin den bezala, zergatik orain alternatiba
sortzen den, bietan bat goratzeak bestearen beheititzea ekarriz.
Eta susmoa hartzen dugu, hemen ekiboko batzuk daudela, Spi-
noza eta Descartes oposatzea esplika lezaketenak beharbada:
Jainkoaren lehentasuna, Spinoza edo Saint-Cyranen zentzuan
(ontologiko edo metafisikoa), eta gizon-emakumearen lehenta-
suna, Descartes edo Kant-en zentzuan (epistemologikoa), bi le-
hentasun tipo diferente da, inola ere bata bestearen konkurren-
tzian sar ezin litezkeenak. Descartes adibide ona da, modernia-
ren hasieran: metodoaren arabera, aurrena argitu beharrekoa
arazo epistemologikoa da, beraz, gizon-emakumea (cogitoa), eta
hemendik abiatuz iritsiko da pentsamendua Jainkoaren ezagutza
ziurrera; alderantziz, sistematiko edo ontologikoki, aurrena izate
orenen fundamentua da, beraz, Jainkoa, eta fundamentu honen
gainean aurkituko du pentsamendu mugatuak ziurtasuna²⁷⁸. Eza-
gutzaren teoria eta ontologia (metafisika), gizon-emakumea eta
(ez, ala) Jainkoa, prioritatea zirkularra da, planteamoldearen ara-
bera, lehentasunaren zentzua inoiz nahastu gabe. Are paradoxa-
lagoa, ordea, itxuraz bai teo eta bai antropozentrikoen Sala-
berryren kritikaren arrazoia begitantzen zaigu: «ezartzen baitute
Jaungoikoan haren baitan ez den denbora»²⁷⁹, eta denboraren
kontzeptu txar (espazializatu) bat, gainera²⁸⁰. Ez dakit bera dabi-
len berriro nahastua, ala gu nahasten gaituen. Denbora espazia-
lizatuaren hizkera hau oso Bergson-ena da²⁸¹. Ulertzen ez dena
da, hemen zer egiten duen. (Zergatik ez ote du Salaberryk kora-
pilo honetan Bergson-en askadura jarraitu eta filosofiako Jainkoa
fedetik kanpora utzi?)²⁸². Ez baita ulertzen, fedeko edo debo-
zioko Jainkoagan bai, Jainko biblikoan, baina nola ikusten duen
Salaberryk denbora hain zuzen Spinoza-ren edo Kant-en Jainko-

agan suposaturik²⁸³, biak kritikoak mintzaira antropomorfitikoenkin Jainkoaz, Salaberry den bezalaxe²⁸⁴. Ez da hobeto ulertzen, antropo ala teozentrismoaren alternatiba historikoa (erroan biek huts berdina egiten omen dutenak, beraz biak gainditu beharra dagoenak) berak nola abantailatu edo ekidin nahi duen. Azkenean Salaberryren soluzioak teo- ala antropozentrismo alternatibari, bi karakteristika hauek dituela, ematen du: denborarik ez suposatzea Jainkoa baita²⁸⁵, eta lehenetsun ontologiko absolutuaren aitortza Jainkoarentzat²⁸⁶. (Duvergier de Hauranne-n jansenismoaren alderdian lerrokatzen da, beraz, bere eskema berari aplikatzekotan!). XVII. mendeko edozein metafisikok edo bere egunetako edozein eskolastikok -alegia, edozein prekantiarrek-harriduraz entzun izango zukeen bestelakorik. Horixe baita halaber sakonean, eta ez besterik, Salaberryk aipatu ohi duen Leibniz-en «Jaungoiko gabea izan ditake geometria; ez daki zer den geometria» (ezagutzak itzelak izan ditzake, haien azken fundamentuaz ezer ez daki)²⁸⁷, Leibniz baino lehen Descartes perfektua baizik ez denaren esanahia, hau berau harritasunez bakarrik entzun ahal izango bailuke edozein postkantiarrek. Nondik nora sortu dira, orduan, Salaberryren katramila horiek guztiak?

Arazoon arazoa beharbada da, funtsean holakoxe erredukzionismo eskematiko unibertsalen jakitatetzat daukala Salaberryk, estudiatu zuen eta substantzialki oraindik bere propioa duen filosofia, berak behin berezketa honetan agertzen duenez:

«Gauzak ikert ditazke, ala gainetik, ala beheretik.

Badira gauzeri behatzeko bi gune: gaina eta beheara.

Jakitatea gizonak biltzen du emeki, ximenki, artoski, gauzak ikertuz gizon moldean, edo beheretik.

Jakitatea gizonak beretzen du ere gauza guzien gainerat bet-betan berduratuz bere soa, oro hunkitzen dituela, erran ginezake, Jaungoikoaren moldean, edo gainetik.

Lehen jakitatea dago xehetasunez betea. Bigarren jakitateak lehenak xehetasunak xehe bezain, dauzka bere larritasunak larri. Haren soa ez da xehetasunetan edo xendretan sartzen, bainan, bide handia edo larria harturik, da bihotzeraino jausten.

Lehen jakitatetik jalgitzen dira, anhitz diren zientziak. Bigarren jakitatetik aldakutzen, orok berdin deitzen duten filosofia.

Nahi baduzu ezagutu Heleta zoko-mokoetan, ibil zaite oinez etxetik-etxerat. Nahi baduzu ezagutu Heleta bere ferdail hedaduran, iragan zaite Baigura kaskorat²⁸⁸.

Filosofikoki, hau Salaberryren testu oinarrizkoetako bat dugu. Baina, beste askotan bezala, testu guztiz argi hau, azkenean oso iluna da, dena metafora. Filosofiaren definizioetan ohiko terminoak («azken kausak» edo), denak artaz ekidin dira. Hala ere, alderdi batzuk aski argi gelditzen dira: filosofia metafisikarekin berdintzen da; metafisika bera «Jainkoaren begiaren» zentzuan ulertzen da →dena dakus, dena daki← eta «orok berdin deitzen duten» halako bat (philosophia perennis), badagoela, suposatzen da. Zientzien eta filosofiaren artean diferentzia ikusmolde edo perspektibarena baino ez dela, ematen du. Hori izan liteke, problemarik gabe, filosofiaren kontzeptu eskolastiko edo kartesiar-wolffiano dogmatikoa (aprioristikoa). Ez da (Kant, etab., ez aipatzeko, eta agian Salaberryrengan usteko genuenaren kontra) Bergson-en filosofia edo metafisikaren kontzeptua, esate baterako. Salaberryrentzat zientzien eta filosofiaren objektua berbera da, antza: Bergson-ek berezi egiten ditu bien objektuak eta metodoak²⁸⁹. Bergson-entzat zientziak eta filosofia ez dira kontrajartzen, baina osatzen: Salaberryk kontrajarri egiten ditu. Salaberryrentzat, hemen dirudienez, filosofiak ez du inolako ezagutza enpirikorik aurretik suposatzen: Bergson-entzat filosofia esperientziaren gainean eraikitzen da →une métaphysique qui part également de l'expérience²⁹⁰; «cet empirisme vrai est la vraie métaphysique»²⁹¹— eta zientziaren alboan kokatzen da, ez begiz begi («à côté de la science»)²⁹², zientziaren luzapen gisa («le vraie prolongement de la science»)²⁹³. Salaberryrentzat filosofiak mundua zuzen-zuzenean «gainetik» ezagutuko luke, a priori, «intuizio intelektual» huts batean. Bergson-ek ez luke sekula esango «gauzen gainetik», baina gauzen barrutik edo barruan («la connaissance intuitive qui s'installe dans le mouvant et adopte la vie même des choses»)²⁹⁴. Bergson-entzat zientziek kontzeptu eta sinboloen bitartez ezagutzen dute, filosofiak intuitiboki, kontzeptuen mugapen eta estekaduretatik libre²⁹⁵. Bestela esan: zientziak adimenaren lana dira, filosofia intuizioarena (diferen-

tzia esentzial honek hemen Salaberryrentzat inportantziarik ez duela, ematen baitu). Aldiz, «Jaungoikoaren behakoaren» metafora²⁹⁶ inposiblea da Bergson-entzat (Baiguratik ez dago Heletaren intuiziorik)²⁹⁷, intuizioaren kontzeptua faltsifikatuz ez bada adiera kartesiar-leibniztar edo, nolahi ere Bergson-ena ez den adiera batean. Labur: «Etablir entre la métaphysique et la science une différence de dignité, leur assigner le même objet, c'est-à-dire l'ensemble des choses, en stipulant que l'une le regardera d'en bas et l'autre d'en haut, c'est exclure l'aide mutuelle et le contrôle réciproque: la métaphysique est nécessairement alors - à moins de perdre tout contact avec le réel- un extrait condensé ou une extension hypothétique de la science.»²⁹⁸.

Bergson

Bergsonzalea antonomasiatz Salaberry kontsideratzen da euskal kulturan²⁹⁹. Egiaz, mendebaleko filosofia guztiaren historian -biraketa baino gehiago- etena eta erabateko berrikuntza, giza-diaren aro berri bat zabalduz pentsamenduan, Bergson-ek egin izango zuen Salaberryrentzat. Hogeita bost mendeko historia bat bukatutzat uzten da: aro berri bat irekitzen da filosofiarentzat. Filosofia hogeita bost mendetan zehar nahastu duen esfingearen galdera, ala dena izana den ala dena aldaera -Parmenide ala Heraklito-, Bergson-ek askatu bide du azkenean: «Denak aldatzen dira», Efeziako Eraklitek zion gisan, bainan denak gelditzen, Eleako Parmenidek derasan bezala. Gizonaren gogoia, orroitzapen zaharrez betea, ez zaharkerietan egoiteko, bainan zaharkeriatik zerbeit berriren asmatzeko» (ES, 118)³⁰⁰. Bere gazetetako eguzki hori arras ahaztuxea ageri zenean ere, Salaberryk ez du galdu bere «sinestea» Bergson-engan. Presokanpoan «ohartu nintzan Bergson izan zela ehortzia ene gizamenearekin, eta ene ondoko gizamendea Brunschvicg-ez moldatua, osoki bertzelakoa zela, errotik gogotiarra [idealista]» (ES, 150). Gero existentzialismoaren uhina goititu da: «Oraiko Europakoek beharri emaiten dute Heidegger, Sartre, Freud-en hitzaldi etsigarrieri»³⁰¹. Bergson-en ordua berriz etorriko dela, itxaroten jarraitu du Salaberryk: «Nork daki ez denez itzuliko Bergson-en oreina, hainbertze gose baita gure mendea, esperantzaz eta zorionaz bethe mintzoaz?– Ez ditake bizi bethi arranguran, bethi beldurrean, bethi lohian edo atsega-bean ihalozka»³⁰². Beti ere Bergson da esperantzaren mintzoa.

Eta berak jarraituko du Salaberryrentzat esperantzaren mintzoa izaten, 60. urteetan Euskal Herrian marxismoa indartu dadinean ere³⁰³.

H. Bergson (1859-1941)³⁰⁴ bilakaeraren filosofoa izendatu ohi da. Historiaren, eboluzioaren filosofiak, XIX. mendean, egia eternoen eta «filosofia perennearen», beraz, katolizismoaren etsaiak izan dira (edo, katolizismoak areriotzat eduki ditu). Mendearen itzuleran, ordea, katolizismoak ia bere apologiatzat har zezakeen eboluzioaren filosofia bat ideiatu du Bergson-ek. Ordea –Salaberryri gagozkiola, horixe bazen ere estreina aipatu beharrekoa–, Bergson-en gogoetak berrizte bizi bat mendebaleko filosofia guztiarentzat ekarri du (adibidez, W. James pragmatista amerikarra, A. N. Whitehead matematikari eta natur-metafisiko ingelesa, Bergson-ek sakonki influentziatu ditu, zer esanik ez Frantziako pentsamendua), ez katolizismoarentzat bereziki. Edo, are, apenas hain zuzen katolizismoarentzat, hau neotomismoan setatu baita itsu-itsu, salbuespen txikiak salbu. Salaberryk bere zorra garbi aitortu dio: «Henri Bergson izan da ene gaztetasunaren iguzkia» (ES, 118). Salaberryrentzat Bergson: 1) Sokrates berria da, XX. mendeko Sokrates³⁰⁵; eta 2) San Agustin berria da, XX. mendeko San Agustin³⁰⁶.

H. Bergson-ek orduan ohiko formazio positibista, materialista izan du gaztetako eskolan³⁰⁷. Ikusmolde horren aurka, determinismoa ukatuz, gizakiaren izpiritualtasuna -askatasuna, kreatibitate- ipini ditu berak lehen planoan, tesi doktoraletik hasita (*Essai sur les données immédiates de la conscience*, 1889). Bergson-en xedea obra honetan, denbora fisiko-matematiko homogenoaren (hedadura) eta denbora psikiko ez matematizagarriaren (iraundura) diferentzia esentzialaren analisisaz baliatuz, bi errealitate moldeon (materiala eta izpirituala) ezberdintasuna eta autonomia finkatzea da³⁰⁸. Konkretuki gorputzaren eta izpiritua- ren arteko zerikusia zehaztera eman du hurrengo ikersaio handia, *Matière et mémoire*, 1896, afasiaren azterketatik (Bergson-en filosofatzea beti arazo konkretu baten araketa enpirikotik abiatzen da), oroimenaren, hots, gogamenaren (azken finean, arimaren) garunetik independentzia ilkitzeko garunetik³⁰⁹. *L'Évolution créatrice*, 1907, agian Bergson-en obra sonatuenak, materia eta «élan vital», bizi-oldar edo bulkada, errealitatearen bi printzipioak berezten ditu. Unibertsoa, dena eboluzioan dago. Materiaren bilakaera deterministikoa da, lineala. Kreatiboa izaki berez, libreki

edo desordenatuki –aurreikusezinki– aldaratuz bere lerrotik, alde batera eta bestera bila, bizi-oldarraren bilakaera bifurkatuz doa, instintoaren garapenaren bidetik alde batean, adimenaren bidean bestetik³¹⁰. Hogeita bost urte geroago argitara du azken obra handia, *Les deux sources de la morale et de la religion*, 1932³¹¹. Betiko bere moldean, estatikoa eta dinamikoaren artean dakus oposizio polarra arlo honetan ere. Gizarteko bizitzan, alde bategatik joera estatikoa dago, jendea erlijioso, moral eta sozialki lotu egiten duena lege eta ohituren statu quoari; eta, bestetik, heroi, santu eta mistikoen aspirazioetan azaleratzen den joera dinamiko, bizi diren elkarteko mugak gainditu nahi dituztenena. Bi moraltasun edo, hobeto, moraltasunaren eta erlijioaren bi iturri aipatzen du Bergson-ek horrela: adimenarena bat, ideal estatiko baten lorpena bidaltzen duena; intuizioarena bestea, artearen kreatibitatean nahiz esperientzia mistikoan kausitzen duena bere espresioa. Esan liteke, bada, Bergson-en gai nagusia, bere traiektoria luzean, beti gizon-emakumea izan dela– Salaberryk hala ulertu eta estimatu duela, batik bat.

Bergson-ek irakasten duenez (Lecomte de Noüy, etab., jarraile dituela), gizarteko bizitza zapartaraziko luke, bakoitzak –eta komunitateak– bere egoismoa ez balu menderatuko. Eta ez luke luzaro menderatuko erlijioa gabe, hots, Jainkoa gabe. Jainkoak norbere egoismoaren ukoa oinarritzen du; lagunaren eta ezlagunaren elkarbizitza ahalbidetzen du horrela, h. d., «gizarte irekia» eta «moral irekia», andre-gizonaren sozialtasun gizatarra, instintoak eragindako sozialtasun maila basikoak baino harago, harago interesen elkarte eta gizarte nazionalak baino ere, gizadia besarkatzeraino maitasun unibertsalean. Gizadiaren maitasuna ez bakarrik ez da naturala, instintoaren zuzenki kontrarioa da, eta konkistatua izan behar du, edo erlijio, edo arrazoimenaren bitartez. Bien bitartez, azken finean, efektibo izateko (afektua barnebiltzeko alegia)³¹².

Salaberry eta Bergson

Bergson-i zer zor diogun jakiteko hoberena, Salaberryren gardiz, XIX. mendeko hainbat zientifikorekin konparatzea omen³¹³.

«Hemeretzigarren mendea, jakitatearen mendea da.
Baina orduko jakitateak, nola eginak diren gogorik ga-

beko gauzak, gain gainetik, zilhatu nahi zituen. Orduko jakitateak axola guti zaukan gizonaz (...).

Ribot-ek zaukan gizona zitakeela zer bat zeren artean, puska bat pusken erdian, munduaren bertzeak bezelako aldaxka bat, mundu abar gaitzetik jalgia.

Kontzientzia ez zaikon axaleria ez deus bat baizik (zìon: un épiphénomène), begikoa bezain indar gabea (zìon: un luxe inutile). Hura ukan ala ez ukan, helduko ginen mail bererat, berdin aberats eta berdin erromes, berdin indartsu eta berdin ahul, berdin jakinsun eta berdin jakitate gabe.

Bergson-ek, nun ere Ribot-ek erraiten baitu baietz, ezarriko du ezetz. Ribot-en solas guzieri emanen ihardeste: inbido guzieri, iduki; hordago guzieri, kanta (...).

Bortz mende Jesus Jauna sortu aintzin, bazen Atheneseko hirian Zokrate deitu gizona, manamendutzat hautatu baitzuen lerro hau, Delfe-eko tenplo gainean irakurtua: «Ezagut hire burua». Ordu arte filozofak ari ziren ezin zilhatuz munduaren segetretuak, erakusteko itsas gainean zabiltzan marineleri, nola jalgi galneta-rik. Alabainan Greziako jendea barreatua zen itsas bazterrez-bazter, eta harentzat itsasoa baitezpadako urbide.

Zizeron, Erromako idazleak, goretsi du Zokrate, baitu jauts-arazi «Filosofia zerutik lurrerat», erran nahi baitu iguzki, ilhargi, hedoi en behatzetik, gizon arimaren ikhertzerat: Gauzen lezetik, gizon barnagoko lezerat.

Zokrate izan dena Atenes-en, bortz mende Jesus sortaintzin, Bergson agertu da Parisen Jesus sortu-eta, hementzerat garren mende bururatzean. Hogoigarren mendeko Zokrate berria, Bergson.

Bergson-ek erakutsi du gizona ez dela zerbeit, bainan dela norbeit; ez dela puska, bainan jende; ez dela mundua bezalako, baina mundua ez bezelako; munduan bizi, bainan ez mundutik. Ez da izeiten ongi zilhatzeko, gainekoa jauts-arazi behar behereko ozkarat, materializtek, lurrean baizik sinhesterik ez dutenek

dioten bezela; behar da beherekoa, arruntena altzarazi gainekorat, aberatsenerat, lurraz bertze zerbeitetan sin-
heste duten izpiritualistek derasaten gisa»³¹⁴.

Bergson-en Sokratetasuna bezain erabakigarria (filosofia kosmos edo historiaren teoria unibertsaletatik berriro andre-gizonaren ikerketara itzularazi izatea), haren San Agustintasuna izango da Salaberryrentzat. Esanahi bikoitzean hori: bigarren, intelektualismo katoliko (neotomismo) baten osagarri edo gozagarri bezala, hori geroxeago aipatuko da; baina, agnostizismo teorikoa kasik obligaziozkoa zen garaian, Jainkoaren ezagutza naturalari berriro filosofian leku bat egin izanaren zentzuan, lehen-lehenengo.

Kant-ez gero dogma bat bezala zegoen filosofian, Jainkoaren ezagutza razional edo teorikorako ez dagoela biderik giza adimenean. Gizakiak ezagutu, esperientziaren baldintzen pean dagoena bakarrik ezagut lezake, eta Jainkoa ez dago. Bestela esan: Jainkoa ez da, giza adimenak -honek bere izaeraz dituen forma edo baldintzekin- ezagutu ahal dituen objektuen eitekoa. Bergson-ek, ordea, berezi egin du andre-gizonaren ezagutza ahalmenean adimena eta intuizioa. Adimena ez da andre-gizonaren ahalmen ezagutzaile bakarra. «Autant les idées abstraites [kontzeptuek] peuvent rendre service à l'analyse, c'est-à-dire à une étude scientifique de l'objet dans ses relations avec tous les autres, autant elles sont incapables de remplacer l'intuition, c'est-à-dire l'investigation métaphysique de l'objet dans ce qu'il a d'essentiel et de propre»³¹⁵. Adimena, ezagutza kontzeptuala, Bergson-ek, Kant-ek bezalatsu balioesten du, edo negatiboago³¹⁶. Intuizioa, aldiz, ez dago mugatua adimena bezala natura sentigarriaren ezagutzara, gauza berbaitan ahal du atzeman eta berez Jainkoaren aurreraino ere zabalik du bidea³¹⁷. Hau da, bi ezagutza molde oinarritzko dago errotik diferentea: bat, analitikoa, bere garapen gorena zientzietan aurkitzen duena, errealtatea espazializatzen eta kontzeptualizatzen duena, hots, ikusmolde zati-korra, errealtatea zerki solido eta diskontinuotan banatzen eta atzematen duena, zation erabilpenerako. Bestea intuizioa da³¹⁸. Intuizioaren kontzeptua nahasgarria eta irristakorra da filosofian. (Kant baitan, esaterako, jeneralki berba horrekin suposatzen dugunaren zuzenki kontrarioa, esanahi du: hautemate sentigarria). Logikoki, ezagutza ziurra, inferentzia edo arrazoiketa ziurrak

eusten du. Orain, arrazoiketa ahalbidetzen duten lehen elementuak (axiomak), eta inferentzia zuzenaren lehen-lehen arauak, baliagarritasunaren baldintzak, ezin izan litezke berak inferituak edo arrazoiketaz erdietsiak: horiek intuizioz atzemanak direla, esan izan da logika klasikoan. Ontologikoki, era berdintsuan, zer mugatua baino lehen mugagabea dago (singularra baino lehen orokorra: orokorreko kide bezala bakarrik pentsa baitaiteke zer den singularra: («Sokrates gizona da»); gauzakiak baino lehen unibertsoa alegia. Bergson-en ontologian, Spinoza-ren antzera, guztiaren eta zer bakoitzaren «unibertsotasun» horren lehen ezagutzari deritzo intuizioa (kontzeptuaren kontrara: honek, izan ere, gauzak beren gauzatasunean, beren bakan eta zatizkotasunean, pentsatzen ditu)³¹⁹. Intuizioa, hortaz, adimenezko edo razionala baino oinarrizko eta lehenagoko ezagutza da, orokorra, artekogabea, sinpitiaren bitartez errealitatearen barneraino zultatzen duena, barne-barnenean zer guztiak bat egiten duten eta denak dena diren hondoraino, gauzetan haien zertasun esentziala atzematen duena (horien zatizkotasuna baino barnagoan), hots, haien bilakaera eta isuri gelditugabea dena denean eta denaren iraundura, kontzeptuetan adierazi ezinezkoa eta intuizioarentzat bakarrik atzemangarria³²⁰. Ezagutza kontzeptuzkoa erlatiboa da, intuiziozkoa absolutua³²¹. Bergson-en intuizioa batez ere kontzientziak bere burua –zuzenki, artekogabeki, bere barrutik– atzemateko metodoa eta ahalmena da³²², hor ageriratzen baintzaio neure buruari «iraundura» gisa (ez bata besteari eransten zaien momentuen pilaketa), hots, izpiritu, mugimendu. Intuizioak ezagugaiaren barnera sartzen gaitu, esentzian partehartu eragiten digu. Bere maila gorena, intuizio mistikoa, «ce serai une participation de l'essence divine»³²³.

XX. mendearen lehen erdiko San Agustinen berrindartzea, nabarmena modernismoan bezala ortodoxian pentsamendu katoliko frantses progresistan, fenomeno konplexuegia litzateke niretzat azaltzeko. Newman Kardinala, Blondel, etab., denek pentsamendu tradizional intelektualistari osagarri boluntarista, afektiboa, aktiboa bilatzen diote. Ezagutzak ez du adimena bakarrik konprometatzen, baina pertsona osoa; ezagutza ekintza da, ez kontenplazio soila: holako abiapuntuak arruntak bilakatu dira urte horietan. «Monseigneur Matthieu était thomiste – idazten du Salaberryk Gotzain honen panagirikoan. Il appartenait à la scolastique militante. J'admire aujourd'hui l'audace de Mon-

seigneur Mathieu qui nous faisait étudier un Maurice Blondel qui était presque à l'Index, un cardinal Newman qui sentait le fagot, somme toute, deux chercheurs que les intégristes de l'époque considéraient avec abomination et dans lesquels ils voyaient la source de toutes les désolations»³²⁴. Blondel Agustinzalea zen, eta hala zen Monsignore Mathieu, Salaberryren irakaslea (ES, 98-99): «Un coup d'oeil suffit pour se rendre compte que dans les lettres pastorales saint Augustin est plus souvent cité que saint Thomas dont les maximes tissaient littéralement le cours...»³²⁵. Salaberryk halatsu hartu du Bergson: behin, haren intuizioa San Agustinen «bihotzaren begiekin» berdintzen du³²⁶; beste batean, Jainkoarengana iristeko, «Bergson cherche son appui à l'intérieur de la psyché», azpimarratzen du, bide hori espresuki argumentu kosmologiko edo kanpokoan tomista edo domingotarrari kontrajarrit³²⁷.

Bergson euskal kulturari

Bergson-en garrantzia Salaberryrentzat, pertsonalki ezbaigabea da, aski garbi aitortu du berak; intelektualki zailagoa da definitzen. Filosofia Salaberryrentzat zer den, gogoratu behar da. «Filosofia egina da sinestearen garbitzeko bere purrusketarik, ez sinestearen husteko bere mamitik» (ES, 188). Zeregin horretarako, Salaberryren lehenengo filosofia -profesionalki, esan daiteke- neoeskolastikoa da, XVII. mendeko razionalismoaren kutsuarekin («Teodizea»). Protestantismotik sortu filosofiekin -Kant, Hegel eta beste- harreman handirik ez du erakusten. Are, Bergson-en maitale batek Heidegger-entzat irekitasun gehiago beharko luke, Salaberryk ez du. Ez zaio sumatzen, noski, filosofia anglo-saxoniarraren ukitu txikienik ere. Kultura filosofiko frantsesera mugatua beti, bere «eskolako filosofiari» gaurkotasuna, zalutasuna, poesia, modernitatea emateko laguntza erabakigarria, H. Bergson izan da³²⁸. Gogoratu behar da, halaber, Elizako giro estua: gorago aipatu bezala, «Henri Bergson-en liburuak ezarriak ziren lerrakorren artean» (ES, 184)³²⁹. Lafittek kontatzen du berak Orixerekin izandako eskatima: «Behin haatik hasarretu zitzaizun, eta hasarretu baino gehiago: etsaitu. Pentsa zertaz? Bergson-en «Évolution Créatrice» delakoaz: ez ginuen batere berdin asmatzen harek eta nik filosofoaren erakaspena. Hasi zitzaizun oihuka ez nuela zentzurik aski Bergson-en ulertzeko, eta nik arrapostu

harek ez zakiela frantsesik aski... Hots, agurrik gabe gibelaz itzuli zitzaitan, eta malezia gaitza frango luzaz atxiki zautan, bizpahiru aldiz bere lumaz ausiki ere baininduen³³⁰. Hori zen, beraz, giroa Elizan eta euskal kulturan.

Norbera beti identifikatzen da bere munduaren zentzuarekin. Baina Eliza katolikoan –eta, Hegoaldean, Estatu frankistako filosofia ofizialean– maiz munduaren zentzuak eta mundua ikusteko modu razionalak, filosofia aristoteliko-tomistarekin bat egiten zuen. Neotomismoaren azpitik askatzeko, gaur imaginatu ere ezinezko borrokak egin behar izan dira garai batean. Guretzat ezagunagoa, urte batzuk geroago Orixek Txillardegirekin honen existentzialismoaren inguruan izandako polemika da. Orixerentzat eskandaloa, Txillardegik ez zuela Aristoteles-en substantzia aintzat hartzen (razionaltasunaren probarri eskolastikoa dirudi horrek!)³³¹. Bergson, Blondel, existentzialistak (Txillardegi)³³², denak berdin burugabeak ageri zitzaizkion³³³. Hala Bergson Orixerentzat absurdu historiko bat zen: «il a vecu, à mon avis, 25 siècles en retard, parce qu'il a été déjà bien refuté par Aristote»³³⁴, eta absurdu filosofiko hutsa: «Zer ahuntz-erdara!»³³⁵. Bergson irakurri eta irakurri, Uitziko eskolastikoa ez da kabitzen bere gal-tzetan: «Este hombre no es constante ni en lo que afirma»³³⁶, haserretzen da. Bizi-oldarra eta eboluzioa ez dira bere filosofia «él es crudamente materialista», ebazten du³³⁷–; intuizioaren kontzeptua zentzugabea eta kontraesankorra iruditzen zaio³³⁸; substantziarik ez dagoen mundu bat, ezeren mundurik ezin da izan bere metafisikan (han ezin baita ezer zerbait izan)³³⁹, eta mundu hori etengabeko mugimenduan ari omen dela gainera, ez buru eta ez hanka du solas horrek³⁴⁰. Holako filosofiak goraiatzan dira Europan? «Egia erran, Europa arras gibelatua dago»³⁴¹. Dena den, hemen Orixe aipatu badugu, berak aipatzen du Maritain³⁴²; eta Maritain baino hagitz garratzago, ortodoxia guztia zen Bergson-en kritikoa³⁴³.

Laburbilduz: Salaberry ausarta izan da. Irakasle gazteak jada «metodo tomista» goretsi du: «Etudiez la structure d'un article de la Somme (...). Thomas s'aide de toutes les découvertes de ses prédécesseurs»³⁴⁴. Elizako guraso grekoak eta latinoak, filosofo arabiarak eta juduak, maisu paganoak, denak ikasi eta bereganatu ditu «sinpatia unibertsalez»³⁴⁵. Salaberryk jarrera antidogmatikoaren eredutzat aurkezten die San Tomas ospakizuneko

bere konferentziaren entzuleei, zeharkako eztenkada batekin dogmatismo komunari³⁴⁶. Hogeita lau urte geroago, dogmatismoaren aurka beti, elizgizonak egia, «nun nahi dadin agert», onartu eta bataiatu behar duela, jarraitzen du errepikatzen³⁴⁷. Salaberry ez da herabe, egin behar duela, uste duenean, Bergson kritikatzeko. Onirizpenean ere ez da dogmatikoa. Askatasuna erakustea zen Bergson-en *Essai* lehen obrako xede behinena (ik. III. Kapituluak eta Konklusioa); baina haren askatasunaren kontzeptuari doakio, hain zuzen, Salaberryren kritika zorrotzena³⁴⁸. Horri loturik, bigarren kritika substantziala: «Ahantzi du hortan Bergson-ek asmua [intuizioa] ez dela gizonarentzat aski, ez baizaiko uztartzen adimendua edo arrazoina»³⁴⁹. Funtsezko neotomistaren errebindikazio intelektualista logikoa (nahimenaren edo lehentasunaren aurka). Hala ere, «hemeretzigarren mende hastean xapeldun ziren jauneri behatu-eta, zonbat urhatsez ez dago Bergson aintzinean!»³⁵⁰. Horientzat «nahun ez da ageri libertatea»³⁵¹. Hain zuzen horien determinismoa gainditu izanaren merezimendua dizu Bergson-ek bere-berea³⁵². Askatasunaren bere azalpenak, bada, «ez dira makurrak, bainan ez dira asko urrun helduak, edo dira makur, direlakotz labur»³⁵³. Lehengo kritikarekin kontrastean, beraz, Taine edo Marx-en determinismo sozialari, Salaberryk Bergson-en «gizarte irekia»³⁵⁴ oposatzen dio. «Marx-ek ateratzen du herriak dutela egiten gizona; denborak, ixtorioak dutela aintzinean erabiltzen, akulua bizkarrean, bere ustez itzain litaken gizona. Geroa ezarria jadanik ixtorioaz, bere aldian itzuliko diren liburuko zatietan. Jin beharra jinen da, eta jin beharra komunixgoa baita omen, ethorriko komunixgoa. Mendeak dabilta, orratza dorreko orenean bezela, urhatsez-urhats, jenden berantetsiaz edo jenden nardatzeaz den gutieneko axolarik gabe. –Bergson-ek aldiz erakusten daukigu, gizonak duela egiten herria; akulua bizkarrean daukan itzainak dituela bidatzen ixtorioa eta denbora. Geroa ez da aitzinetik liburuko zatietan emana. Guk dugu astez-aste, egunegun emeiten»³⁵⁵. Areenean, marxisten eta kristauen posizio kontrajarriak, Bergson-ek elkarretara ditzakeela gaur egun, uste du Salaberryk, behiala San Tomasek egindako sintesiaren antzera. «Girixtino kartsua baino hobeki mintza ditake Bergson Marx-en dizipulueri. Bizi da heien par berean. Ez ditu girixtinoak bezela kexatzen. Ez zaizko girixtinoari bezela bihurtzen. Ez ditu hala erhotzen. Berg-

son izan ditake ararteko, lotzen dituela Marxizta Jainkoaren etsaia, eta Girixtinoa, Jainkoaren adixkidea»³⁵⁶.

Filosofia, ordea, ez da ideien -adimenaren- arazo hutsa. Pertsona osoarena da, bizitzarena. «Bergson-ek eman dezakegun erakaspenik baliosena, behar bada bere biziaren erakaspena»³⁵⁷. Salaberryk haren langiletasuna, egiazaletasuna, batez ere apaltasuna, goratu ditu: «Ikusiak-ikusi, jasainak-jasain, bermatu da bere hari, tematu egiaren ondotik, langile jarraikia, langile umila. Arrabotsaz den gutieneko axolarik gabe, begiratu du bere bihotza, urguluaren ausiki tzarretik»³⁵⁸. Azken egunetako kalbarioa: haren Frantzia okupatuaren maitasuna³⁵⁹, herrikide judu pertsegituekin solidaritasuna, haren tinkotasun pertsonala azken urteetako gaitasunean «kasik itsua», gogoratzen ditu. Ideietan bezala, bere bizieran ageri da Sokrates berri. «Filozofia, Greziako ikerzalentzat, ez zen gogoeta molde bat, bainan bizi molde bat. Orduko ohiduren arabera, zuhurziak behar zuen gogoak bezela bizia, edertu eta onthu. Zuhurzia gogotik bizirat jausteko egina, gizon osoaren apaintgarri. Greziako ohidura paregabeari esku eman du Bergson-ek»³⁶⁰. Eta kasik Jesus berri, Salaberryren luman bederen: «Judua zen sortzeko sinhestez eta odolez: juduak ihizi basak bezela lasterkatuak eta aintzinean erabiliak ziren. Sei miliun janen ditu herra madarikatu eta hil-labetako su belzak. – Bergson egon da girixtino fedearen alhazean ez nahiz-eta bere haurriden zorigaitzetik ihes bazohala, nehorek aipha zezan, zehorek gogoan erabil, ez asma. – Haren azken korona, elhorrizko korona. – Jainkoaren semeak ez du bertzerik hautatu Orzirale Sainduz, jausteko harrokan ideki hobirat»³⁶¹.

Agur, Jaun Salaberry

Haren jaiotzaren 100 urtegarrena ospatzean, distantzia pixka –ez handi– honek berrirakurketa kritikoa batera gomitatzen gaitu, ibili garen eta gabiltzan bidez. Non gaude? Non gelditu da pentsamendu hura, garai batean hain indartsua Euskal Herrian eta halako pertsonalitate gailenak eduki dituen (Jose Antonio Agirre, Santamaria, etab., baina Koldo Mitxelena eta ere), «demokrata-kristaua» izenda litekeena labur-zurrean? Baina, Toribio Etxebarria bezalako sozialisten pentsamendu «humanista kristaua» esan genezakeena ere, non da? Mundu horretatik gatoz denok. Kulturalki kristautasunak edo «humanismoak» dominatu-

riko tradizio amankomun hori gaur-egun auzikatua da, geroz eta lurpetarrago doa bilakatuz -arrazoiketaren mailan gutxienez-, onartu denean ere; geroz eta arbuaiatua da sektore askotan (ez dut esaten ez ongi eta ez gaizki dagoenik). Zer gertatu da -zer egin dugu- gure iragan intelektualaz?... Salaberry baitan aurkitzen duguna, geure hastapenak -gure asmo, desorientazio, bilaketak- baitira. Geure borrokak, kontraesanak. Oraintxe ere jarraitzen duten gure buru-bihotzetako gatazkak. Irakurleak erreparatuko zuen, ohar kritiko batzuk funtsean autokritikoak zirela halaber; beharbada horregatik egin dira, egin ere. Ibiliz ikasten omen da. Geure iraganarekin behar dugu solastu, eztabaidatu. Tradizioa ikasten joatea da, aurrekoengandik ikasten eta desikasten. Desikasten ere bai. Iraganik ez duenak, konfrontatu eta kuestionatzeko, etorkizunik ere ez du berak egiteko. Salaberry gure pionero izan da. Eman biezaio gure kritikak eta gure lanak jarraipena.

Hasiera pertsonal zail bat da harena -Lafitterena beste modu batean den eran-, bere zirkunstanziei eta ingurumenaren kondizioei lotu-lotua: presokanpoko esperientziari eta bere kultura filosofikoari, maila pertsonalean; Eliza frantsesaren historiari eta bere formazio eliztarrari, lanbideari gero, maila instituzionalean. Erabakigarria da, nik uste, nola momentu batean bere burua injustuki gaitziritzia, marginatua deskubritu duen, lehenengo kristau fededun gisa, euskaldun gisa gero, jarraituki bezala batetik bestera, Errepublika jakobinoaren aurrez aurre, horri buruz postura kritiko geroz eta zorrotzagoa bereganatuz joateko. Gogoratuko nuke, traiektoira intelektual hain diferentea izango duen Manex Erdozainzy-Etxart adiskidea, JAKIN-en idatzi duen lehen artikuluan (1957), Estatua/Eliza arazoaz jardun dela orobat, Kongregazioen eta eliz eskolen gatazka bereziki aipatuz, kritiko Frantziako Gobernamentuen historiarekin. Herria da Elizari (Kongregazioei) eusten diena. Herriak ikusi du, hamalauko geran apez eta fraideek nola erakutsi duten «zaukatela bihotzean Aberriaren alderateko egiazko amodio bizia»; herriak «bere jite bereziaren arabera maite du zuzentasuna», ez dezake onart apez eta fraideak kasatuak izan daitezen lehenagoko denboretan bezala; herriak «ez du nahi Kongregazioen kontra zer bait egina izan dadien eta bere gain hartzen du heien begiratzea»³⁶²; hitz batean, herria Elizarekin da eta Eliza herriarekin, alemanen aurka Aberria defendatzen, erresuma altxatzen: «Denek bizi behar elgar lagunduz eta elgar maitatuz. Bizi behar ere erresuma baten bar-

nean, eta erresuma horren ongia arthoski bilatu behar. Gizon bakotchak baditu bere eginbideak bere Aberri eta Gobernamentuaren alderat (...). Guk ere behar dugu pharte hartu gure lurreko erresuma bakotcharen egiten; nahi ukan behar dugu gure erresuma bakotcharen izaitea eta haren haunditasuna...³⁶³, hola-koak dira hastapenetan Manex Orsay-ko Seminarioan teologia estudiantearen hitz gazteak. Estatuarekiko identifikazioaz denaz bezainbatean, hastapenean kontrajarriak bezala ziren gogoeta kritikoaren abiapuntuak eta kondizioak Iparraldean eta Hegoaldean, aldi berean biak Elizaren arazoarekin oso lotuak, hori alde bien patua izan da garai horretan. Konparazio interesgarri honek mereziko luke arreta zehatzagoa beste egunen batean.

Salaberryk bere ibilbide kritikoa egin du. Azkeneraino ez da joan –inor ez da joaten! Salaberryri eskertu behar zaio, abertzaletasuna kosmobisio global baten barruan pentsatu izatea, filosofo gisa. Askotan autoreak «euskal ekai» hutsera murrizten ditugu (filologiara murrizten ez ditugunean). Ez dugu galdetzen: zer pentsatzen zuen gizon-emakumeaz?, etab. Geuk mozten ditugu pentsamendu bakarrera, edo ideia bakarrera. Salaberryk munduaren aurrean pentsatu du beti gizon-emakumeaz, gerraz eta bakeaz, Europaz, Euskal Herriaz. Ez du mundutik bakandu Euskal Herria. Ez du zilaren kontenplazio bat egin, «euskaldun fededun» gisa horretaraxe kondenatua zirudien arren. Eta Euskal Herriaren gogoetari, hemengo kondizioek agintzen eta uzten zioten izaritxoan, bere kultura filosofiko zabala aplikatu dio, gero. (Bi arrazoiongatik ahal izan duela, esango nuke, eboluzio etengabe batean jarraitu azkenera arte). Ez zuen lan erraza. Bere lerroetan zehar etika bat, ideario politiko bat, humanismo bat, kristautasun bat doa bidegiten. Kontua ez baita tesi batzuk mailu bezala eskuan edukitzea, ikusmolde orokor bat historiaren gainean zabaltzea baizik, edo zabaltzen hastea gutxienez, euskaldunaren begiekin.

Oin oharrak

- ¹ Badu bere justifikazioa: «L'onomatopée est la figure de rhétorique préférée par les Basques: *itzuli da briu-brau*, il s'est retourné tout d'une pièce», ik. «L'Aliénation basque», *Gure Herria* 5 (1967), 273.
- ² Baina «gaizkia»rekin (hegoaldeetarrak «behar edo nahi denaren edo egoki denaren kontra-ria, edo «lege moralaren, bertutearen, ongiaren aurkako dena» ulertu nahi badizu (ik. SARASOLA, I., *Euskal Hiztegia*, Kutxa Fundazioa 1996), ezingo dizu ezer ulertu! Salaberry irakurtzeko (ez Salaberry bakarrik) Iparraldeko euskararen hiztegi hobekak behar ditugu, berriak.
- ³ SALABERRY, E., «Henri Bergson», in: Jakin Taldearen ardurapean, *Filosofia-riaren Kondaira I*, Arantzazu 1965, 103.
- ⁴ Beharbada moralista horiekin ezin zuelako bateratu, eskapatu zaio: «Ez dezagun utz bakarrik, Axular hamaseigarreneko [sic!] mende kaskoan galdua» (aip. tok.).
- ⁵ *Ib.*, 102.
- ⁶ *Ib.*, 101.
- ⁷ *Ib.*, 103.
- ⁸ Berba batzuen doitasun edo egokitasunaz beti zalantzak gelditzen dira: «gogolari» (filosofo), «zuhurtzia» (filosofia, beharbada «sagesse» zehazkiago). Edo are: «transformisme» edo bestekuntza, «existentialistes» edo izatealitzak, «humanistes» edo gizonlariak, etab. Nolanahi ere, terminologian bezala sintaxian, euskara teknikoki zalutzeko Salaberryk ahalegin handi bat egin du, ukaezina, ikerketa baten aiduru dagoena. Filosofian hainbeste behar izaten den jarraipenaren, ondoriapenaren ideia adierazteko, barietate hau aurki daiteke lerro gutxitan, «Gizonaren ezin geldia» artikuluan, *Jakin* 21 (1966) 85-96: jalgi, aldakatu, jautsi, jauzarazi, eho.
- ⁹ *Ib.*, «L'Aliénation basque», loc. cit., 273. *Ene Sinestea. Iragan bizitari gibelitik beba* [ES hemendik aurrera, testuaren barruan aipa dadinean], 1978, 189. *Etienne Salaberry euskalzaleari «Eskualzaleen Biltzarrak» eskaini OMENALDIA*, Baiona 1980 [Omenaldia hemendik aurrera], 69.
- ¹⁹⁷ Esan beharrik ote dago, Salaberryren orrietan egiaren denborazkotasun edo historikotasun bat ere badagoela printzipioz aitortuta? «La vérité se révèle à l'homme à travers les étapes du temps», in «Le concept de la vérité», loc. cit., 365. Zinez, ordea, inon ez zaio egiaren historikotasunari jaramonik egingo. Lerro batzuk lehenago hala azpimarratu da, azpimarratu ere: «Pour le Basque, la vérité est chose. Elle existe en soi. Elle possède sa densité propre. Elle recèle un déterminisme. Elle a élu domicile au coeur du réel avec lequel elle coïncide» (Ib., 364).
- ¹⁹⁸ «Saint Thomas», loc. cit., 8.
- ¹⁹⁹ Egia eta ongia bat izaki, poligamiaren arazoa egiaren arazo bihurtzen da (ik. *Beñat adiskidea*, loc. cit., 47). «Situazioko moral» deitua orobat: «Aipatuak aipatu, gaitzeko hedadura ukan dik giristinoen artean, Sartre-n «tokian-tokiko zuzentasun» erakaspenak» (Ib.).
- ²⁰⁰ Ik., adibidez, «Vérité» artikulua, bost esanahi ezberdinez, in LALANDE, A., *Vocabulaire technique et critique de la philosophie*, Paris 1983; ik. orobat AUROUX, S. (arg.), *Encyclopédie philosophique universelle. Les Notions philosophiques*, bol. II, Paris 1990.
- ²⁰¹ *Beñat adiskidea*, loc. cit., 46.
- ²⁰² Ib. Billancourt, Pariseko langile auzoa, bastida komunista sinbolikoa. Sobiet Batasuneko krimenak jakin zirelarik –Sobiet Batasunak komunisten ideala adierazten zuen–, Sartre-k uko egin zion jendaurreko haien gaitzespen eta salaketari, «Billancourt ez desesperatzeko» (proletargo komunista iraultzailea). Salaberryk: «Ez omen zaiok salatu behar Billancourteko langileriari badirela Staline-n eremuan, Hitler-en eremuan bezala, gizon bahituen hiltzeko korraleak» (Ib.). Korrale horien artean Mühlberg-ekoa zegoen hain zuzen!
- ²⁰³ *Beñat adiskidea*, loc. cit., 47.
- ²⁰⁴ Ib., 46.
- ²⁰⁵ Freud-enganako kritikoa, ik. *Ene Sinestea*, loc. cit., 62-63. «Beha eta beha egon naiz miletan putiko kozkor tipieri, jakiteko hea Freud-ek dituen gauzak ongi agertu. Ez zait iduri».
- ²⁰⁶ Ik. *Ene Sinestea*, loc. cit., 184. «La Messe», loc. cit., 40, 41-46.
- ²⁰⁷ «Henri Bergson», loc. cit., 117-118: «Kant agertuz geroztik, hemezortzigarren mendean, badu mendebaleko gizonak beldur bat bere gogo-ahalaren eremuaz. Ez duela fidantzia izpirik Greziako «zofizte», arrazoinkeri-marrazoinkerien gisa, ez ditake aipha. Gezur litake holako zerbeiten jalgitzea. Baina ez du sinheste osoa eta gozoa. Bere ahalaz dago durduzatua, herabe. Kant-en arabera zer guziak ikusten ditugu gure hartzea baliatuz, gure hartzearen muturrak joak eta makurtuak. Ikusten ditugu ez osoki diren bezela, baina pharte, giren bezela. Aski ezagutzen ditugu jakinzaren ukeiteko, baina ez jakintzatik altxatzeko gorago, urrunago, hala nola Jaungoikoa ezagutzerainokoa. Kant-ek derasa ez ditakeela gizonaren gogoia errebelatzen, lurtiar itxurak, lurtiar itxureri josten dituelarik, eta holaxet moldatzen lurraren gordekeriak

idekiko dazkion jakintza; lurreko indarrak eskuratuko diozkan jakitate lurtiarra.

Bainan ez dezake onhart lurretik gorago iragan ditakeela gizonaren gogo. Ez dezake, omen, zubirik saka, lurretik goitik altxatzeko. Bortxatua da lurraren axalez-axal ibiltzerat. Lurraren jabe gizon-gogo, bainan ere lurra gizon-gogoaren jabe eta nagusi.

Eta goiti gizonak egin ez dezakeen oldarra, ez dezake egin ere beheiti. Ez dezazke gauzak hunki bere batasunean. Beti gogoak barreatzen ditu, gauzak nahi ala ez, bortxaren bortxaz, bere barneko legeak hersaturik, bere barneko legea, halakoa baita.

²⁰⁸ Ez dago inola ere esaterik, Kant-entzat «lurra gizon-gogoaren jabe eta nagusi» denik, ez arrazoimen teorikoaz, are gutxiago praktikoaz!

²⁰⁹ *Hori pentsarazten du, gauza berbaitakoari erreferitzeko «gauzez... beren batasunean» esaeraz giteak, esaterako.*

²¹⁰ *Beñat adiskidea*, loc. cit., 73. 2 Lege morala —das moralische Gesetz— Kant-ek; lege morala joera edo lehia natural orori esentzialki kontrajarria da.

²¹¹ *Ene Sinestea*, loc. cit., 180-181: «Gau okaztagarriak, nun sendatzaileak eman sendagailuak erraiten baitauzu lepotik harturik: «lo egizak», eta bihurtzen barneko dei samurrak: «lokartuko ez nuk». Borroka gaixtoa. Jendea ez da gehiago bere jabe. Fede zaharretan badira «tabu», debekio zorrotzak, ezin hunkizko tapuak. Tabu, hitz hori aipatzen da ezpainak luzatuz, erdeinuz ahoa beterik. Hola mintzo direnak ergel eta ttarrapat. Badira tenoreak nun baitugu tabu horien beharra. Tabu goraki mintzo. Tabuk eskuetan hartzen giderrak. Dohakabe, tabu bere baitan ahul duen gizona».

²¹² Beti ere librea, ez doi-doi literala. Kant-ek «jakitea ezeztatu» dio («das Wissen aufheben», B XXX), jakite eta pentsatzearen oposizioaren adiera errigortsuan hain zuzen.

²¹³ Loheria, sendagailu, tabu, inperatibo kategorikoaren asoziazio bitxi hauen azpian zer ezkuta daitekeen, ez bedi gure lana izan. Loheria eta beste istorio bitxi bat, ik. *Beñat adiskidea*, loc. cit., 78.

²¹⁴ «Aspaldiko Talez, izarrerri beha zagolarik, erori zen zipurat. Eta Traziako neskatoak irri zapart egin. Baginuen Euskal-Herrian orok Traziako neskatoen eite», ik. *Ene Sinestea*, loc. cit., 119-120.

²¹⁵ «Gizonaren ezin geldia», in: *Jakin* 21 (1966) 93.

²¹⁶ *Beñat adiskidea*, loc. cit., 35.

²¹⁷ *Ib.*, 73.

²¹⁸ *Ib.*, 41. Gehitzen du Salaberryk bere aldetik: «Berdin anaitasunetik, berdin atseginetik, berdin Euskaditik, berdin euskalgotik».

²¹⁹ «Le Pédagogue et le Commissaire», loc. cit., 20: «Sartre a démontré que la morale laïque «que des professeurs français inventèrent vers 1850...» et qui constitue la «tendance de ce qu'en France on appelle le radicalisme»,

- a consisté, «à supprimer Dieu avec les moins de frais possible, sans supprimer la morale qui en découlait».
- ²²⁰ «Gizonaren ezin geldia», loc. cit., 94: «Albert Camus-ren bihotzêko pipia, Sizife, Greziako zigantea (...). «Iduripendu behar da Sizife dohatsu». – Albert Camus-ren liburua irakurtu dutalaktz, gerlako presoner gisa, Alemaniako Stalag batean, betikotz goihendu nute elhesturia farzuntziek. Badakit zer hazta duten».
- ²²¹ *Omenaldia*, loc. cit., 89: «Euskaldunak badu Zizifoz-en eite. Xut egin beharraren patarra. Harroka gaitza euskaldun kultura. Goiti abiatu orduko, beheiti lerratua. Lan etsigarria. Eta bizkitartean lan maitagarria. Gure lana. «Behar da asmatu Zizifoz zoriotsu», zerasan Albert Camus-ek».
- ²²² Autore alemanetan maiz aurkitzen da deitoraturik, Frantzian egiten omen den Hegel-en irakurketa kojëvianoa, nagusi eta esklaboaren dialektikara murriztua. Salaberryk: «Hegel fait de la lutte du maître et de l'esclave le moteur de l'histoire», ik. «L'Aliénation basque», loc. cit., 327. Ik., orobat, *Ene Sinestea*, loc. cit., 109.
- ²²³ «La Fête», loc. cit., 39. Alderdikeriaren kritika bera, ik. in «Du régionalisme à l'internationalisme», loc. cit., 92, eta *Beñat adiskidea*, loc. cit., 46-47.
- ²²⁴ «Pilota, Eskual-Herriaren gatza», loc. cit., 287.
- ²²⁵ «Gizonaren ezin geldia», loc. cit., 93-94.
- ²²⁶ *Beñat adiskidea*, loc. cit., 45.
- ²²⁷ *Ene Sinestea*, loc. cit., 69: «Orduko «ni» hitzak berekilan zaukan «hi» hitz gabea. Ez zen «hirik» gabeko «nirik». Descartes-en arabera: «Gogoetatzen dut, beraz banaiz». Orduko Euskaldunaren arabera: «Zutaz eta nitaz gogetan naiz, beraz bagira».
- ²²⁸ Salaberryk berak aitortu du: «Il n'est personne qui ne soit contaminé par l'existentialisme, la philosophie immanente de nos trahisons» (hor pesimismoaz dihardu, hala ere, ez boluntarismoaz). Sartre-ri XX. mendeko ahotsa irizten zaio: «Sartre est l'enfant de ce siècle», ik. «La Messe», loc. cit., 44.
- ²²⁹ Euskal karakterreko boluntarismoaz, ik. «L'homme basque», loc. cit., 11-12. Hala ere, hemen, kreatzaile baino gehiago organizatzaile kontsideratzen da euskal ekimena.
- ²³⁰ *Ib.*, 12: «(...) Le Basque, au risque intellectuel, préfère le risque de l'action. Il joue sa vie sur la carte de sa volonté, plus volontiers que sur celle de ses connaissances. Cette notion s'apparenterait, d'assez près, à celle du marxisme, selon laquelle il nous faudrait, «non point penser le monde, mais le transformer».
- ²³¹ «La dialectique de l'histoire est irrépressible. Marx l'a bien vu!», ik. «Du régionalisme à l'internationalisme», loc. cit., 377.
- ²³² «L'Homme basque», loc. cit., 16: «Il n'est pas possible de se livrer à une étude de sentiments sans tenir compte de leurs soubassements économiques».

- ²³³ «Le Pédagogue et le Commissaire», loc. cit., 14: «La propagation d'une idéologie n'est jamais désintéressée, lorsqu'elle coïncide avec la main mise sur l'appareil administratif. Elle est la superstructure avouable qui recouvre la captation d'avantages matériels et leur tranquille jouissance: elle est une mystification». Ib., 25: «Il importe d'opérer en ce que concerne l'éducation populaire, une révolution analogue à celle de Copernic en astronomie, en substituant à une culture centrée sur l'Etat, et par suite sur la classe qui en assure le fonctionnement: sur ses intérêts idéologiques et matériels, une éducation qui graviterait au contraire autour du peuple lui-même et de son épanouissement désintéressé».
- ²³⁴ Baditu, hala ere, adibidez hauxe bezalako ateraldiak, zein marxismoz ari den hor, ez baitu ongi ikusten, propagandaren batekoaz ez bada: «La femme basque sans doute, demeure l'égale de l'homme. Mais elle n'est point ce qu'est la femme selon le marxisme: une sorte de mâle castré», ik. «La Fête», loc. cit., 27.
- ²³⁵ Salaberry ez dago beste gabe komunismoaren erabat kontra: «Mao Tse-tung-ek (...) Xinari egin ongia» erreparorik gabe aitortzen du, ik. *Ene Sinestea*, loc. cit., 44.
- ²³⁶ «Le Pédagogue et le Commissaire», loc. cit., 14: «Il faut être aveugle ou dépersonnalisé comme le sont les cryptomarxistes (...). Marx devait les prévoir, lorsqu'il déclarait avec un rictus: Je ne suis pas marxiste».
- ²³⁷ Ib., 28.
- ²³⁸ *Ene Sinestea*, loc. cit., 130, Bokaleko komunista batekin izandako solasa kontatzen digu: «Ez niozkan bere arrazoinak erreferatu, bainan behexi: «Hau ez duk Marx-en erranetik, hau duk Rousseau-ren dutxulutik». Behexite horrek ezarri ninduen gora lagunen eretzean. «Kasu! Komunixmoa komunixtek baino hobeki ezagutzen dik». Anekdota honek bati baino gehiagori gertatua dirudi, komunistek Marx-enak bezala aldarrikatu ohi zituzten *Discours sur l'inégalité*-ko zenbait ideiarekin.
- ²³⁹ «Ehun eta berrogoi eta hamar urtez haren etxean izan dira Rabbin, judigo apezak. Etxean, liburu sainduetan ikasi ditu zuzentasunaren dretxoak», in: «Mendeko bi zauriak», loc. cit., 351.
- ²⁴⁰ *Ene Sinestea*, loc. cit., 114: «Har-azu Marx. Haren solas sasia galduko zira ez bazira orroitzen ehun eta berrogoi eta hamar urtez haren arbasoak izan direla apez judu. Judu profetarik du daukan zuzentasunaren alderako oldarra, jende xehearen zaintzeko duen kopeta». *Beñat adiskidea*, loc. cit., 50-51: «(Nietzsche eta Marx) biak judu-giristino fedean haziak; heien ulertzeko, ez zaikala hori behin-ere ahantz».
- ²⁴¹ «Du régionalisme à l'internationalisme», loc. cit., 92: «(...) Une application temporelle, du principe intemporel de la charité, la mise en pratique avec ses réussites et ses erreurs, d'une vérité révélée: la fraternité de tous les hommes dans l'unité d'un seul Dieu».
- ²⁴² «Mendeko bi zauriak», loc. cit., 351: «Zorigaitzez ahantzi Jainkoarenak oro [dretxoak], eta Jainkoarenekin, gizonarenetarik asko».

- ²⁴³ Erregionalismoa arrotza zaie eta Europako Batasunari kontrajartzen zazkio. Maiz errepikatzen da sozialisten nazionalismoaren (zentralismo, estatalismoaren) kritika.
- ²⁴⁴ «Du régionalisme à l'internationalisme», loc. cit., 92.
- ²⁴⁵ «La Messe», loc. cit., 43.
- ²⁴⁶ Ib., 45: «La pensée rationnelle n'est pas seule à bouleverser le monde. Les peuples pauvres ont bâti des empires. L'irrationnel a ouvert la voie au rationnel. C'est le prolétariat misérable de la Russie qui a établi le communisme».
- ²⁴⁷ Ib.
- ²⁴⁸ «Henri Bergson», loc. cit., 137-138.
- ²⁴⁹ «Mendeko bi zauriak», loc. cit., 351.
- ²⁵⁰ *Beñat adiskidea*, loc. cit., 51: «Marx-ek ikusi ditik fededunak gibelka eta ezazol ginaudela frangotan behardunen alderat. Gure gaizkia sinkusa, asmatu dik Kapitale liburuan ebanjelioa ez bezalako ebanjelioa». Nietzsche-k ere merezi du antzeko desenkusa bat (Ib.). Urteak lehenago ere, berdintsu: «Si la morale se confondait avec ce moralisme hypocrite dont on nous abreuve de nos jours, alors il serait vrai que la morale n'est que la plus abjecte des inventions humaines: un piège de la lâcheté, pour s'apparaître innocente à force d'accuser les autres. Et Nietzsche aurait raison qui la piétina avec rage», ik. «Du régionalisme à l'internationalisme», loc. cit., 140.
- ²⁵¹ *Beñat adiskidea*, loc. cit., 53.
- ²⁵² Ib., 51.
- ²⁵³ Ib., 53.
- ²⁵⁴ «Bainan desegin baitu zuen Jaungoikoaren alderako sinestea, egin du bere burutik Jainkoso bat (...). Egiptoko esklaboak bazuen parte xume bat Faraon erregearen Jainkotasunean. Marx-en gizona nihundik ez. Faraonen gizona txar, baina norbeit. Marx-en gizona ahaltsu, bainan zerbeit», in *Ene Sinestea*, loc. cit., 114.
- ²⁵⁵ *Beñat adiskidea*, loc. cit., 52.
- ²⁵⁶ Ib., 51.
- ²⁵⁷ Ib., 52.
- ²⁵⁸ Ib., 51.
- ²⁵⁹ Ib., 52.
- ²⁶⁰ *Omenaldia*, loc. cit., 91. «Ezker-zaharrak 19. menderat gibelka eremaiten gaitu. Karl Marx orduko profeta zen (...). Eskuin-berriak (...) 19. menderat berdin arreka heltzen gaituzte. Arthur de Gobineau orduko profeta». Hor, A. Gobineau-ren lerroan, Yon Mirande aipatua.
- ²⁶¹ «Saint Thomas», loc. cit., 7-8. Bere paralelismoaren amorez, Salaberryk XIII. mendea kasik Ernazimentu bat bihurtzen digu: «Alors le monde se réveilla, dans un sursaut terrible, parce que, avec éblouissement, il s'aperçut que d'immenses trésors spirituels étaient éparpillés le long des

- siècles, jusque par delà l'horizon grec» (Ib.). Baina Erdi Aroko «Ernazimentua», inon egitekotan, XII. mendean ipini ohi da.
- ²⁶² «La Messe», loc. cit., 36.
- ²⁶³ Ib.
- ²⁶⁴ Ib., 37.
- ²⁶⁵ Ib.
- ²⁶⁶ Are dantza gehiago: in «Henri Bergson», loc. cit., 136, optimismo horrek Teilhard XIX. mendetarra egiten du, eta, Salaberryren horko esanean, Bergson-ekin asoziatzen du (Marx-ekin ere, hor esaten ez duen arren). Aldiz, irakurtzen dugu garai beretsuan paraturiko «La Messe-n, loc. cit., 36, «il n'est pas bon, comme l'a fait Madame Madaule, de rapprocher Teilhard de Chardin de Bergson».
- ²⁶⁷ Ikus halako gehiago, *Ene Sinestea*, loc. cit., 81: Saint-Cyran eta Pascal versus Loiola eta Lhande.
- ²⁶⁸ Parmenide-k zioen «izeitea zagola hala hala, geldi geldia, bilintzi-balantzan eman gabe edo ez izeitetik izeiterat, edo izeitetik ez izeiterat»; Heraklito-k, «Oro xurrupitatzen dira, eta deusik ez da gelditzen», zion bere ateraldi etsian. «Bidea badoha goiti, eta badoha beheiti. Ibaia burrustari: ez ditake bietan mainha, ibai berean», ik. «Gizonaren ezin geldia», loc. cit., 93. «Oro aldatzen dira, eta deus ez da hala-hala egoiten», zion Eraklite Efeziakoak. Atzoko uhainak urrun, biharkoak ez etorriak. «Behinere ez da ibai berean bi aldiz mainatzen», *Ene Sinestea*, loc. cit., 103.
- ²⁶⁹ «Gizonaren ezin geldia», loc. cit., 93. Ez da gutxi harritzekoa, kosmosaz arduratua izatearren Teilhard presokratikotzat jo lezakeenak, Heraklitoren jarraigotzat jotzea gero existentzialismo modernoa, ardurarik batere gabekoa kosmoaz (Ib.). «Dena nigar Heraklite», zerasaten Efezietiarrek. Denboraren mementoak pirka-pirka, behexten badira, nihundik heldu ez den nehorat ez dabilan denborak osoki funts-gabea eman lezake. – Badiu jarraikitzaileak Heraklitek. – Herakliten hitzak derabiltzate <existentialistes> edo izaitealiztek. Erran beretan daude» (Ib.).
- ²⁷⁰ Askatasuna ez salbatzea, Salaberryk beste pentsamendu filosofikoei -Spinoza, Bergson, Teilhard- oso erraz egiten dien objektzioa da.
- ²⁷¹ «Ordura arte gizonak zeraman bidea bazohan Jainkotik gizonerat. Gizona eta Jainkoa elgarri lotuak zauden, Jainkoa lehen, gizona haren argian hartua, gizona bigarren»; Ernazimentuaz geroztik «gizona da lehen, eta haren bidea badoha, ez Jainkotik gizonerat, bainan gizonetik Jainkorat, Jainkoa, gizonaren ikertzean, bigarren», in «Mendeko bi zauriak», loc. cit., 342.
- ²⁷² Ib.
- ²⁷³ Gogoratu beharko da, holakoxe tesi bat -inmanentzia hutsaren ezintasun intrinsekkoa, hots, ekintza oro edo ezagutza orotan joeraz edo inplizitoki beti Jainkoa inplikatur dagoela- Blondel-ek (1861-1949) irakatsi izan duela. Salaberryren beste hainbat tesi orobat: Jainko gabe ez dago mo-

ralik, etab., Blondel baitan berdin aurkitzen da. Blondel Salaberry estudiantearen irakurgaietako bat izan da, bere esanean.

²⁷⁴ «Le concept de la vérité chez les Basques», in *Gure Herria* (1964) 365.

²⁷⁵ Profesore honi buruz ik. *Ene Sinestea*, loc. cit., 108.

²⁷⁶ Ik. *Ene Sinestea*, loc. cit., 99, antzeko beste pasadizo bat: «Jaungoikoa behar dea ezarri orenen erdian, ala orenen erdian gizona; Jaungoikotik jautsi gizonerat, ala gizonetik iragan Jaungoikorat? Ala, Duvergier de Haurannen ondotik, Jaungoikoa behar dea bilatu Jaungoikoan, Jaungoikoa izaita gatik gauzatarik goragokoa, ala, Iñaki Loiolakoaren ondotik, Jaungoikoa behar dea bilatu gizonen, Jaungoikoa izaita gatik gauzen barne barnekoa? Hilabeteak atxiki dut auzi hori gogoan. Egun batez tipust-tapast heldu zait bururat Jaungoikoa bakarrik goragokoa, Jaungoikoa bakarrik barne-barnekoa daukatenak, berdin direla errebelatzen, ezartzen baitute Jaungoikoan haren baitan ez den denbora».

²⁷⁷ *Ene Sinestea*, loc. cit., 185: «Jaungoikoa zerbitzatuz zerbitzatzen dugu gizona. Gizona zerbitzatuz, zerbitzatzen dugu Jaungoikoa. Bainan hain gira herbailak nun bati behatzearekin, aise ahanzten baitugu bertzea. Bati hurbiltzearekin, bertzetik aise urruntzen».

²⁷⁸ Kant-en kasua diferentea da, Jainkoa ez da munduaren fundamentu ontologiko bezala ezagut daitekeen zerbit.

²⁷⁹ *Ene Sinestea*, loc. cit., 99.

²⁸⁰ Ik. *Ene Sinestea*, loc. cit., 186: «Batzu eta bertzeak enganatzen denboraren mamiaz. Denboran josirik daude Atzo, Egun eta Bihar. Atzo edo Bihar baizik aipatzen dituenak, ez du ahoan denbora, bere ur garbi zalapartan, bainan denbora eihartua, denbola hila. Ez da denboran, bainan eremuan». Testua zuzenean «begiratzailer» eta «aintzinakariei» dagokie (kontserbakoi eta progresista), baina horiek antropo- eta teozentrikoe-kin berdintzen direla, ematen du testuinguruak.

²⁸¹ Ik. BERGSON, H., *Oeuvres*, Édition du Centenaire, Paris 1959, 66: «(...) Lorsqu'on fait du temps un milieu homogène où les états de conscience paraissent se dérouler, on se le donne par là même tout d'un coup, ce qui revient à dire qu'on le soustrait à la durée. Cette simple réflexion devrait nous avertir que nous retombons alors inconsciemment sur l'espace». «(...) Le temps, conçu sous la forme d'un milieu indéfini et homogène, n'est que le fantôme de l'espace obsédant la conscience réfléchie» (Ib., 67). «Par cela seul qu'on prétend décomposer le temps concret, on en déroule les moments dans l'espace homogène...» (Ib., 144), etab.

²⁸² Ib., 1290: «Ce qui se comprend moins, c'est qu'on ait appelé Dieu un principe qui n'a rien de commun avec celui que l'humanité a toujours désigné par ce mot (...). Et pourtant il arrive encore à la philosophie d'appeler Dieu un Être que son essence condamnerait à ne tenir aucun compte des invocations humaines, comme si, embrassant théoriquement toutes choses, il était, en fait, aveugle à nos souffrances et sourd à nos prières».

- ²⁸³ Bergson-en *L'Évolution créatrice*, azken kapituluari ematen den filoso-
fiaren historia laburrean, doi-doi kontrarioa irakur zezakeen Salaberryk
Spinoza eta Leibniz-i buruz: «Il est vrai qu'après avoir concentré en Dieu
la totalité du réel, il leur devenait difficile de passer de Dieu aux choses,
de l'éternité au temps» (Ib., 792). «Et le déterminisme rigoureux des phé-
nomènes successifs dans le temps exprimait simplement que le tout de
l'être est donné dans l'éternel» (Ib., 789). Metafisika modernoarentzat
nahiz antzinakoarentzat «la réalité, comme la vérité, serait intégralement
donnée dans l'éternité» (Ib., 794) – oroit Salaberryren beraren «egia (...),
betidanik bera da. Ezin aldatuzkoa».
- ²⁸⁴ *Ene Sinestea*, loc. cit., 99.
- ²⁸⁵ «Haren baitan ez den denbora» Jainkoagan ezartzearen zentzua honela
argitzen baitu Salaberryk: «Jaungoikoak ez du lehenik moldatu gizona,
gero jalgi bere buruaz hari erran gogo zion solasa. Biak batean atera ditu,
betiereko orai, atzo eta bihar baita haren denbora gabeko denbora», ik.
Ene Sinestea, loc. cit., 99. Zer da hau, herri hautetsiaren «historia sakra-
tua» denboran ematen den kontakizuna, denbora gabeko Jainkoaren
baitan denbora gabeki ematen dela besterik? Baina hori edozein teologo
eta edozein filosofok (Jainkoa aintzat hartzen badu) ebidentetzat
emango du. Hain zuzen denboragabetasun horixe da Bergson-entzat,
Jainko filosofiko (edo teologiko) hori idor eta alferrikakoa bihurtzen
duena.
- ²⁸⁶ «Jaungoikoa eta gizona. Gizona izan ditake Jaungoikoaren alderako
bidea. Gizonaren atetik Jaungoikoa ageri. Jaungoikoaren alazetik gizona
ikusten. Bainan nola-nahika Jaungoikoa lehen. Jaungoikoaren eskuak
utz gizona, eta gizona ez litake bakarrik bilaka errauts, oraino errautsa
zerbeit baita, bainan eror litake izaitetik ez izaiterat», ik. *Ene Sinestea*, loc.
cit., 187. Argumentu hau DESCARTESen *Meditazio Metafisiko*-etarik hi-
rugarreneko bera da: «(...) ni lehenago existitu banaiz, ez da hortik ate-
ratzen nik orain existitu behar dudala, baldin eta ez badago une hone-
tantxe sortzen nauen, hau da, iraurarazten didan, kausa bat...»
- ²⁸⁷ *Ene Sinestea*, loc. cit., 104.
- ²⁸⁸ «Gizonaren ezin geldia», loc. cit., 85.
- ²⁸⁹ «Nous assignons donc à la métaphysique un objet limité, principalement
l'esprit, et une méthode spéciale, avant tout l'intuition. Par là nous dis-
tinguons nettement la métaphysique de la science. Mais par là aussi nous
leur attribuons une égale valeur. Nous croyons qu'elles peuvent, l'une et
l'autre, toucher le fond de la réalité», in BERGSON, H., *Oeuvres*, loc. cit.,
1277-78.
- ²⁹⁰ Ib., 1286. Eta Ib., 646: «On verra que le problème de la connaissance,
pris de ce biais, ne fait qu'un avec le problème métaphysique, et que
l'un et l'autre relèvent alors de l'expérience». Ib., 1287: «C'est dire que
science et métaphysique différeront d'objet et de méthode, mais qu'elles
communieront dans l'expérience».

- ²⁹¹ Ib., 1408.
- ²⁹² Ib., 1284.
- ²⁹³ Ib., 807. «Le philosophe doit aller plus loin que le savant» (Ib., 806).
- ²⁹⁴ Ib., 1424. Eta Ib., 645: «Mais c'est à l'intérieur même de la vie que nous conduirait l'intuition...» Ib., 1395: «Nous appelons ici intuition la sympathie par laquelle on se transporte à l'intérieur d'un objet pour coïncider avec ce qu'il a d'unique et par conséquent d'inexprimable».
- ²⁹⁵ Ib., 1292 eta hurr., 1409 eta hurr. «La métaphysique est donc la science qui prétend se passer de symboles» (Ib., 1396).
- ²⁹⁶ «Gizonaren ezin geldia», loc. cit., 86.
- ²⁹⁷ Ik. SALABERRY, E., «Henri Bergson», loc. cit., 121: «Hiriaren hamar edo ehun iduripen erakuts (...) eta ez duzu den bezala ikus-araziko hiria haurrari», etab. Hiriaren «bihotzean» beharko litzateke kokatu.
- ²⁹⁸ BERGSON, H., *Oeuvres*, loc. cit., 1286. «Pour tout résumer, nous voulons une différence de méthode, nous n'admettons pas une différence de valeur, entre la métaphysique et la science. Moins modeste pour la science que ne l'ont été la plupart des savants, nous estimons qu'une science fondée sur l'expérience, telle que les modernes l'entendent, peut atteindre l'essence du réel [Salaberryrentzat zientziak «xehetasunez beteak» daude, baina ez dute gauzen «bihotzeraino» zulatzen: «fenomenoan», hots, «erlatiboan» geldituko lirateke, hortaz]. Sans doute elle n'embrasse qu'une partie de la réalité; mais de cette partie elle pourra un jour toucher le fond; en tout cas elle s'en rapprochera indéfiniment. Elle rempli donc déjà une moitié du programme de l'ancienne métaphysique: métaphysique elle pourrait s'appeler, si elle ne préférerait garder le nom de science. Reste l'autre moitié. Celle-ci nous paraît revenir de droit à une métaphysique qui part également de l'expérience, et qui est à même, elle aussi, d'atteindre l'absolu: nous l'appellerions science, si la science ne préférerait se limiter au reste de la réalité. La métaphysique n'est donc pas la supérieure de la science positive; elle ne vient pas, après la science, considérer le même objet pour en obtenir une connaissance plus haute. Supposer entre elles ce rapport, selon l'habitude à peu près constante des philosophes, est faire du tort à l'une et à l'autre: à la science, que l'on condamne à la relativité; à la métaphysique, qui ne sera plus qu'une connaissance hypothétique et vague... « [eskema unibertsal ahistorikoen fabrikazioa, alegia].
- ²⁹⁹ «Haurrek zioten ene zaldia izena zuela «Bergson» baitzakiten zaldiz ibiltzeari, Bergson-en irakurtzeari bezala, nintzala atxikia», in *Ene Sinestea*, loc. cit., 118. M. Itzainak: «Egun oroz heldu ziren hitzak ez ote ziren ere: Berritzea, Kreatzea. Ez naiz harritzen zure zaldia Bergson deitua bazaitzuten», *Omenaldia*, loc. cit., 28.
- ³⁰⁰ Giza arazoak eskema metafisikoetan bezain erraz manipulatzeko dituzten Salaberryk auzi metafisikoak (izatearenak) giza arazoaren (giza gogoaren) zentzuan, hementxe ere ikusten denez!

- ³⁰¹ SALABERRY, E., «Henri Bergson», loc. cit., 136.
- ³⁰² Ib., 137.
- ³⁰³ Ib., 137-138.
- ³⁰⁴ DELEUZE, G., *Le Bergsonisme*, Paris 1968. JANKÉLÉVITCH, V., *Henri Bergson*, Paris 1975.
- ³⁰⁵ «Henri Bergson», loc. cit., 108: «Hogoigarren mendeko Zokrate berria, Bergson».
- ³⁰⁶ Ik. *Ene Sinestea*, loc. cit., 174: «Zer zabilan Bergson gure mendeko San Agustin paregabeak, zoin ziren jakitatearen eta sinestearen lokarriak?»
- ³⁰⁷ Euskal Herrian, Bergson-en antzeko «konbertsio» filosofikoa, positibismotik eta bereziki Spencer-en influentziatik etorri halaber, Unamuno-k egin duena izan da.
- ³⁰⁸ Ik. SALABERRY, E., «Henri Bergson», loc. cit., 111-113.
- ³⁰⁹ Ib., 114-116.
- ³¹⁰ Ib., 126-127.
- ³¹¹ Ik., euskaraz, *Moralak eta erlijioaren bi iturriak*, Klasikoak 2002.
- ³¹² Halako Jainkoa, Ideia bat gizadiaren batasun eta anaitasunaren fundamentatzailea, arrazoimenarentzat beharbizun transzendental bat, erlijioko Jainkoarekin ez dagoela berdintzerik beste gabe, Marburgoko neokantiarrengan ikus daiteke –Cohen edo Natorp-en, adibidez–, horientzat erlijioko Jainko pertsonala mitologia hutsa baita. Bergson-en (1932ko) Jainkoaz, bada, Salaberryk bere erreparatze agertuko ditu: «(...) urrun zitaken oraino Bergson egiazko fedetik», ik. «Ib.», 142. Hil aurretik Jainkoa hobeto ezagutu izango zuen, hala ere (Ib., 143).
- ³¹³ Ik. SALABERRY, E., «Henri Bergson», loc. cit., 137. Salaberryk H. Taine eta T. Ribot izendatzen ditu hemen; 106 orrian Broussais sendagilea «ez dut behin ere aurkitu arima, ene nabal aho pean» esaldiarekin. H. Taine (1828-1893), historikari eta filosofo positibista, horren arabera izpirituaren ekintza, fenomeno sozial eta kultural oro, «arrazak, inguruak eta garaiak» zedarritzen dute. Ik. haren kritika bat, in BERGSON, E., op. cit., 1405-06. T. Ribot (1839-1916), psikologo esperimental, «metafisikaren» kritikoa, hori Bergson-en idazkietan maiz aipatzen da. F. J. V. Broussais (1772-1838), mediku militar «fisiologista», hori Bergson-ek ez du aintzat hartu, baina bere ateraldi probokatiboak luma apologistetan hilezkortua da.
- ³¹⁴ Ib., 107-108. «Bergson-ek buruz beheiti ixkuili du haren aintzineko sinhestea. Eman du ipurdiz goiti. Egin du gogoen erreboluzioa. Erreberitu du Zokratek lehenago bururatu zuen itzuli osoa. Hari esker, hogoi garren mendeak ikasi du baitezpadako arimaren baitezpadakoa. Hogoi garren mendea haren seme» (109).
- ³¹⁵ BERGSON, E., op. cit., 1400.
- ³¹⁶ Ib., 118. Ik., baita ere, «Le Pédagogue et le Commissaire», loc. cit., 8: «Mais la vie demeure rebelle à la règle de trois. Elle échappe à l'arithmétique. La quantité ne saurait être appliquée à la qualité sans déformation de cette dernière: telle devait être la découverte centrale de la méditation

bergsonienne. Et toutes les études postérieures ont apporté leur argument à cette intuition initiale.

³¹⁷ *Ib.*, 119-120.

³¹⁸ Salaberryk «asmua» dio. (Ik., baita, *Beñat adiskidea*, loc. cit., 77). Orixek «so egoitea», «begikolpea», «behatzea», «begiemaitea», «begikhaldua».

³¹⁹ Kontzeptuzko ezagutza, gauzan barnatzea baino gehiago, gauza beste gauzen artean katalogatzea dela, esan liteke, Bergson-en arabera: «Penser consiste ordinairement à aller des concepts aux choses, et non pas des choses aux concepts. Connaître une réalité, c'est, au sens usuel du mot «connaître», prendre des concepts déjà faits, les doser, et les combiner ensemble jusqu'à ce qu'on obtienne un équivalent pratique du réel», BERGSON, E., op. cit., 1409-1410.

³²⁰ *Ib.*, 1423-1424, oin-oharrean: intuizioa deitzen da «la fonction métaphysique de la pensée: principalement la connaissance intime de l'esprit par l'esprit, subsidiairement la connaissance, par l'esprit, de ce qu'il y a d'essentiel dans la matière, l'intelligence étant sans doute faite avant tout pour manipuler la matière et par consequence pour la connaître, mais n'ayant pas pour destination spéciale d'en toucher le fond».

³²¹ *Ib.*, 1424: «Est relative la connaissance symbolique par concepts préexistants qui va du fixe au mouvant, mais non pas la connaissance intuitive qui s'installe dans le mouvant et adopte la vie même des choses. Cette intuition atteint un absolu».

³²² *Ib.*, 1396: «Il y a une réalité au moins que nous saisissons tous du dedans, par intuition et non par simple analyse. C'est notre propre personne dans son écoulement à travers le temps. C'est notre moi qui dure. Nous pouvons ne sympathiser intellectuellement, ou plutôt spirituellement, avec aucune autre chose. Mais nous sympathisons sûrement avec nous-mêmes».

³²³ *Ib.*, 1200.

³²⁴ «Un Maître de la pensée», in *Gure Herria*, uztaila (1963) 8-9.

³²⁵ *Ib.*, 13.

³²⁶ «Henri Bergson», loc. cit., 121.

³²⁷ «La Messe», loc. cit., 36.

³²⁸ Bergson-ekin batera filosofia frantseseko «korrante izpiritualista»-koak aipatu beharko lirateke: Ravaisson, J. Lachelier (*Beñat adiskidea*, loc. cit., 73), E. Boutroux (ES, 108); Bergson-en izpirituko zientifikoak: Lecomte de Noüy («Le Pédagogue», loc. cit., 20), Alexis Carrel («L'Homme Basque», loc. cit., 30); soziologoak, literatoak. Boutroux-ren *De la contingence des lois de la nature*-n estudiantetako irakurketa kritikoa aski inportantzia ematen dio bere oroi-penetan (aip. orr.): liburu horrek filosofiatik zientzia auzikatzen du, hots, naturako zientzien determinismoa, hori erlatibatuz, askatasunari leku egiteko. Labur: Boutroux Ravaisson-en jarraipena da eta Bergson-en prestaera, ik. JANICAUD, D., *Une Généalogie du spiritualisme français. Aux sources du bergsonisme: Ravaisson et la mé-*

taphysique, La Haye 1969. Baina Salaberryren iturrien edo influentzien kapitulua beste ikerketaren baten aiduru gelditzen da.

³²⁹ «Henri Bergson», loc. cit., 136: «Bergson «Index» hirrikuzko liburuen hiztegia izan da emana».

³³⁰ LAFITTE, P., *Kazetari-lan bautatuak*, Donostia 2002, 402. Lafitte-renak ateraldi lotsagabe bat ematen du lehenengotik, baina egia da Orixek, beharbada Bergson-en filosofia guztia, baina gutxienez haren pasarte konkretu batzuk ulergaizkiro gaizkiulertu dituela arras. Bi adibide bakarrik (ez dira bakarrik). 1) «En las tres últimas líneas de *L'Évolution* precisamente dice [Orixeren itzulpena]: y no cierta nueva escolástica que ha brotado durante la segunda mitad del siglo diecinueve en torno a la física de Galileo, como la antigua en torno a Aristóteles. [Orixeren iruzkina:] Muchas obras de escolásticos he leído posteriores a esa época; pero no he visto en ellos citado jamás a Galileo. Sí en cambio a Aristóteles en la escolástica de todos los tiempos, sobre todo en la actual. Esto es ya un poco craso», ik. ORMAETXEA ORIXE, N., *Idazlan guztiak*, III. *Artikulu eta saiakerak*, Bilbo 1991, 52. Bai, kraso samarra da, Orixek Bergson (op. cit., 807) nola ulertu duen. 2) «Pero no puedo omitir un parrafito sabroso referente a otro espantajo que se llama la Ética [Orixeren itzulpena]: «... por una parte esas cosas enormes que se llaman la Sustancia, el Atributo, el Modo, y el formidable aparato de teoremas con el encabestramiento de definiciones, corolarios y escolios, y esta complicación de maquinaria, y esta potencia de aplastamiento que hacen que el principiante, en presencia de la Ética, quede herido de admiración y de terror, como delante de un acorazado de tipo dreadnought». [Orixeren iruzkin bitxi batek darrai -Ib., 43-, eta beste honek in 50:] «Ni tanto como algunos escolásticos, pero ni tan calvo como Bergson, que huye de las definiciones y de las pruebas precisas. Ya salió la Ética, otro de los terrores de Bergson. Pues a suprimirla no pensando en ella. ¡Cobarde!» Baina pasarte horretan Bergson (op. cit., 1350) ez zaio erreferitzen etikari, baina Etika deritzon Spinoza-ren liburuari!

³³¹ Neoeskolastikoentzat auzi erabakigarria zen hori. «Es además [Bergson-ena] una filosofía del *ser*, de la *sustancia*? He aquí el punto crucial del problema», objektatzen du definitiboki URDANOZek, T., *Historia de la Filosofía. VI. Siglo XX*, Madrid 1978, 65.

³³² Gure historia intelektualak dituen bitxikeria bitxietako batean, Orixek eskolastikoak substantziaren eztabaidan sartzera bortxatu du Txillardegi nobelista, ik. «Kierkegaard-en «egunkari ezkutua», in ORMAETXEA, Tx. (arg.), *Txillardegi lagun giroan*UEU 2000, 130-131, 14. oin-oharra.

³³³ Alferrik protestatu du Bergson-ek, op. cit., 1420, oin-oharra: «Encore une fois, nous n'écartons nullement par là la *substance*. Nous affirmons au contraire la persistence des existences».

³³⁴ Wilham Viennot-i gutuna (1941-01-27), ik. ORMAETXEA ORIXE, N., op. cit., 24.

- ³³⁵ «Bergson-en inguruan», in *Idazlan guztiak, III. Artikulu eta saiakerak*, loc. cit., 36.
- ³³⁶ *Ib.*, 47.
- ³³⁷ *Ib.*, 41 («pues dice que nosotros somos emanación de la materia, que es la que nos crea» –gizon-emakumea eboluzioz sortua dela, alegia). Orixerentzat fedez bezainbat zen «razionalki» absurdua gizakiaren jatorri ebolutiboa, materialismoaren ondorio dongea.
- ³³⁸ *Ib.*, 46: «La inteligencia combina y separa, arregla, desarregla, coordina; nada crea» (*Pens.* 167). Como se verá al hablar de esta palabra la *intuición* crea; es así que la «intuición» no es sino la inteligencia, luego o ella también crea, o ninguna de las dos crea. Esta contradicción es de bulto. Beste leku batean: «Bajemos, pues, al interior de nosotros mismos: cuanto más profundo sea el punto a que hayamos llegado, más fuerte será el empuje que nos devolverá a la superficie». Muy bien Reverendo Padre» (*Ib.*, 50).
- ³³⁹ *Ib.*, 41. Substantzia aristotelikoa jada Ockham-ek kritikatu zegoen, Bacon, Locke eta enpirismo ingelesak gero, Descartes-ek ere baztertua, etab. Nola XX. mendean halako buruhaustea sortzen dituen, adibide polita da, Elizaren itxitasuna ikusteko mendez-mende filosofia moderno guztiarekiko. Itxitasun horixe zen, ordea, mugimendu «modernista» eta moderno guztiak gainditu nahi zuena, eta bere kontra ere amorru guztian jasan beharra zeukana. «Asko jakintsun dagotzi gogo-bihotzen nahaskeriaz hobendun (...). Bainan badute asko eliza-gizonek hoben ez ttipia, eta erran nezake haundiagoa», salatu du Salaberryk, ik. «Mendeko bi zauriak», loc. cit., 344.
- ³⁴⁰ *Ib.*, 42: «Cómo [cambio] sustancial, si no hay sustancias? Digamos cambio continuo, permanente. Pero cambio de qué? vicisitud de qué, si no hay *qués* o sustancias? Bergson imagina, pues, una danza sin danzantes, una danza arrancada de los danzantes, y que sola sin ellos, queda, no ya estacionada en el aire, sino en movimiento continuo».
- ³⁴¹ *Ib.*, 40.
- ³⁴² MARITAIN, J., *La Philosophie bergsonienne*, Paris 1930.
- ³⁴³ *Ib.*, adibidez, nahikoa berandu oraindik, aipatu URDANOZ, T., neotomista espainola, op. cit., 15 eta hurr. Bergson-en pertsonarekiko ez da oso karitatetsua. Bergson-ek, hori da berak ematen duen arrazoia, bere herri judu pertsegituarekin elkartasunagatik, ez zuen Eliza katolikora konbertitu nahi izan. «Quizá no sólo por la razón oportunista que alega, sino por falta de humildad y convicción interior», irazkintzen du Aita Domingotarrak, ezbarkakor. Haren filosofiaz: «Bergson no renunció a ninguno de sus principios filosóficos, que no son conciliables con la dogmática católica» (*Ib.*, 18). «Las tesis básicas del sistema bergsoniano son insostenibles en toda sana filosofía como formalmente contradictorias» (*Ib.*, 83). Salaberryk ez zeukan erraz.

- ³⁴⁴ «Saint Thomas», loc. cit., 3. Sinpatia unibertsalezko ikusbide ezberdinen integrazioaren «metodo tomista», moderniaeren hastapena ezarri duen «metodo kartesiarrari» kontrajartzen zaio, «de négation et de rupture». Gerorxeago, hala ere, beste tonu batean mintzo bada, garaiko izpiritu burgoiak gaina hartu duela, esan genezake: «Rompant en visièere avec les théologiens de son temps, nous enseigne le Père Gillet, il introduit la raison en théologie pour en faire une science». Le sang des comtes d'Aquin ne s'est pas affaibli en lui, mais épuré. Il reste du château de Rocca-Secca...»
- ³⁴⁵ «Toutes les richesses qu'il avait puisées à pleines mains, partout, il les intègre» (Ib., 4).
- ³⁴⁶ «De cette pensée la plus ouverte, la plus complexe, si nous faisons une prise de position sommaire et grincheuse, quelle trahison! De même que Marx déclarait en face de certains de ses disciples: «Je ne suis pas Marxiste!», je croi qu'avec plus d'humour, l'enfant de Naples, la ville méridionale des bons mots, nous dirait: «Je ne suis pas Thomiste» (Ib., 7).
- ³⁴⁷ «Mendeko bi zauriak», loc. cit., 344. San Tomasen eredia aipatzen da berriro.
- ³⁴⁸ «Libro gira egintzak, gure jite osotik direlarik dario, barneko jitea dutelarik kanporatzen, harekilarik badutelarik, eginak egilearekin batzuetan daukan ezin erranezko eitea». —Bergson-en solasetan lerro horiek ditazke gutienik onhartgarri, gehienik aharra bide», ik. «Henri Bergson», loc. cit., 122. Ohar bedi, puntu horretantxe elkarretaratzen direla gehiena Bergson eta existentzialismoa, eta gehiena urruntzen Salaberry Bergson-enganetik!
- ³⁴⁹ Ib.
- ³⁵⁰ Ib., 122-123.
- ³⁵¹ Ib., 123.
- ³⁵² Ib.
- ³⁵³ Ib., 122.
- ³⁵⁴ Ib., 129. Esan beharrik ez, Bergson-en «gizarte itxia» eskuzabaltasun handiz bakarrik berdin daitekeela, baina Salaberryk halaxe egiten du, Marx-en kolektibismo eta determinismo historikoarekin (Ib., 129-130, 137-138). Eta erredukzionismoak jarraituz, Jainkogabetasunarekin lotzen da hori dena: «Jaungoikoa aita duela ahantz arau, gizona bihurtzen da herriaren menpeko: erletegiko erle, xinhaulritegiko xinhaulri. Ttuku-ttuku badoha gibelka erle eta xinhaulrien arterat» (Ib., 130).
- ³⁵⁵ Ib., 137-138. Filosofia sozialean ere Salaberryk badu Bergson-en kritika bat: «Bergson se trompait lorsqu'il voulait amortir l'amour de la province pour que s'établisse l'amour de la nation», ik. «Du régionalisme à l'internationalisme», loc. cit., 138.
- ³⁵⁶ «Henri Bergson», loc. cit., 138. Kristau Bergsonzaleak bezala, ematen du, marxista Bergsonzaleak ere bazeudela. Salaberryren arabera, alabaina, Marx eta Bergson elkartezinak dira. «Laster marxiztak bortxatuak dira

emeiterat, edo komunixgotik kanpo, edo Bergsongotik kanpo; edo toxi-toxia itzuliren dira Marx-erat, edo urhatsez-urhats joanen dira Bergson-erat» (Ib.).

³⁵⁷ Ib., 141.

³⁵⁸ Ib.

³⁵⁹ «Frantzia maite zuen bihotz guziz, Frantzia zerbitzatua zuen ahal bezain ongi, eta Frantzia zagon ezindua, eroria, hatsa luze, etsaiaren belhauna lepho gibelean» (Ib.).

³⁶⁰ Ib.

³⁶¹ Ib., 142.

³⁶² ERDOZAINZY-ETXART, A., «Edouard Herriot», in *Jakin* 3 (1957) 104-105.

³⁶³ Ib., 106. Salaberryrekin beste kointzidentzia askotarako ere garai hone-tako interesetan (funtsean lana eta kultura), ikus halaber Erdozainzy-ren «Euskal billerak Hazparden. Eskualdun ixtudianten hamargarren egunak Hazparden. Zonbeit gogoeta», in *Jakin* 4 (1957) 80-84.